

Jakin^{•eus} 2016

herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2015

Kepa Enbeitari elkarrizketa

LOREA AGIRRE

Arabako euskalgintza: kapital publikotik
hiztun komunitaterantz

MANEX AGIRRE

Laborantza, sindikalgintza, herrigintza:
Iparraldeko esperientzia

MIXEL BERROKOIRIGOIN

EGUNEN GURPILEAN

NAGORE AMONDARAIN · HENRIKE GALARZA
TXERRA RODRIGUEZ · GORKA JULIO

Jakin *•eus* **206**
herria kultura hizkuntza urtarrila-otsaila
2015



JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torrealdai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torrealdai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

HISTORIA BIZIA

ELEZ ELE

11 Kepa Enbeitari elkarrizketa Lorea Agirre

Kepa Enbeita kultur eragilearen bizitzan eta jardunean sakontzeko aukera eskaintzen digu elkarrizketak: haurtzaroa eta gerra ostea Muxikan; enbeitatar dinastiaren ondarea; Arantzazu eta Jakin; lehen alfabetatze eskolak; lehen atxiloaldia, desterrua eta kartzela; auzolana eta baserri eredu berri baten bilaketa; nekazaritza sindikalgintza: EHNE sindikatuaren sorrera; etenik gabeko jazarpena...

ALEZ ALE

73 Arabako euskalgintza: kapital publikotik hiztun komunitaterantz Manex Agirre

Arabako euskalgintzaren bereizgarri nagusiak aurkezten dira. Beste lurraldeetako mugimenduarekin alderatuta, Arabako euskalgintzak berandukoa, bazterrekoa eta ahula izateko fama duen arren, atzeman daitezke arreta ematen duten ezohiko praktika batzuk, aurrera begira jarrita probetxugarri izan daitezkeenak. Horiek identifikatzeko ahalegina egiten da.

89 Laborantza, sindikalgintza, herrigintza:
Iparraldeko esperientzia
Mixel Berrokoirigoin

Ipar Euskal Herriko nekazaritza sindikalgintzaren esparruan azken hamarkadetan izandako esperientzia azaltzen da, ibilbide horretan erreferentzia izan diren ELB (Euskal Herriko Laborarien Batasuna) sindikatuaren eta Euskal Herriko Laborantza Ganberaren nondik norakoenguruz. Laborantza eta sindikalgintza eredu bat ez ezik, herrigintza ulertzeko bezko ildo bat ere taxutu du esperientzia horrek.

EGUNEN GURPILEAN

105 Kultura
Nagore Amondarain

111 Ekonomia
Henrike Galarza

118 Soziolinguistika
Txerra Rodriguez

124 Telepolis
Gorka Julio

Interview with Kepa Enbeita

The journalist Lorea Agirre conducts an extensive interview with the cultural enabler, Kepa Enbeita, in a new issue of the series *Historia bizia* (Living History). The interview takes a major look back over Enbeita's life: his childhood in Muxika; his post-war memories; the legacy of the Enbeita dynasty –love of the Basque language, the Basque Country and *bertsolarism* (verse improvisation)–; his studies with the Franciscans and his problems with religious vocation; his work at Jakin and meetings of Basque language activists; the early years of ETA; the first literacy schools and his work as a record and book seller; his first arrest in 1963; exile and imprisonment; his faith in community work: the search for a new farmhouse model via a farm cooperative in Abornikano; the first steps towards agricultural trade unionism; the setting-up of the EHNE trade union; his decisive participation in the first municipal and regional elections of 1977 for the PNV party; the constant persecution endured for decades... **Lorea Agirre**

Cultural activity in the Basque language in Araba: from public capital to community of speakers

Manex Agirre, a Basque language technician and *bertsolari* (verse improviser), describes the main distinguishing features of cultural activity in the Basque language in the territory of Araba. In comparing it to the movement developed in other territories, cultural activity in Araba has tended to be seen as being late in the day, marginal and weak. Despite this, the author attempts to pinpoint a range of pioneering practices that are starting to be noticed and that may prove to be beneficial in the future. **Manex Agirre**

Agriculture, trade unionism and nation building: the North Basque Country experience

The agricultural trade unionist Mixel Berrokoirigoin analyses the agricultural trade unionism experience in the North Basque Country over the past few decades, focusing on the development of the main reference points in this sphere of activity: the ELB trade union and that of the Agricultural Chamber of the Basque Country (Euskal Herriko Laborantza Ganbera). This experience has not only had a bearing on the definition of a new model for agriculture and trade unionism, but also of a new way of understanding nation building. **Mixel Berrokoirigoin**

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, economic, sociolinguistic and communication matters. This section draws on various specialists: Nagore Amondarain, Henrike Galarza, Txerra Rodriguez and Gorka Julio. **Various authors**

Kepa Enbeitaren historia bizia dakar 2015eko lehen zenbaki honetik, haren ahotik ekarri ere, elkarrizketa luze bat egin baitiogu, Abornikako bere etxean, bi txandatan. *Urretxindorra*-ren biloba eta Balendin Enbeitaren seme zaharrena, Kepa Enbeita erresistente bat da. Enbeitatarra, berak esan ohi duen bezala «izenez adina izatez», enbeitatar izate hori abertzale eta euskaltzale izan eta ekitetik igarotzen baita. Gerra urtean Muxikan jaioa, sehaskatik bertatik tokatu zitzaion deusezten ari zen mundu bati eustea. Orduanik, eutsi, berreskuratu, birsortu, josi, eraiki eta belaunaldi berriei tresna erabilgarriak eskaintzen dabil. Horretan tematu da ibili den leku anitzetan: herrigintzan, hizkuntzaren berreskurapenean, Euskal Herri osorako nekazaritza sindikatu bat lortzeko ahaleginean, garai bateko auzolana berreskuratu eta berritzeko lanean, eta beste.

Enbeitaren ahotik Euskal Herriko azken bost hamarkadetako historia aletu daiteke. Bere historia pertsonalaren kontaketatik, herri honen historia konta liteke; baina, ez bakarrik historia kolektiboaren ondorio delako, baizik eta, eta bereziki honegatik, historia horretan eragile izan delako.

Sarritan 'bazterretako' borroketan ibili dela esan genezake, *statu quo*-aren kontrako bideetan, eraldatzen, nekazaritzan, adibidez, edo Arabatik herrigintzan. Biak ala biak eremu 'periferikoak'. Eta hain zuzen, sarri gertatzen den legez, gurean ere, 'zentroan' baino 'periferiatan' gertatzen dira gauzarik interesgarrienak, eta baita eraginkorrenak ere. Eroso ez egotearen 'abantailak' akuilatuta-edo. Horixe ikusten da Kepa Enbeitaren *Historia bizia* elkarrizketaren ondoren datozen bi artikuluko mamitsuetan. Manex Agirre euskara teknikari eta bertsolariak Arabako euskalgintzaren gaineko erradiografia eta analisi zorrotza egin du, eta Mixel Berrokoirigoin ELBko kide eta Euskal Herriko Laborantza Ganberako lehendakariak, berriaz, Iparraldeko nekazaritzaren ingurukoa. Biak ala biak Enbeitak jorratu dituen eremuak.

Biak 'periferiko' esan dugu, 'zentroan' dagoela uste duenarentzat bederen. Arabako euskalgintzak berandukoa, bazterrekoa eta ahula izatearen sona du, baina pizgarriak sumatzen dira, 'zentroa', agian, lokartzen ari den honetan. Lehen ondorio orokor bat: alda-

keta handia eta ikusgarria izan dela Arabakoa, euskararen aurrebidean. Eta esperantza bat: orain egin daitekeela 'benetan' lan euskalgintzan Araban, batetik, orain dagoelako, benetan, ekimen berrien hartzaila izan daitekeen masa kritiko bat, eta, bestetik, euskalgintzan lanean dabilen belaunaldi aldaketa baten zantzuak daudelako. Alegia, beste herrialdeetan, 'zentroetan', lehenago bizi izandakoaren antzeko zerbait bizi dela, orain, Araban. Abantaila bat: besteen akatsak ez errepikatzeko aukera.

Beste periferian, 'Iparraldean eta nekazaritzan', zentral bilakatzeko azken hogeita hiru urtean Euskal Herriko Laborarien Batasunak (ELB) egindako bidea aztertu du Mixel Berrokoirigoinek. ELB, laborantza eta sindikalgintza eredu bat izateaz gainera, herrigintza ulertzeko egikaritzea bat ere izan da. Aldi berean sektoriala eta orokorra, Berrokoirigoinek idatzi legez sindikalismoa lotu dutelako «Euskal Herriaren errealtate eta eraikuntzari». Hau da, argi izan dutela ez dela gauza bera, adibidez, «lurrari eta lurraldeari lotua den laborantzak egiten duen herria, edo industrializatua eta artifizializatua den laborantzak egiten duen herria». Hala ere, Euskal Herri osoko nekazaritza sindikatu bateratu bat antolatzea –Enbeitaren betiko borroka– ez du hurbil ikusten, zail ikusten baitu «Hegoaldean lortzen ez dena Euskal Herri osoan lortzea». Agian, sakon aztertzeko moduko puntu bat izan liteke azken hori.

Egunen gurpilean atala aldizkariaren azken aldean dator, baina ez da horregatik bazterrekoa. Oraingo honetan, gainera, berrituta dator. Bi artikulugile berri estreinatu dira bi zaharren ordez. Joseba Barandiaranek utzi eta Henrike Galarzak idatzi du Ekonomia atalean, eta Dabid Anautek Txerra Rodriguezi eman dio erreleboa soziolinguistikako gaietan. Teknologia birtualez Gorka Juliok dihardu, eta Kulturaz, berriz, Nagore Amondarainek, ohiko denez.

HISTORIA BIZIA

ELEZ ELE

- 11** Kepa Enbeitari elkarrizketa
Lorea Agirre

ALEZ ALE

- 73** Arabako euskalgintza: kapital publikotik hiztun komunitaterantz
Manex Agirre
- 89** Laborantza, sindikalgintza, herrigintza: Iparraldeko esperientzia
Mixel Berrokoirigoin

Kepa Enbeitari elkarrizketa

Lorea Agirre

Kazetaria

Aspaldiko ametsekin nabil», erantzuten du, orain esku artean zer duen galdetzen badiozu. Badira bi urte jubilatu zela, 77 urterekin. Baina ez dago geldirik. Eskatzen dioten guztietan laguntza eskaintzen eta dakienetik ematen jarraitzen du. Badu zer emana, esperientzia ikaragarri pilatu duelako, urte luzeetan, han eta hemen, egindako lan eta ekarpenei esker. Abornikanon bizi da, Abel anaiarekin, Errota baserrian.

Kepa Enbeita Ealo da, 1936ko urriaren 24an jaioa, Muxikan, gerra piztu berritan. Kepa Enbeita *Urretxindorra*-ren biloba eta Balendin Enbeitaren seme zaharrena, zazpi neba-arrebetan nagusia, gaur, bera da familiako 'patriarka', ilobek esaten diotenez. Aita Duesoko kartzelan ezagutu zuen bost urteko mutiko zela. Hark iltzatu zien euskaltzaletasuna eta

abertzaletasuna, eta horiek ditu odola eta burua mugiarazten dizkioten bi bihotzak. Enbeitatarren kastakoa, izenez eta izatez, enbeitatar izateko izena ez dela nahikoa sinetsita baitago bertsotan jardun ez duen enbeitatar bakarrenetakoa den hau.

Arantzazun frantziskotarrekin ikasi zuen, sakramentino «ume lapurrekin» ez joateagatik, hamar urterekin, Foruko frantziskotarretara bizikletaz joan eta izena eman eta gero. Berak esaten duen legez, «fraide ez joateko fraide joan». Baina ez bokazio ez federik ez zitzaion sortu. Trauma bezala bizi izan zituen orduko eskolen diziplina eta bortizkeria. Eta, baita, euskaraz egiteko ukoa ere.

Arantzazuko azken urteetan, baina, beste mundu bat aurkituko du, Jakin aldizkari jaio berrian. Euskararen eta kulturaren aldeko borrokan engaiatuko da, Jakinen inguruan sortu zuten kultur mugimenduaren baitan antolatutako 'Pagopeko bilerak' edo 'Euskal matxinada' deitzen zituzten topaketekin. Hortxe topatu zuen bere bokazioa, baina ezin izan zion nahi bezala eutsi.

Fedea txikitatik etxean ezagutu zuen auzolanean izan du; fedea, eta egikaritza. Euskal Herriak «berezko duen sistema sozial eta ekonomikoa», auzolana, gaurkotzen eta zabaltzen eman ditu azken hogeitertetik gora, besteak beste, elkar laguntza eta babeserako Sutearo egitasmoarekin. Euskal Herriko nekazaritza sindikatu bateratu baten beharrean ere sinetsita dago Euskal Herriko sindikalgintzaren historian leku eta izen propioa duen hau. Bere eskuetatik igaro dira herrialdeetako EHNE sindikatuen sorrera, eta esku puntetan izan zuen, 1977an, Euskal Herriko nekazaritza sindikatu bateratu bat sortzeko aukera. Baina ez zen lortu, eta hori du arranguretako bat. Hogeitertez, Euskal Herriko eta Espainiako sindikatu guztien ordezkari izan zen aseguruaren ENESA erakundearen.

Arabako Abornikano herrian, Errota baserrian, nekazaritza eta auzolana batzen zituen bizi-egitasmo baten aldeko apustua egin zuen 1970ean. Beste behin, atxiloketa batek lurperatu zuen asmo hori. 1964tik 1984ra bitartean, atxiloketa,

tortura, miaketa, kontrol, kartzela eta desterrua kasik sistematikoki pairatu izan ditu. Kondenatu, ez dute inoiz kondenatu. Bere hitzetan, horrek «bizitza apurtzen dizu».

Baina, hala ere, ekin eta ekin: frankismo garaian, lehen alfabetatze eta gau eskolen sortzaile, euskara metodoen apai-latzaile, euskal kantagintzaren bultzatzaile, euskarazko liburu-
 en saltzaile... Zer ez. Frankismoa eta gero sindikalgintzan, eta euskararen berreskurapenean. Araba berreuskalduntzen eta abertzalearen badu parterik. Eta EAJ alderdiak badu zorrik harekin: 1979ko hauteskundeetan, udaletako kandidate-
 tura independenteak EAJren lerrora ekarri zituen ordu-
 ra arteko mapa politikoa goitik behera irauliz, eta alderdi abertzalearen esku utziz Arabako udal gehienak eta baita Diputazioa bera ere.

Euskal Herria puntarik punta ezagutzen du. Ez da herri askorik izango Enbeita pasatu ez denik, lan kontuak direla, edota egitismo berri bat dela. Eta, bestela, gustuz, txokoak eta jendeak ezagutzeko plazer hutsez. Zenbat jenderekin bil-
 du izan den, zenbat lagun ezagutu duen ezin konta daiteke. Asko, inondik ere. Autoz egindako kilometro kopuruak eman
 lezake Enbeitaren hartu-emanen berri: hiru milioi kilometro pasa bai. Euskal Herriaren GPSa buruan du. Talde gizona izan da, ez lehen lerroan egotekoa. Izan ahal zen Arabako
 Nekazaritza diputatu, esate batera, baina ez du bere burua hor ikusi izan. «Ez dut balio izan goitik behera jarduteko»,
 dio, «beti herri lana egin dut, atzeko lana». Ekin, eragin, antolatu, eratu, kudeatu. Bere emazte zenak, Mari Jesus Igual Oribek, berarekin ezin dela haserretu esaten omen zuen, ez-
 tabaida gogortuz gero, bertan behera uzten duelako, animoak hozten direnerako. Alaba baten guraso. Aintzina izena ondo kostata jarri zion. Guraso den aldetik, alabari ez dio leziorik eman nahi izan; alabak bizitza izan ei du irakasle, eta hark bizitzari ikasi dizkionaz harro dago.

Erresistente bat da Enbeita. Erresistente aktibo bat. Eutsi, eta egin. Aita ere horixe izan zuen. Agian, horixe du aitaren

lezio nagusia. Eta, beharbada, horixe da semearena berarena ere.

Amets zaharrak omen ditu oraindik esku artean. Nahiko luke baserrigintzan duen esperientzia hurrengo belaunaldiei pasatu eta bide berriak urratzen eta eraikitzen ahalegintxo egin. Auzolanaren filosofia eta praktika idatziz jaso eta zabaldu. Eta, enbeitatarren historia idatzita utzi. Bizitza osoan paperak jaso eta jaso jardun du. Poliziaren miaketetatik libratu direnak mahai gainera atera, hautsa kendu, eta den-dena txukundu eta idazteko aurtengo negua epetzat jarri dio bere buruari. Udaberria ere garai ederra da Euskal Herriaren azken 70 urteetako historia Kepa Enbeitaren bizipenetatik kontatzeko. Hurrengo lerroetan, 2014ko abenduan berari egindako elkarrizketekin eta berak idatzitakoekin osatutako lagin txiki bat.

Kepa Agustin Enbeita Ealo zara.

Nire amama eta amabitxi zen Benita Goiriak Kepa Agustin izenak jarri zizkidan, baina Agustin deitzeko. Gerora, lehenengo izena geldituko da, baina familian eta herrian oraindik ere Agustin deitzen didate. Horrela, norbaitek Agustin deitzen badit, badakit familiakoa edo herrikoa dela. Nortasun agirian Pedro agertzen zen Keparen ordeaz, baina aitak esaten zidan Kepa izenarekin inskribatu ninduela. Berrogei urte nituela eta beste zerbaitegatik herriko udaletxera joan nintzen batean, nire jaiotza agiria erakusteko eskatu nien, eta halaxe, Kepa Agustin agertzen zen, baina zirrimarratuta eta gainean Pedro Agustin jarrita. Galdetu nien nork maneiatu zuen dokumentu publikoa, hori delitua zela... Beraiek ez zekiten, eta nahiko banu alda zitekeela esan zidaten. Aldatu ez, esan nien, lehenean utzi, inskribatu ninduten bezala, eta orduan idazkariak Kepa Agosti jarri zidan, Euskaltzaindiak horrela agintzen duela-eta. Orain gertatzen zait askok Agosti Italiako abizen bat ote zen galdetzen didatela.

Gerra piztu zen urtean jaio zinen, urriaren 24an.

Hiru egun pasa egon omen zen ama erditzen, eta ia bost kilorekin jaio omen nintzen, beltz, belztuta. [Jon] Lopategi bertsolaria gure auzoa da eta bere ama, Santa Lauzirika, emagina, beti gure ama laguntzen. Gerra zibila abiatua zen, eta euskal gobernua ere sortu berria. Gure aita anbulantziekin omen zebilen atxilotu zutenean. Gero epaiketa, heriotza-zigorra, eta, azkenean, hamabi urteko kartzela zigorra. Aitarik ez nuen ezagutu ia bost urte izan nituen arte. Amak

kontatzen zuen, Gernika erre zutenean, hango garren argira gure etxe ondoan josten egin ahal zela. Nik sei hilabete, eta amaren besoetan txikizio hari begira, zer begiratzen nuen konturatu gabe.

Lehen urteak nolakoak izan ziren?

Oroitzapenak ez dira asko. Etxean ama eta horren aitarekin bizi nintzen, *aittite* Gabinorekin. Amak kontatzen zuen, nik ez dut gogoan, Duesoko kartzelara eraman ninduela aita ikustera eta hori agertu zenean «aittite» deitu niola. Normala, etxean nuen gizonezko bakarra aitita zen eta.

1941ean, haizete handia izan zen gau batez, eta hura ukui-luan pasatu genuen, erdiko habearen ondoan, manta batzuekin bilduta, abereen aldamenean. Norbere burua zaindu beharrean, abereena zaintzea nahiago nonbait. Oso gogoan ditut haizete haren txistu zoli, teilatuetakoa astrapaladak, dena gainera zetorrela pentsarazten zutenak. Ez dut uste, une batez ere, begirik itxi genuenik hirurok.

Aita etxeratu zen eguna ere gogoan duzu...

Aita liberatu eta etxera etorriko zela esan zuten eguna, atera irten eta sartu igaro nuen, norbait noiz ikusiko. Arratsaldean, iluntzen hasia zen, aldarretan (horrela deitzen genien etxe inguruko lur sail aldapatsuei) hiru gizon ikusi nituen, eta ama eta aititari «badatoz» esan nien. Hirurak sukaldera sartu eta eseri zirenean, aita nor zen galdetu zidaten. Erantzuna ez zen zaila, beste biak ezagutzen baintuen, aitaren anaia bat eta bere koinatua. Aita oso ahul etorri zen, eta solitariarekin. Gogoan dut solitaria zuen tartean kanpoan egiten zuela kaka, arrosario zuri zapal haiek desagertzen ziren ikusteko. Hilabete inguru ohean egingo zuen, noizbehinka bakarrik jaikitzen zela. Espetxeratu zutenean 80 kilotik gora omen zituen, baina etorri zenean ez zituen 60 ere izango.

GERRA OSTEA: ZIGORRA ETA ZAPALKUNTZA

Diziplina gogorra izaten zen garai hartan.

Gure etxean ezartzen zen etika eta diziplina epokakoa izango zen, noski, baina oso gogorra zen, erlijioaren dogmatismoarekin nahasia. Okerkeria edo umekeria txikienak jende aurreko kastiguekin zigortzen ziren. Adibidez, igandetan jendea elizara joaten zen bidearen erdian, belauniko eta eskuak gurutzean jarrita edukitzen gintuzten. Gogoan dut zelako jipoia eman zidan aitak, lelokeria bategatik, oraindik espetxetik etorri berri eta makalaldia pasatzen ari zen hartan, horretarako bakarrik ohetik jaikita: nire adin inguruko ziren Jon Lopategiren arrebekin masustak hartu eta jaten ari ginela, eta sasi arantzak atzamarra zula-tzean «Dios» berba esan nuelako, eta neskek gure etxean kontatu zutelako biraoa bota nuela. Bost urterekin zer nekien nik, baina Jainkoaren izena ezin zen alferrik erabili. Gerora, anaiek ere esaten dute, aita guztiz aldatu zen bai politikan eta bai jarreran. Guztiz. Berak jasotako lezioa ere horixe izan zen. Garaikoa horixe zen. *La letra con la sangre entra* praktikan jartzen zen. Eskolan ere maistrak berdin, dotrinan ere bai, eta Arantzazun baita ere. Gogorra izan zen garai hura, oso oroitzapen txarrak ditut, batez ere sortzen zitzaigun beldurratetik.

«Gogoan dut zelako jipoia eman zidak aitak, lelokeria bategatik, oraindik espetxetik etorri berri eta makalaldia pasatzen ari zen hartan, horretarako bakarrik ohetik jaikita»

Eta eskola nolakoa izan zen?

Sei-zazpi urterekin eskolara hasi ginen. Muxikan bost-sei eskola zeuden, eta niri trenaren geltoki ondoan zegoen eskola tokatzen zitzaidan. Maiz gertatzen zen, urteko aro batzuetan bederen, etxeko soro lanak zirela eta *itturren* egin behar zela, umeak zaindu behar zirela... eta etxean geldiarazten ninduten

eskolara joan gabe. Eskola horretako maistra, Doña Patrozinio, euskalduna zen, baina eskolan dena erdaraz egiten zen. Eskola sarrera, militarren gisa, errenkadan jarri, eskuak jaso eta himnoren bat kantatzen izaten zen. Guri etxean eskurik ez jasotzeko eta kantu horiek ez ikasteko esaten ziguten, eta guk horrela betetzen genuen.

Egun batez, maistrak karta bat eman zidan etxera eramateko, eta ni, zazpi urteko umea, etxera bidean jolasean, errota ubide batera jausi zitzaidan karta eta ezin izan nuen errekuperatu. Negarrez etxeratu nintzen eta aitari kontatu nion gertatutakoa. Sekula ez genuen jakingo karta hartan zer esaten zuen. Dena dela, aitag hurrengo egunean ere eskolara bidali ninduen, eta oraingoan Doña Patroziniok gure auzokide Jon Lopategiri esan zion gure aitari esateko eskola ez dela bakoitzak nahi duenean joan eta nahi ez duenean ez, taberna bezala, sartu-irteneko tokia, eta, beraz, gehiago ez joateko eskola hartara. Hori ikusirik aitag eskolaz aldatu ninduen, oraingoan Ariatzako eskolara. Hemen joango ginen eskola normalera goiz-arratsaldez, eta iluntzetan, Ariatzako nesken eskolako maistrak, Doña Petrak, ematen zituen klase partikularretara, aurreko eskolan galdutakoa edo ikasi eza errekuperatzeko. Hola pasatuko genituen zortzitik hamabi urte artekoak.

Gerra ondorena ez zen samurra izango galtzaile familia batean, ezta?

Nahiz eta denuntzia pila bat izan zituen, gure aita oso errespetatua zen herrian eta inguruetako herrietan. Hala ere, zuhur ibili behar zen, edozergatik salatzen baitzuten: etxean jateko patatak atera zituelako *fielato*-koei parte eman gabe, txerria edo txekorra hil zuelako parte eman gabe, bertsoak kantatu zituelako... Behin gogoratzen naiz jateko patata batzuk atera zituelako inspektoreak etorri zirela etxera. Aitita sorora joan zen patata arrastoak ezkutatzera, eta aita gereziondo gainera igo eta aizkorarekin adar zatiak ebaki eta lurrera jaurtitzen zizkien inspektoreei, denbora irabazi nahian. Ez zuten ezer

ikusi, gerezi pila jan eta etxerako ere eraman, baina 2.500 pezetako isuna etorri zitzaion. Kontu izan, 1944 inguruan, etxeetan ez zegoela ezer eta hori diru kopuru handia zela.

Momentu guztietan beldurrez bizi ginen, nahiz eta gure aitari ez zitzaion asko nabari. Aita harrapatu zutenean, kartzelaratzeko eta epaiketari kondenatzeko denuntzia jarri ziola bagenekien herritar batek, behin, bere sagarrak inauten joateko deitu zion. Amak ez zuen joaterik nahi eta haserretu ere egin zen, baina aita joan eta inausi egin zizkion. Eta zenbat zor zion galdetu zionean, aitak, «ezer ere ez» erantzun zion, eta «baina ez gehiago niri deitu, gizonak ez dira diruarekin saldu eta erosten» erantsi.

Gerra ondorengo urteak erabat gogorak ziren edonorentzat eta areago abertzaleentzat. Baserrietan ez zen ezer. Gurea soldaduek –edo auzoek– dena hustu zuten. Etxean kontatzen zigutenez, gurean ba omen zen etxeko haturik eta tresneriarik, eta batez ere etxea berriztatzeko material pila. Kontuan izan gure aita arotza zela eta etxe eraikuntzetan ibilia, eta ezkondu zenetik etxe zaharra berriztatzeko asmoarekin zebilen. Gerran, ordea, aita kartzelan, ama ni besoetan ninduela ihesean, eta aitita, Juan Lopategirekin batera, etxeko behiak hartu eta Mungia aldera joana. Etxera itzuli zirenean, etxeko hormak soilik aurkitu zituzten. Dena lapurtua zen. Soldaduak pasatu zirela esaten zuten, baina gure etxeko hatuak eta altzariak auzoko etxeetan ikusten ziren. Eta oraindik irribarrez esaten omen zuten, «Balendinek ez du gehiago kakarik Ormetxen egingo».

Gosea ezagutu al zenuen?

Ez dut gogoan goserik pasatu genuenik. Artoa eta garia izanik, beti zen taloa, morokila eta ogia sabela betetzeko, eta etxeko behien esnea, nahiz eta esne askorik ez zen izaten etxerako, saldu egin behar izaten baitzen txanpon batzuk lortzeko. Baserrian lan asko zegoen, eta lan horri ekiteko, umezain bat behar zen; eta hori nintzen ni, nire sei neba-arreben zaintzaile, eta baita sukaldari ere edo sua zaindu behar izaten

zuen indabak egosten ziren tartean. Zenbat aldiz erreko zitzaizkidan babarrunak, jolasean sua zaindu behar genuena ere ahaztuta, eta ondoren errieta eta jipoiak, guk *jibitotsa* esaten genion.

Baserritik bizi zineten.

Etxean sartzen zen diru bakarra merkatutik zetorren, patata, esne, ortuari eta frutak saltzetik. Zazpi urte nituenerako, amarekin urteko igande guztietan Zornotzako plazara

«Baserrian lan asko zegoen, eta lan horri ekiteko, umezain bat behar zen; eta hori nintzen ni, nire sei neba-arreben zaintzaile, eta baita sukaldari ere»

joaten nintzen. Merkatua goizeko seietan hasten zen. Ordurako bertan izateko, goizaldeko lauetan abiatzen ginen etxetik, zaldi bat trailan, bere otzarak jeneroz beteta. Eta eguerdian bueltan, berriz oinez edo noizbehinka zaldi gainean. Gure etxetik Gernikara hiru kilometro zeuden eta hamar Zornotzara, baina ama, zergatik ez dakit, beti Zornotzara joaten zen. Urteko igande guztietan, eta

udaran beste bi aldiz aste barruan. Igandeak ziren auzoko umeak elkar ikusi eta jolasteko egunak, baina gu ez geunden inoiz. Goizaldean merkatura abiatuz, eguerdian eta lau orduko oinezko bidaia egin ondoren, bi joaten eta beste bi etortzen, nekatuta eta logale izanik, siestara joaten nintzen edo bidaltzen ninduen amak, baina gero gauera arte edo eguna ilundu arte ez ninduen itzartzen, beraz, agur haur jolasak. Gerora sarri gorrotatu dut portaera hori, baina horrela gertatzen zen. Ez dut haurtzaro normal bat izan, adinkideekin jolasik egin gabe...

Bestalde, egunero edo astean hiruzpalau aldiz Gernikara joaten nintzen zaldiarekin etxe batzuei –gure senideak batzuk, mojak besteak, eta abar– esnea eramaten.

1948an, gerra sortu aurretik amestu zuen bezala, etxe berria egin zuen aitak zaharraren aldamenean. Berak egin zuen dena, hargin biren laguntzaz.

ENBEITATARREN DINASTIA

Ormetxe da baserri hori, baina aitaren jaiotetxea Jauregi zen.

Hori da, Usparitza Jauregi. Usparitza da auzunea, eta Jauregi baserria. Maizterrak ziren.

Eta hor dago enbeitatarren jatorria...

Enbeita baserria Ajangizen dago eta handik omen gatoz, baina nik nire aurreko guztiak Jauregin ezagutu ditut. Beno, nik *aittitte* ezagutu dut, *aittitteren* aita ez. Hura ere bertsolaria omen zen, baina tabernakoa, eta herriko alkate ere izan zen...

Jose Antonio Enbeita *Txotxo Jeuri*.

Bai, horixe, zestogileak ziren eta beraien eta herriko beste zestogileen zesto txikiak saltzen zituzten, Ezkerraldeko meatzeetan, hara gurdian eramanda. *Txotxo* ezizenez zen ezaguna. Alkate izan omen zen. Herrian beti Elizak agintzen omen zuen, eta udaletxeko batzarretara ere parrokoa joaten omen zen eta hizketan hasi. «Zu nork aukeratu zaitu ba? Inork aukeratu ez bazaitu, isilik», esaten omen zion behin birraitonak. Eta parrokoak segi hizketan. «Esan dizut isilik egoteko, bestela balkoitik behera joango zara», erantzun omen zion. Kontatzen dute, egia izango zen noski, oso gazterik ezkondu omen zen, eta urte bi baino lehenago emaztea hil, eta handik zuzen sei bat hilabetera-edo berriro ezkondu. Ezkontzetik elizatik atera, eta gazte lagunak etorri omen zitzaizkion pilota partida bat jokatzeko-edo, eta emaztea etxera bidali eta pilotan jokatzera joan omen zen.

Beste pasadizo hau ere aitak kontatzen zuen: taberna gizona edo tratu gizona omen zen, eta berandu eta lau txikito gainean zituela etxeratzen bazen, emazteak errietan ez egiteko, etxe ataurrera sartu orduko arrosario santua, letaniak eta kredoa eta dena hasten omen zen esaten, zuzen oheratu arte. Errietak, hurrengo egunean. Beste pasadizo bat: idiekin joaten zen meatzeetara zestoak saltzera. Eta behin gaixotu, eta

Antolin semea abiatu omen zen. Halako batean, idiek planto. Eta arre eta mugitu ere ez. Taberna bat omen zegoen parean eta bertan sartu-irtena egin omen zuen. Eta, orduan, idiek, aurrera. Bideko taberna guzti-guztietan gelditzen omen ziren idiak. Oso xelebrea omen zen. Gure aitak esaten zuen bere aitonaekin herriko plazan ibiltzea asko gustatzen zitzaiola.

Zer gogoratzen duzu Kepa Enbeita *Urretxindorra* aitona?

Aitona hil zenean sei urte nituen. Oso gutxi ezagutu nuen. Oso memoria gutxi daukat harena. Aitaren jaiotetxera sarri joaten nintzen. Anai-arrebak jaiotzera zihoazenean, amak nota txiki batekin aitaren jaiotetxera bidaltzen ninduen, eta han esaten zidaten ama hau eta beste eta ez dakit zer eta hemen egingo duzu lo, eta umea jaio eta etortzen nintzen etxera.

Kilometro bakarra dago guretik, Ormetxetik, Jauregira, eta bost urterekin jada bakarrik joaten nintzen, trenbide ondolik. Aitaren arreba bat, Edurne, neskame egon zen Bilboko zerrategi bateko jabearenean, Artabetarreanean. Artabe oso sarri etortzen zen Jauregira. Eta horrek bazuen grabatzen zuen gramola bat, eta behin aitona bertsoan grabatu zuen. Aitonaren boza hantxe zegoen bakarrik grabatuta, baina ez dakit zer gertatu zen, hondatu edo galdu, baina ez dago grabazio hori. Nik ez dut gogoan aitona kantatzen ikusia.

Fruta arbola asko zituen, eta aitak kontatzen zuen arbola bati urrakada bat egitea berari egitea bezala zela. Sagar mota piloa zuen. Eta sagardoa egiten zuen. Lehendabizi sagar guziak ganbarara igotzen ziren eta hor sagar mota bakoitza pila ezberdinetan metatzen zuen. Ganbaratik etartera egurrezko hodi bat zen, eta etartean burdin txirringa handi batzuk jiraturaz sagarra txikitzen zen. Gu, umeak, ganbaran, bakoitza sagar pila baten ondoan jarri, eta sagarrak hodi horretatik jaurtitzen genituen, sagar mota batzuetatik gehiago eta besteetatik gutxiago. Orduan egiten zen sagardoa oso ona zen, oraingoa baino gozokoagoa zen. Gure aitak ere egiten zuen, eta botilatan sartzean, goraino bete baino koilarakada bat

kabitzeko adina utzi eta sagardoarekin eta azukrearekin jarabe bat egin, bota, eta gero alanbrearekin lotzen zituen, ez lehertzeko. Eta xanpain modura ateratzen zen gero.

Aitonaren heriotza gogoan duzu?

Aitona hil bezperan, joan nintzen eta besarkatu egin nintzen, eta esan zidan «laster jaunartzea egingo duzu», «gurasoen meneko izan behar zara», eta horrelako kontu batzuk. Hil zenean, lepora eramaten ziren kutxak, eta kanposantura lau kilometro luze izango ziren Jauregitik. Eta gure aldarretatik behera jende pila bat joan zela gogoan dut. Orduan beldurra zegoen oraindik. Gernika erre zutenean alkate zen Labauria ihes eginda zegoen, baina aitona hil zenean Jauregira etorri omen zen. Han esan omen zioten Gernikara joateko, eta berak ezetz, «nik lehengo Gernika daukat gogoan eta ez dut berria ikusi nahi».

«Gernika erre zutenean alkate zen Labauria ihes eginda zegoen, baina aitona hil zenean Jauregira etorri omen zen»

Amuma [Benita Goiria] 96 urterekin hil zen. *Amuma* bere etxekeok desheredatu egin zuten zestogile batekin ezkontzera zihoalako, pobre batekin. Goiriatarak ziren.

Aitona Kepak aldaketa bat bizi izan zuen pentsaeran...

Aitak kontaktzen zuenez, garai hartan herriko medikua zen Juan Arrospidek, sabiniano amorratua bera, Kepa deitu eta bere bertso altxorra aberriaren eta erlijioaren zerbitzuan jarzera konbentzitu omen zuen. Lehenago bere aita bezala taberna bertsolaria eta bertso paperekoa omen zen. Konbertsio hori egin zuenean 30 urte inguru izango zituelakoan nago, Sabino Arana hil zenean ia 25 urte bazituen-eta. Kontua da meatzetako buruek jakin zutenean aitona abertzaletasunera pasatu zela, ez zizkiotela zesto gehiago erosi.

Bertsokera ere aldatu omen zuen.

Bai, horrek denak ondorio tristea izan zuen. Ze gure aitona erlijiora eta abertzaletasunera etorri zenean, ordura arte egin-dako bertso guztiak erre egin zituen bekatu zirelako. Bortzietako uholdeen gainean idatzitako bertso idatzi batzuk eta holako gutxi baino ez dira gordetzen, bere garaian argitaratu egin zirelako. Baina besterik ez. Eta handik aurrerako bere bertsoak denak berdinak dira. Pila bat bai, baina Jaungoikoa, euskara, lege zaharra, Jaungoikoa, euskara, lege zaharra. Kito. Aurrekoak, dauden gutxiak, askoz ere bertso hobeak dira.

Ez dakit konbertsio horren ondorengoak bakarrik edo aurrekorik izango zen, baina bertso bilduma handi bat Lauaxetari eman omen zion argitaratzeko. Lauaxeta fusilatu egin zuten eta bere etxea hustu. Agian, Salamancan, gerran lapurtu dokumentu guztien artean aurkitzeko esperantza izan daiteke.

Sozialistekin ere ez omen zen gaizki konpontzen ordura arte behintzat.

Aitak esaten zidan, behin Eibarren bertsotan ari zela, sozialistek esan omen zioten ez zela ausartuko beraien herriko etxean kantatzera, eta Urretxindorrek baietz erantzun omen zien. Eta joan zenean, mahai baten inguruan omen zen kantaldia, eta mahai horretan pitxarren bat omen zen urez beteta eta edalontzi pila bat hutsik. Gertakari hori gai hartuta kantatu omen zuen luzaro, pitxarra gainezka betean kapitalaren irudiari lotuz, eta edalontzi hutsak langileei. Lepoan hartuta atera omen zuten herriko etxetik. Hori dela-eta, izen ona zuen sozialisten artean ere.

Ez dakit ze garaitan izango zen, alderdiaren [EAJ] mitinetara bertsotan joaten omen zen, eta jendeak askoz hobe pasatzen omen zuen bertsoak entzuten, mitin aspergarri eta ulergaitzak entzuten baino.

Beste gertaera bitxi bat ere kontatzen da: bertsoak kantatzen ari zela, entzuleen artera «Viva España» deiadarka sartu zirela. Non izan zen ez dakit. Oñatin entzun dut beti etxean, baina garaiko prentsak Eibarren dio. Udaletxeko balkoitik

bertsoak kantatzen ari omen ziren beste bertsolari bat eta biak. Bera kantuan zela, batzuk aurreratu omen ziren «Viva» horiek errepikatzen. Eta Urretxindorrek, larritu gabe, bertsoa bukatu zuenean, bertsolari lagunari esan omen zion berak erantzungo ziela eta famatua egin zen bertso hau kantatu zien:

«Viva España» didarka dagoz,
 nik ere «biba» dirautsat.
 Gorrotorikan ez dagolako,
 nigandik Espainarentzat
 Katolikuok ikasi daigun,
 zer dion goiko juezak.
 Besten gauzari bakean itxi,
 zaindu beria bakoitzak.
 Orraitik dinot barriz be biba
 izan bei espainarrentzat.
 Baita be dinot gora Euskadi,
 geuria da ta geuretzat.

Inork ez omen zuen gehiago oihurik egin eta bertsolariek bere lanean jarraitu zuten.

Urretxindorren anaia Manuel ere bertsolaria zen, eta ona.

Aitonaren anaia Manuelek ez zuen kantatzen, baina idatziz bertso zoragarriak ditu. Egunero-egunero idazten zuen hitz lauz. *Euzkadi* egunkarian argitaratzen zituen. Bizitza osoan idazten egon zen, dena euskaraz, orduko euskararen, euskara garbizalean.

Beste anaia bat Santi zen. Santiren etxean, haren seme-ala-bek, zaharrenak ezik, ez dakite euskaraz. Hori bai, arrosarioa egunero hark, arrosarioa, erdaraz. Kontraesanak. Ni haien etxean egoten nintzen tarteka. Semea apeza zuen. Hura gure etxera etortzen zen eta joaten ginen biok Usparitza Jauregira amama bisitatzerara. Eta amamak esaten zidan, «hori zertan dator hona, ez diot ulertzen-eta». Amamak ez zekien erdaraz.

Ondorengo belaunaldian, aita Balendinenean ere, bertsolariak bat baino gehiago dira, ezta?

Bai, Sabin anaia ere bertsolaria zen, herrietan eta mitinetan aita eta biak aritzen ziren, garaiko prentsan ikus daitekeen bezala. Baina hari ezin zitzaion bertso bat kantarazi, behin *trabajadores*-etik etorri eta gero. Ez dakit noiz, baina halako txarriboda batean, kontrabentana guztiak itxita, inork ez entzuteko moduan, suabe-suabe bertsoen bat kantarazi omen zioten. Bestela bat ere ez. Eta aita bezalaxe bertsolaria zen, e!

Aitak izan duena da sekula ez zela kikildu. Espetxea eta errepresioa gertatu beharreko gauza bat bezala hartzen zuen. Berarentzat bertsolaria herriaren boza zen, eta herriari kantatu behar zitzaion. Eta berdin zitzaion gotzaina etortzen bazen, gai zen hari lau bertso kantatzeko esanez artzainak bere ardiak ezagutzen dituela eta berak euskaraz ez bazekien ea nola ezagutuko zituen bereak. Berdin zitzaion. EAJ jada politikan agertzen hasi zenean, esan zidan deitu ziotela Galdakaora bertsoan egiteko, eta ez zekiela joan edo ez, ez zegoelako EAJn. «Joan, eta kantatu pentsatzen duzuna», esan nion. Nik ez dakit zer kantatu zuen, baina ez zioten inoiz gehiago deitu.

«Aitak izan duena da sekula ez zela kikildu. Espetxea eta errepresioa gertatu beharreko gauza bat bezala hartzen zuen»

Etxean bertsoan egiten zen?

Bai, aitak bai. Nik inoiz etxean bertsoen bat kantatu dut amak idatzita. Amak ez zekien bertsoan baina nik kanta-tzeagatik egiten zuen.

Amak sortu?

Bai. Hori egina nago.

Orduan ama bazen pixka bat bertsolaria.

Ez, bera ere ez. Baina hainbeste entzunda, ba... Amak harro esaten zuen gaztetan *Euzkadi*-n idazten zuela. Osaba

Manuelen bertsoen bila ibili nintzenean, topatu nuen lau lerroko herriko albiste bat, *Klarale*-k sinatuta, Klara zen bera.

Zuon etxean bertsoa nola irakasten zen? Bertsoa egiteko modua irakatsiz edota entzun eta kantatuz?

Entzun eta kantatuz. Natural. Kantatu eta entzun eta egin. Aitaren arreba Mirenen gizona Pedro Ajuria zen, Ireneo Ajuria bertsolariaren aita. Bera ere bertsolaria zen. Pedro eta aita oso-oso ondo konpontzen ziren. Pedrok taberna bat zuen, eta han asko entzuten zen bertsoan, herrian orduan jende askok egiten zuen bertsoan, eskasa edo bukatu eza, baina norbait hasten bazen besteek erantzun. Eta aitak eta Pedrok pentsatu zuten zergatik ez jendeari erakutsi bertsoan edo bertsoara ohitu, eta tabernako sukaldean hasi ziren irakasten, badaezpadan, eta gero tabernan bertan. Eta hori izan zen lehenengo bertso eskola. Metodo bat erabiltzen hasi ziren: gai bat jarri, eta gai horri buruz hurrengo larunbaterako bertso pare bat ekarri behar zituzten. Eta gero denen artean aztertu egiten ziren eta hobetu. Eta baita, bertan, gaia jarri eta kantatu. Eta publikoa ere hala izaten zuten. Bertso horiek publikatuta daude. Alemaniar batzuk ere etorri ziren eta grabatu zuten nonbait.

Tradizio hori gizonengandik gizonengana pasatu da orain-tsu arte. Aldiz, azken belaunaldian emakumeak ere bertsoan ari dira.

Berezko bat dago hor. Gurean txiki-txikitatik bertsolari izan dena Jon anaia izan da. Lopategi ere txikitatik ez da bertsolari izan, ez Abel, ez Moises, ez ni –nik beti esaten dut Arantzazuk antzutu ninduela–. Abel eta Moises ere 15 urtetik gora zirela hasi ziren bertsoan. Arreba Libek ere noizbait kantatu zuen baina oso pentsatuta eta oso idatzita. Ireneo Ajuriaren arrebak ere bai. Gure etxean anai-arreba guztien seme-alabak bertsoan ibili dira. Horiek denak ikastolatik eta bertso eskolatik pasatu dira. Hortxe dago aldea.

Aita bertsolari handia bakarrik ez, euskaltzale handia ere izan zen.

Aita zen beti euskararen alde egitekoa. Bertsotan egiteko eta zentsura gainditzeko, kantu herrikoien letrak ematen zituen. Hark ez du sekula izan bertsotan ez egiteko aitzakiarik. Jesusen bizitza bertsoz ere jarri zuen teatro moduko bat osatuz, eta kalean ezin zenez, elizetan emateko. Baina harena ez zen elizako kontua: kontua zen euskaraz egitea. Eta etxetan sartuta zegoen jendea ateratzea eta euskarara hurbiltzea.

Euskarazko kantuak zabaltzeko zazpi laguneko otxote bat ere osatu zuen, eta herriz herri ibiltzen ziren. Behin sari bat irabazi zuten, baina zazpi zirela eta ez zieten eman. Arrate irratian ere lortu zuen Muxika inguruko berriak ematea. Beti egiten baina sekula ez bakarrik. Beti jendea biltzen zuen ingurura. Beti taldean. Horretan latza izan da. Ideia bat izan eta beti aurrera, nahiz eta denuntziak eta egurra jaso, aurrera.

**Enbeitatarren euskaltzaletasun eta abertzaletasun horrek guztiak ze leku du Bizkaiko euskal kulturgintzaren historia-
ren baitan? Ze eragin izan du? Erreferentzi gune bat izan da?**

Nik uste dut zirkulu horretatik ez garela atera familia osoa. Batzuk gehixeago eta beste batzuk gutxixeago, baina horren inguruan gaude. Nire lehenengo atxiloketa txoke handia

izan zen familiarentzat, eta gero denak, familia hurbilekoena diot, ezker abertzaleatik joan gara. Aita ere horra pasatu zen. Gure etxeak, Ormetxek, izan duena eta enbeitatarren beste etxeek izan ez dutena izan da etxean edonor hartzen zela euskara ikasteko. Mintza praktika egitera etor-

tzen ziren. Etxean egoten zena ama zen. Aita oso jende artekoa zen izatez, baina amak hartzen zituen. Eta beti daukagu damua ez dugulako zerrenda hori egin. Ehunka izan ziren.

«Aita zen beti euskararen alde egitekoa. Hark ez du sekula izan bertsotan ez egiteko aitzakiarik»

ENBEITATARRA: ESAN ETA IZAN

Zer da enbeitatarra izatea?

Enbeitatarren artean izena bai egon da, baina gure aitarena bezalako euskaltzaletasun-abertzaletasun praktikarik ez da egon. Hori akusazio bat da. Orain denen seme-alaben seme-alabengan badago, baina gure belaunaldian ez zen horrela, eta ezta gure aitaren belaunaldian ere. Enbeitatar guztiekin beti ondo konpondu naiz, baina beti koko hori barruan: zergatik hauek ez euskaltzale eta abertzale ekintzaile Balendin bezala? Aitaren euskararen borroka guk derrigor barneratu eta bizi behar izan genuen. Eta hortik dator. Baina nik beti esan dut gure familian izenak ez duela izana egiten. Izenarekin bizi izan direnak izan dira familian. «Enbeitatarrak gara», harro esaten. Baina enbeitatarren militantzia Balendinena izan da.

Ealo ere bazara.

Bai, gure amaren aita Arratiakoa da. Berak erosi omen zuen 60.000 errealetan Ormetxe baserria. Beti dudan daukat, ez dakit zen Bedia edo Usansolokoa.

Hori zen *aittitte* Gabino.

Bai.

Eta ama zer?

Ama bakarra zen. Hamar urte zituela ama hil zitzaion eta aitarekin bizi izan zen bakar-bakarrik. Ni eurekin, eta etxean traba egiten nuenean bidaltzen ninduten Mundakara amaren senideengana. Mundaka guztian, beste haurrik ez baze goen bezala, esku puntan erabiltzen ninduten. Etxe hartan bizi zen gizonezko bakarrarekin, Pedro Marirekin, ni baino zazpi-zortzi urte zaharragoa, basora edo baso barrenean zuten ortura joaten ginen egunero. Fruta asko eta goxoak zeuden, batez ere madariak. Hemendik ikusten genituen

Sukarrietatik Bermeora arteko trenaren bidea aitzur eta palaz egiten ari ziren presoak, ondo zainduta, zaintzaile asko eta guztiz armatuak. Gerora eta orain ere, beti esaten dut Mundaka dela munduko herririk politena. Oroitzapen horiek ez dira sekula ahazten.

Ama ere beraz tradizio abertzale sakonekoa izan zen, ez zelako arrunta izango emakume bat *Euzkadi*-n idazten.

Bai, aitona ere bai. Eta aitona euskaraz irakurtzen bazekien. Haiei deitzen zieten *Sabino Aranaren 12 apostoluak*. Herrian ba omen zen dozena bat lagun, Sabino Arana Sukarrietan atxilotuta eraman zutela jakin zutenean, Autzagainera atera omen zitzaizkienak «nor hil behar da?» esanez, eta Sabino Aranak «trankil, ez da ezer pasatzen» esan omen zien. Aitona horietako bat omen. Nik ez dakit. Aitona mezetara joaten zen igandetan, eta handik etorri eta *Meza-donea* izeneko euskarazko liburutxo bat hartu eta hango ebanjelioak irakurtzen pasatzen zuen ordu erdi bat. Langile amorratua zen. Sekula katarrorik harrapatzen ez zuena. Beno, harrapatzen zuen, baina gau batean osatzen zen: hartzen zituen asunak, gorputza igurtzi, alkoholarekin gorputza busti, eta lastoa hartu eta egin zotin mazoak, eta goizeko bostetan sorora. Sekula ez nuen gaixorik ezagutu azkenera arte. Neuk topatu nuen hilda. Berarekin egon nintzen, eta bazkaltzen jaitsi, eta amak esan zidan «ea salda edo zerbait nahi badu», eta igo nintzen eta tarte horretan hil zen.

Anaia bat ere, Xabier, bi hilabete besterik ez zuela, nire be-soetan hil zen. Garai hartan ume asko hiltzen zen. Herrian hilkutxa zuriak asko izaten ziren. Niregatik Arrospide medikuak esan omen zuen sukar handia nuen batean, «bihar goizeko zortziak ez ditu harrapatuko», eta hurrengo goizean zazpietarako etorri, eta, «ene, hau salbatua da». *Aittitte* Gabinok gure etxeko sukaldeko paretako tarte guztiak paperekin bete eta sua azkartu zuen. Gure amak esaten zuen sukalde hartan 60 graduko beroa izan zela, eta horregatik gaude oraindik bizirik.

ARANTZAZURA FRAIDETZATIK IHESI

Eta Arantzazura joatearena nondik nora sortu zen?

Garai haietan mota askotako fraideak etxez etxe ibiltzen ziren bokazio bila. Ume lapurretan esaten nuen nik. Go-goan ditut karmelitak, pasiotarrak eta batez ere sakramentinoak. 1946an, Lopategi auzoa sakramentinoek eramane zuten, eta inguruan zebiltzan fraideok ni ere eramane nahian. Eta nik ez nuen inola ere fraide joane nahi. Horrela egoera, gurasoek erabaki zuten Bilbora bidaltzea bigarren mailako estudioak egitera. Baina, hara nola, Pedro Mari Aldana auzokidea eta biok, bizikletan, Foruko frantziskotarren komentura joan ginen frantziskotar joane nahi genuela esaten. Hau da, fraide ez joatearren –batez ere sakramentino– fraide joatea erabaki genuen. Gure artean esaten genuen estudioak ikasi eta gero ihes egingo genuela.

«Ez orduan, ez gero, ez sekula, ez genuen fraide egiteko bokaziorik sentitu, baina hara hor fraide bidean. Gerora hamabi urteko borroka etorriko zen fraidetzatik nola atera jakin ezinean»

Etxean ez zekiten ezer?

Ez, mugida hau isilean egin genuen, etxekoekin kontatu gabe. Amak maleta bat erosi zuenean Bilborako arropak sartzeko, maleta handiagoa behar nuela esan nion, «fraide noalako». Denak harrituta utzi nituen. Horrela, Aldana auzokidea 1947an joango zen, eta ni 1948an.

Eta ez zaizu inoiz bokaziorik sortu?

Ez orduan, ez gero, ez sekula, ez genuen fraide egiteko bokaziorik sentitu, baina hara hor fraide bidean. Gerora hamabi urteko borroka etorriko zen fraidetzatik nola atera jakin ezinean, gaizki ikusia baitzegoen fraidetza lagatzea,

eta Arantzazuko ikastetxean hainbat adibide bizi izan genituen. Ihes egin zuen bat guardia zibilekin ekarri zuten, eta mutil gizajoa, fraide estudiante guztien aurrean belauniko jarri, beldurgarrizko sermoia egin, madarikatu, iraindu, kondenatu eta kanporatu egin zuten, denon larruan beldurra sartzeko.

Eta Arantzazun, zer?

1948ko irailaren 14a zen. Herriko jaiak, eta jaien erdian autobus gainera ohe koltxoia igo, arropa maleta eskuan, eta Arantzazurako bidea hasi genuen, jaiak bertan behera uztearen barruko pena, eta nora nindoan hodeiertz iluna buruan. Laster hamabi urte egitekoa nintzen. Arantzazuko ikastetxean une hartan 180 bat ikasle ginen eta bospasei ziren euskaraz ez zekitenak: hiru soriar, arabar bat, Bilbo Ezkerraldeko bat eta pare bat Donostia ingurukoak. Esan beharra dut ez nekiela ezertxo ere erdaraz, baina ikaskideekin jarduteko arazorik ez nuen, ia denak euskaldunak baitziren. Hala ere, bi arazo sortu zitzaizkidan: bat, gehiengo handi bat gipuzkoarra zela, eta ez niela asko ulertzen; eta, bestea, ikastetxeko zuzendaritzak erdaraz egitera behartzen gintuela, bospasei horiek euskaraz ez zekitelako, «por caridad cristiana». Gurasoei idazten genizkien kartak ere erdaraz izan behar ziren. Gipuzkoakoekin ulertzea lortu nuen, baina orokorrean euskararen atzerantz egin nuen. Arantzazun erdaraz egitea agintzeak zirrara handia sortu zidan.

Erdara jakin gabe nola egiten da ikasketetan aurrera?

Arantzazuko ikastetxean hiru urte egiten ziren, nire kasuan lau, hirugarrena errepikarazi zidatelako. Oroitzapen oso ilunak eta garratzak ditut lehen urte horietaz, eta adinez eta karreraz aurrera joan, ulertezinagoak egin zaizkidanak.

Irakasleen artean ez zen batere profesionaltasunik, ez zuten irakaskuntza teknikarik, ez eta pertsonak tratatzeko pedagogiarik. Gure buruetan ikasgaiak sartzeko metodo bakarra zigorra zen. Eta hori praktikatzen zuten ia denek, bai

zaintzaileek eta bai irakasleek. Musika eta musika instrumentuak atsegin nituen, baina horretarako notak oso altuak izan behar ziren, eta guk ezin.

Guk ez genekien erdaraz, eta dena erdaraz azaltzen ziguten, nahiz eta irakasle gehienak euskaldunak izan. Ez genuen ezer edo erdirik ere ulertzen; beraz, ezin esaten zena asimilatu ez ikasi, eta kalabazak edo justuan beti notak. Buruz ikasi eta buruz errepikatu behar izaten genituen asignatura batzuk, historia adibidez, loritoak bezala, esaten zenuena ulertu gabe; eta horrela ez bazen, zuzen errepikatzen ez bazenuen, egurra, zigorra... fisikoa, psikikoa eta sabelekoa.

Sabelekoa?

Bai, sabelekoa. Ogi zati txiki bat jartzen ziguten bakoitzari eguerdian eta beste bat gauean, eta arratsaldean ogi zati bat eta esku bete kakahueteak. Kontuan izan behar da gose garaia zela, eta gazteengan gosea handitu egiten dela. Zigorra sarritan ogi gabe, merienda gabe geratzea izaten zen. Sarri ikastetxe erdia inguru merienda gabe zigortuta egoten zen. Eta inoiz kolegio osoa ere bai. Era berean, eguerdian edo gauean, ogi gabe. Jatekoa aurreratzeko, agian? Garaiko sistemak izango ziren, baina horrela zen. Gure gosearen adibide bat: gure jolas, joko eta apustu guztiak ogi zatiak ziren. Eta ogi zati pare bat irabazita zuena, harro, ez zen praktetan kabitzen.

Ondoren, Forura, eta han beste pizgarri batzuk sortu zitzaizkizun, ezta?

Foruan, Aita Imanol Berriatua ezagutu genuen. Bere dinamismoa, bere euskaltzaletasuna eta lanerako jendea erakartzeko transmititzen zuen indarra ikaragarria zen. Foruko bi urteak, ikasketek ematen zituzten tarte guztiak aprobetxatuz, euskara aberasten eta Berriatuarekin *Anaitasuna* aldizkarian eta beste lan batzuetan eman genituen. Garai hartan, *Anaitasuna* ziklostilatzen ikasi genuen. Foruan hasi ginen gure euskararekiko eta herriarekiko lankidetzaz jabetzen.

Foruan, euskararen kontzientzia hartu zenuen gertaera oso zehatz bat medio.

Txikitan etxean beldurraren menpean bizi ginen euskaldun izateagatik. Etxetik jaso genuen hori. Denuntzia zela euskaraz egiteagatik, aitaren anaia Sabin *trabajadores*-etan, arreba

«Foruan nengoela,
aita eta ama bisitan
etortzen zirenean,
haiekin hizketan
erdarara jotzen nuela
ohartu nintzen,
eta lotsatu»

Miren gerra garaian Saturraren kartzelan, aitaren kartzelaldia eta heriotza zigorra... Hori dena jaiotzetik bertatik mami-tzen duzu. Hori bagenekien. Euskararen eta abertzaletasunaren kontzientzia aitek-eta barruraino iltzatuta eman ziguten. Gaztetan, baina, badut pasadizo bat benetan lotsarazi ninduen: Arantzazun euskara ahaztu egin nuen,

eta Foruan nengoela, aita eta ama bisitan etortzen zirenean, haiekin hizketan erdarara jotzen nuela ohartu nintzen, eta lotsatu haien aurrean ez nintzelako euskaraz lehen bezala egiteko gai. Hortxe hartu nuen kontzientzia. Gainera, nik uste nuen amak bazekiela erdaraz baina konturatu nintzen ezetz, ez zekiela. 15-16 urte izango nituen. Eta *Kresala*, *Garoa* eta *Auñamendiko lorea* puntatik puntara irakurri nituen. *Garoa* dena ulertzen nuen, baina *Kresala* itsasoko hitzez josita zegoen eta kostatu egin zitzaidan, apuntatu, bilatu eta galdetu. Foruan, zorte handia izan nuen han Aita Berriatua topatzea. Hura dinamita zen.

Zarautz eta Erriberrin jarraitu zenituen ikasketak, 1958 arte, eta Erriberrin kontzientzia abertzalea garatu zitzaizun.

Zarautzen janzen ginen fraide eta botoak profesatzen genituen, pobrezia, obediencia eta kastitatea. Batere bokazio gabe, baina nola atera asmatu ezinean, fraide izan nahi genuela itxura emanez pasatu genuen Zarauzko urtea. Obediencia edo menpekotasun itsua adierazteko ekintza irrigarri pila bat egin. Hemen ez dakit euskarazko libururik bazenik

ere. Irakurri ez genuen batere egin, erlijio otoitz, salmo eta letaniak, ez besterik.

Gero, Erriberrira, eta han bai irakurketa egokiagoak eta lagunarte ona. Joseba [Intxausti] eta ni batera heldu ginen hara, Joxe [Azurmendi] hurrengo urtean iritsi zen. Eta lagunak egin ginen, eta lankidetzak bat sortu genuen, konplizitate bat esango nuke, Joseba Intxausti, Joxe Azurmendi, Juanito Laskibar, Fernando Mendizabal eta besterekin. Han irakurri nituen Jose Antonio Agirreren *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín*, eta Xahoren idatzi batzuk. Eta han hasi nintzen idazten (bertsoak, olerkiak eta antzerkiren bat ere), lehiaketa batzuk irabazi ere bai. Hori dena klandestinitatean, noski, egunero-ko fraide bizitzatik aparte. Dena dela, nabarmen ikusten zen filosofian askoz ere diskurtso hobea genuela, Arantzazuko lehen urteetan, erdara ez jakiteagatik halako esfortzua egin genuenok; gure adimena filosofiak eskatzen zuen diskurtso-rako prestatuagoa zegoela ematen zuen, erdara jakiteagatik esfortzu txikiagoa edo esfortzurik egin ez zutenen aldamenean.

PAGOPEKO EUSKAL MATXINADA

Eta azken urteak berriro Arantzazun, eta hor Jakin aldizkarian hasten zara.

Berriro Arantzazura, karrerako azken lau urteak teologia ikasketak eta apaiz edo mezako egitera. Jakin aldizkaria gu Arantzazura iritsi aurreko urtean sortu zen, eta sortzaileek, mezadun eginez, komentutik alde egin zutenez, Fernando Mendizabal bakarrik gelditu zen eta laguntza eskatu zuen aurrera egiteko. Lehen urtean, Joseba [Intxausti] eta biok heldu genion lanari. Hurrengo urtean Joxe [Azurmendi] gehituko zen, eta hiruron artean tandem bat osatu genuen.

Nire bokazio falta medio, nire ikasketa guztiak ozta-ozta gairitu izan nituen beti; beraz, humanitate formakuntza larria nabari nuen, baina euskararekiko kontzientziaren harrak

edo zertarako indarra eta kemena sortzen zuen nire barruan. Hori horrela, nire lana, gehienbatean, idaztera baino, kudeaketa eta eskulanera mugatuko da. Garai hartan Jakin klixe batzuetan idazten zen, gero litografia bidez inprimatzeko. Idazteko makinaz idazten ziren eta hutsegite gabe, bestela berri idatzi behar zen klixe berri batean, gaurko ordenagailuetan ez bezala, ez zuelako zuzenketarik onartzen. Eta ikasketa eta erlijio egitarauak ez ziguten lan honetarako betarik uzten. Beraz, Arantzazuko eliza berriko porlanezko horma handien azpian, nonbaitetik bonbilla txiki bat lapurtuz, fraideek zaratarik ez entzuteko moduan, gau osoak pasatzen nituen Jakin idazten. Zenbat aldiz makina gainean loak hartu eta goizean bertatik zuzen koruko errezoetara joaten nintzen.

‘Pagopeko bilerak’ edo ‘euskal matxinada’ hori hasi zenuen. Zer zen hori?

Garai hartan, Arantzazu inguruan mugimendu handi bat sortu zen, euskalgintzaren baitan. Erreferente bat. Eta mugimendu horren guztiaren buruan, lehen esandako hirukotea geunden. Urtero fraideki mota askotako ordezkariekin Arantzazun biltzen ginen ‘Pagopeko espiritua edo euskal matxinada’ deitzen genuen bileretan: agustinoak, sakramentinoak, beneditarrak, pasiotarrak, karmeldarrak, kaputxinoak, seminaristak, eta frantziskotarrak, noski. Erlijio mota bakoitzeko ikasleak bakoitza bere aldizkariak ere argitaratzen hasi ziren: *Goldaketan*, *Laiaketan*, *Erein*...

Erljioso ez zirenak ere batu ziren...

Bai, harremanak sakondu eta estutu egin genituen: Karlos Santamaria, Txillardegi, Gabriel Aresti, Jokin Zaitegi, Andima Ibinagabeitia, eta abar. Igande guztietan Arantzazutik ematen zen mezaren entzule kopurua ere handituz joan zen, eta bertan ematen ziren mezuak euskalgintza eta aberrigintzaren erreferente bihurtu ziren. Meza Aita Jose Goitia bermeotarrak zuzentzen zuen. Gogoratzen naiz nola Arestik eman zidan Angela Figueraren olerki liburuko olerki bat,

Jesus Nazareteko arotzari gutuna, uste dut Joxe Azurmendik euskaratu zuela, eta Aita Goitiak meza erdiko sermoi bezala irakurri zuen. Entzuleengan zirrara handia eragin zuen, baita eliz eta gobernu agintariengan ere. Ondorioz, igandetako irrati meza galarazi egin zuten. Hurrengo igandean, Goitiak debeku horren kontrako sermoia egin zuen, eta sermoiak egitea ere galarazi egin zioten.

Matxinada bazen, beraz...

Giro gori horretan ospatu zen Arantzazuko Amaren eguna, irailaren bederatzia, gotzaina eta gobernadorea bertan zedula. Meza erdian Espainiako himnoa jo behar izaten zen, baina urte hartan eta hurrengoan miraria gertatu zen: Arantzazuko organoaren hauspoa elektrikoa zen eta argi indarrrik gabe ez zuen soinurik sortzen, hara miraria, meza erdian argia joan zen, inork ez daki nola, eta ez zen etengailuaren arazoa izan. Ez zen inolako himnorik entzun. Meza bukatu eta gero arte ez zen argirik egokitu. Bi urte horien ondoren ez dut uste gehiago himnorik jo zenik.

Arantzazuko Amaren egunetik aparte ere, Urbiako eguna zela edo beste gertakariren bat zela, goizaldetan maiz azaltzen ziren ikurrinak Arantzazu inguruko mendi tontorretan. Ekintza horiek kristoren iskanbilak sortu zituzten frantziskotarren, gotzainaren eta gobernadorearen artean.

Arantzazuk sortu zuen euskal giro horri eusteko, 1959-1960 urteetako Aste Santuan, Aita Iratzeder beneditarraren *Jesusen pasioa* teatro emanaldia prestatu genuen, eta eliza berri handia jendez gainezka bete zen.

Arantzazuko emanaldi guztien programazioa ere guk prestatzen genuen, horretan Juanito Laskibarren laguntzarekin. Behin, komentuko korridore batean geunden hiruzpalau lagun, Juanito Laskibar, neu eta beste batzuk musika artxi-boa ordenatu eta klasifikatzen, eta hizketan: Aita Garmendia Arantzazuko nagusia pasatu zen, eta zertan genbiltzan galdetu zigun, eta nik «demokrazia praktikatzen» erantzun nion. «Hau astokrazia da eta ez demokrazia», erantzun zigun.

Egia esan, ezin genuen sinetsi ere zein lagun gutxiren artean sor zitekeen gaina hartzen zigun mugimendu zabal hura.

Azkenean fraidetza uztea lortu zenuen.

Nire baitan benetako krisia sortu zen: alde batetik, nire saltsan ari nintzen, nola hala nire bizi arrazoia topatuta, baina bestetik nire bokazio ezari irtenbidea eman behar nion. Eta, horrela, teologiako hirugarren kurtsoa amaitzear zela, moral irakaslearengana zuzendu nintzen nire krisia gordinean azaltzera eta erabaki bat hartzen laguntza eske. Fraidetza uztea zela egokiena esan zidan. 1961eko Errege egun bezperan hartu nuen etxerako bidea. Baina pauso hori eman aurretik, neure gain zeuden lan mota guztientzat ordezkariak bilatu eta prestatu behar nituen lanek aurrera jarraitzeko: Jakinen kudeaketa, harpidedunen kobraketak, harpidedun berriak egiteko erabilitako bideak, Arantzazuko urteko bilerak, Arantzazuko egutegia, *Anaitasuna*...

HERRIAREN BORROKA

ETAren sorrerako garaiak nola gogoratzen dituzu?

ETA sortu zenean fraide nengoen oraindik Arantzazun. Han, norbaitek kontatuta, jakin genuen bazela zerbait, mugimendu bat hasi zela. Arantzazun, Jakinen inguruan sortu zen ekimenera jende asko etortzen zen. Batzuk mugimendu haren aldekoak eta beste batzuk guztiz kontrakoak. Eta hor jakin nuen nik bazela zerbait. Besterik ez.

Eta, zuzenago, lehen harremana?

Geroago, etxera joan nintzen anaia Jonen jaunartzera. 1957a izango zen, eta gure etxean neska bat zegoen euskara ikasten, Jose Mari Benito del Valleren neskalaguna, eta hori han ezagutu nuen. Fraidetzatik atera eta hilabete batzuetara, Jose Marik bidalita edo beste bide batetik, Arantzazutik ere asko

ibiltzen baitzen, Imanol Lazpiur eibartarra etorri zitzaidan, herriaren borrokan parte hartu nahi nuen galdetu, eta ogibide bat eskaini zidan. Ogibidea etxez etxe liburuak saltzea zen. Egia esan, edonork erosi ezin zituen liburuak ziren, klasikoak, On Kixote, Biblia, Geografia, Dante... Baina larruzko eta luxuzko koadernaketarekin, irakurtzeko baino apalak dotoretzeko hobe zirenak. Ez dut uste bat ere saldu nuenik, lotsa ematen zidan, alde batetik erdarazkoak zirelako, eta bestetik hain garestiak.

Eta deitu zidaten ETAREN asanblada batera joateko Belokera. Nik gauza asko ez nuen aditzen. 1962a izango zen. Han asko entzuten nuen Marx eta Marx eta Marx, eta nola gure ikasketetan Marx ukatua zegoen, ez nuen dena ulertzen. Han ezagutu nuen pertsonalki Iratzeder.

Ez nuen konpromisorik hartu. Handik gerora ere beste asanblada batera deitu zidaten, uste dut Getariara. Han geundela enteratu ginen mugan tiroak izan zirela eta Krutwig eta beste bat galduta zirela, pasatzen lagundu behar ziena ez zelako azaldu eta asanblada hartan zegoen. Erdizka utzi, beste batean jarraitzeko, eta alde egin genuen. Beste batera ere deitu zidaten, ez dakit asanblada deitu edo ez, baina joan nintzen. Mendian zen, artzain txabola antzeko batean, baina ez zuen ardi usainik. Lehenengo gauean zen, eta norbaitek omen zuen armaren bat, nik ez nuen ikusi, eta berearekin jolasean, txabolatik kanpo, tiro egin zuen. Goizalderako denok alde egin genuen.

«ETAREN asanblada batera joateko deitu zidaten Belokera. Nik gauza asko ez nituen aditzen. Han asko entzuten zen Marx eta Marx eta Marx»

Garaiko ETAREN giro horretan, euskarak ze pisu zuen?

Erakundearen barruan ez nintzen ibili. Hasieran, gainera, sare zabal bat zen, irekia, eta inguruan bai, kultura eta euskara

bultzatzen ibili nintzen. Euskarak, teorian, lehenetasun erabatekoa zuen, baina buru zebiltzan askok ez zekiten euskaraz. Hori jada akats bat da. Txillardegi zen bakarrenetakoa horri praktikan inportantzia ematen ziona.

Ze hizkuntzatan egiten ziren bilerak?

Esan bezala, buruzagi askok ez zekiten, edo ez zekiten ondo, eta gaiak aurkeztu eta sakontzean erdara erabiltzen zen. Taldeka, agian, denak edo gehienak euskaldunak suertatzean, euskara zen nagusi.

Txabi Etxebarrieta zen Getariako bilerako burua, eta euskara ikasten ari zen baina ez zuen egiten oraindik. Bere anaiaren bitartez ezagutu nuen Txabi. Jota geratu ginen hil zutenean. ETAk armak erabili zituen lehenengo aldia izan zen, eta nik neuk ez neukan hori buruan. Ez naiz kontra egon, baina neuk ez dut inoiz armarik izan edo erabili.

Sorpresa izan zen armen erabilerara?

Nik ez dut uste erabiltzen zirenik. Etxebarrietak pistola eramaten zuen, eta [Xabier] Izko de la Iglesiak ere bai –Meliton Manzanask hil zuela esaten zena–. Zerbait jausiko bazen ez zirela entregatuko esaten zuten. Nik inoiz ikusi nituen pistolek ez zuten batere disparatzen. Zaharkituta zeuden. Beldurra emateko ziren bakarrik. Orduko hartan, derrigortuta ikusi zuten euren burua erabiltzera eta ausartu ziren erabiltzen, eta orduan hasten da armen erabileraren hausnarketa ETAREN barruan. Nik ez dut uste ez [Mario] Onaindiak ez Teo Uriartek ez Jokin Gorostidik armarik erabiltzen zutenik. Ez zen beharrik ikusten, nahiz eta ezin jakin hasitako borroka harekin estatu indartsu baten aurka noraino iritsi gintezkeen. Baina gerora, jada 1966-67tik aurrera, erakunde bezala ez dut izan parte hartzerik.

Etsaiari bere armekin egin behar diozu aurre. Beste kontu bat da bere indar bera har dezakezun, baina armak gaizki badaude denenak daude gaizki.

LEHENENGO ALFABETATZE ESKOLAK

Zer da kultura eta euskararen eremuan egiten zenutena?

1965ean, alfabetatze klaseak ematen hasi ginen. Ez zen aitzakia, niretzako behintzat ez zen. Euskaraz alfabetatzea eta euskaraz irakurtzen irakastea, nahiz inork pentsatu aitzakia zirela ETaren ideiak zabaltzeko. Niretzat funtsezkoa zen. Busturialdean hasi ginen. Jendeak ez zekien euskaraz irakurtzen, eta pentsatu nuen posible zela *Zeruko Argia* bezalako aldizkari bat egitea baina irakurterrazagoa alfabetatze eskolakoentzat eta haien harpidetzarekin. Ez zuen aurrera egin.

Beste asmo bat zen Euskal Herriari buruzko gaiak lantzekoa, naziotasuna, askatasun egarria, ekonomia eta beste. Eta talde bat osatu zen inguruan genuen apez estudiatzen zebilen jendearekin, eta gai horiek eta besteak lantzeko eskatzen genien. Eta horiek egindako eskemekin ni joaten nintzen hitzaldiak ematen. Horiek ziren gau eskolak. Oso klandestinoa zen. Alfabetatze eskolek eta gau eskolek paralelo funtzionatzen zuten, eta toki batzuetan jende bertsuak parte hartuko zuen bietan.

Une horretan Rikardo Arregi agertu zen, alfabetatze eskolekin Euskaltzaindiak ileak tente zeuzkala esanez. Rikardo Arantzazuko Jakineko bilertatik ezagutzen nuen. Eta pentsatu genuen gau eskolak Euskaltzaindiaren babesean jartzea, eta horretarako gu biok euskaltzain urgazle egin gintzatela, baina argi esanda euskaraz irakurtzen irakasteko Axular ez zela erabili behar derri-gorrez. Guk gehien-gehien *Anaitasuna* erabiltzen genuen, eguneroko kaleko hizkuntza eta ulerterraza. Horren ondotik sortzen da geroago AEK. Eta gehiago esango dut, nire alfabetatze klaseetan parte hartu zuen jende bat, gaur egun, AEKn irakasle da.

«Jendeak ez zekien euskaraz irakurtzen, eta pentsatu nuen posible zela 'Zeruko Argia' bezalako aldizkari bat egitea baina irakurterrazagoa»

Luis Villasanteren *Historia de la literatura vasca* liburua garrantzitsua izan omen zen orduko gazteen artean, eta saltzen ibili omen zinen.

Bai, ETArek sortzaile eta inguruko batzuk –Luis Benito del Valle, Jose Ramon Markoartu, Juan Madariaga, Juan Manu Agirre...– liburu eta disko argitaletxe bat sortu zuten, Edili (edición y distribución de libros y discos) izenarekin, eta argitaratu zuten lehen liburua horixe izan zen. Liburu hori saltzea oso zaila zen, abertzaleen artean Villasante gaizki ikusia zegoelako –guardia zibil familiakoa omen zen–, eta liburu hori esku artean ibiltzeagatik ni ere gaizki ikusten ninduten. Iskanbila handia eragin zuen publikazio horrek abertzale santuen artean, eta Edili argitaletxea bera ere desprestigiatu egin zuen.

Baina nork desprestigiatu? Noren aurrean?

Abertzale santuen aurrean, tartean EAJko batzuk.

Eta abertzaletasun *berriaren* aurrean?

Ez, asko ere ez nuen saldu. Hemendik ezin nuen bizitzeko ez eta gastuetarako ere ezer atera, batez ere beste lan batzuk egin ahal edo nahi banituen.

Horretan zeundela *euskal kulturaren laguntza* talde batekin egin zenuen topo.

Bai, kasualitatez, beraiengana liburu saltzen joan nintzen, eta beraien bilera batera gonbidatu ninduten. Han ziren Juan Arrospide medikua, Castor Uriarte arkitektoa, Bernardo Mesanza Ruiz de Salas ingeniaria, Jose Ezpeleta ardo eta ferrreteria distribuzio bat zuena, eta Kontxa Goiri, Arostegiren alarguna. Denak dirudunak ziren. Bilera hartan onartu zuten niri zerbait ordaintzea euskal liburuak saltzen ibiltzeko, nire ibilbide guzien berri emanez, noski.

Hori aprobeztatuz Donostiara joan nintzen Carlos Santamariarengana. Banekien kaputxinoen *Zeruko Argia* lehenengo hamabosterokoa eta gero asterokoa egiteko asmotan

zebiltzala. Elkarrekin luze hitz egin genuen, eta, lehenengotik asteroko bihurtzeko proposamena egin nion, bestela beti hamabosteroko jarraituko zuela. Dena dela, oso ondo pentsatu behar zen: idazleak, erosleak, kostuak... Jarraipena ziurtatzeko, batez ere. Nire gain hartu nuen, bilbotarren soldatarekin, ordura arteko harpidetza guztiak bisitatzea eta aldi berrira erakartzea. Aldi berean, talde bat sortzen hasi nintzen, Jon Nikolas buru zela, aldizkari berrirako komiki atal bat prestatuko zuena. Komikiaren bidez herriaren historia kontatzea zen helburua. Idazleak suspertzeko bide batzuk ere zabaldu behar ziren, nonbaitetik dirua sortuz edo mezenas batzuk lortuz.

Beloken ezagutu zenuen Aita Iratzederren salmotegia argitaratzeko ahaleginak ere egin zenituen.

Udara horretan etorri zitzaidan bere salmotegia argitaratzeko laguntza eske. Guztiz interesantea iruditu zitzaidan, eta salmenta erraza izango zuela pentsatu nuen elizgizonen eta beste batzuen artean. Lehendabizi Jakin argitaratzen zen inprimategira jo nuen eta nahiko prezio ona lortu nuen. Beste batzuk ere bisitatu nituen, baina diferentziaz merkeago zen: 2.000 ale ateratzeko 125.000 pezeta eskatu zizkidaten.

Diru hori nondik lortu ari nintzela, aurreko Bilboko dirudun euskaltzale taldera jo nuen, eta arkitektoak aurreratu zizkidan 125.000 pezetok, salmenten sarrerekin itzultzekotan. Dirua eskuan nuela berriz inprimategira jo nuen eta aurrez ordaintzeko trukean 100.000 pezetan tratua egin nuen. Uztaillean eman nien dirua eta azaroan argitaratuko zen. 25.000 pezeta soberakinak gorde egin nituen badaezpada ere.

Baina atxilotu egin zintuzten, ezta?

Bai. Eta Iratzeder espetxera etorri zitzaidan bere salmotegia zertan zen galdezka. Egindako bide eta tratuak esplikatu nizkion, nola eta noren diruarekin aurrez ordainduta zegoen, azaroan inprimatuko zutela, dirua nori eta nola bueltatu behar zitzaion. Egia da inork ez didala sekula zer gertatu

zen jakinarazi, argitaratu edo inprimatu zen, saldu zen edo ez, arkitektoari dirua bueltatu zioten edo ez...Neronek ez dut inoiz salmote gi hori inprimatuta ikusi.

Eta bilbotar aberatsen mezenasgo hori ere bukatu egin zen.

Kontxa Goiri andereak deitu zidan bere etxera, eta etxez etxe Aita Santuen entziklika liburua saltzea proposatu zidan. Aita Santuen entzikliken bilduma bat zen, erdaraz. Nik, harrituta, nire lana euskarazkoak promozionatzea zela erantzun nion. Bera zen lehen sei hilabeteetan hileko bost mila pezeta ordaintzeko arduraduna. Entziklikok saltzen ez banituen ez zuela ezer ordainduko eta haserretu zen, baina nik neureari eutsi nion. Gizonezko taldeak deitu zidan eta errieta egin zidaten andreari kontra egin niolako. Esan nien zein zen akordua eta nik euskarazkoak bakarrik salduko nituela, eta azaldu nien *Zeruko Argia*-ren errealitatea ere, baina inork ez zuen erantzukizunik hartu nahi. Geroxeago arkitektoak deitu eta ordura artekoa berak ordainduko zidala esan zidan, hiru hilabete, 15.000 pezeta, Kontxa Goirik ez zuen ezer ordaindu. Hor bukatu zen talde horren mezenasgoa.

Ekimen batetik bestera jarraitu zenuen, hala ere.

Bai, nire herriko gazteei, esaterako, Elizako kantu guztiak euskaraz irakasten saiatu nintzen, nahiz eta neuk ez jakin musikarik, ez eta organoa jotzen. Eta ez dakit nola baina Ariatzako elizkizunetan organoari ere zarata ateratzen nion. Aita Iratze derren *Meza* euskaraz irakatsi eta herriz herri kantatzen ibiltzen ginen. Formakuntzako irakastaldiak antolatzen genituen adituak ekarriz. Euskal Herriko historia irakasteko txangoak edo ibilaldiak antolatzen genituen: Orreagara, Bortzirietara, Gipuzkoan barrena. Dantzak, jaiak, konferentziak, mendi-irteerak... Horiek ere bai, dena euskaraz eta euskal giroan.

Tarteka Gabriel Arestirekin biltzen nintzen, Bilboko alde zaharrean txikiteoan, eta bere etxean ere egiten ari zen lana ikusten eta aztertzen; La Granja tabernan ezkertiarren tertulietara, Gabriel eta bere anaiarekin. Xabier Gereño eta

beste batzuekin ere egoten nintzen... Beti ere zerbaiten inguruan –*Zeruko Argia*, Jakin, Edili...– talde eraginkor bat eratuz joateko asmoarekin.

Juan San Martinekin ere izan zenuen egoera deserosoren bat.

Gutxira, 1961ean, Imanol Lazpiur eta beste batzuk atxilotu egin zituzten, eta inguruko denak desagertu egin ziren. Ni noraezean geratu nintzen, erreta ote nengoen edo ez. Eta hanka sartu nuen, geroago euskaltzain eta ararteko izango zen Juan San Martinengana joanda galdezka ea nor izan zitekeen atxilotu ez zuten enlazeren bat

edo. Imanol eta Juan beti elkarrekin ibiltzen ziren, bai kultur mailan bai txikiteoan, eta nik pentsatu nuen pentsamendu berekoak izango zirela. Eta Juanek aurpegira bota zidan beregana joatea, bera ez zela soka horretakoa, eta gainera haien kontra zegoela. Esan nion barkatzeko, erdi galduta nengoela. Gero, bizitzan aurrera, berarekin topatu naizen baikoitzean gertaera hura atera dit, baina berak isilik gorde zuen.

«Indautxuko komisarian aurkitu nintzen Jon Nikolas eta kuadrilla handi batekin, 33 guztira: ETAkoak, CCOOkoak, EAJkoak, langile arruntak...»

LEHENENGO ATXILOALDIA

Kontuak kontu, zu ere atxilotu zintuzten, lehen aldikoz, eta urtebete eman zenuen kartzelan, Carabanchelen.

1963ko urriaren 6an, Bilboko kalean, atxilotu ninduten nire osaba baten bisitan ospitaletik nentorrela. Indautxuko komisarian aurkitu nintzen Jon Nikolas eta kuadrilla handi batekin, 33 guztira: ETAkoak, CCOOkoak, EAJkoak, langile arruntak... Zerbaitetan mugitzen ginen denak. Presioak, torturak, mehatxuak. Gutaz zenbat zekiten ikusita, mundua

gainera erori zitzaidan. Bosgarren egunean Larrinaga espetxe zaharrean sartu gintuzten denok. Urtebete egon ginen.

Kartzelatik, ordura arteko lan guzien etorkizun gordina ikusi nuen, eta dena bideratzen saiatu nintzen: *Zeruko Argia*-ren lanarekin jarraitzeko pertsona bat proposatu nuen eta jarraian hasi zen lanean. Espetxera bisitatzera etortzeko eskatua nion eta egindako guztiaren berri eman nion, nire iritziko ildoak nondik norakoak ziren, baina errealitatearekin topo egingo zuena bera zela eta holako zirkunstantzietan halako aterabideak bilatu beharko zituela. Herriko mugimenduekin norik jarraitu behar zuen. Jendea beldurtu egin zen eta genbiltzan ekintza abiada geldiarazi zuten. Eta abar. Norbait atxilotu arren, herri mugimenduek, herri lanek aurrera egin behar zuten. Pertsonak ez gara ezinbestekoak, erreleboa beti prest izan behar da.

33 lagun atxilotuta, baina kaleak ez ziren baretu.

Gure atxilotze ondorengo egun eta hiletan, kaleko mugidak aurrera jarraitzen zuen eta guk horrela izan behar zuela argi genuen, baina barruan zegoen jende mordo batek bestera pentsatzen zuen, hau da, barruan geundenak atera arte ekintza guztiak gelditu behar zirela, eta gure artean tentsio handiak sortu ziren. Gogoan dut ni izan nintzela kale borrokaren jarraipenaren zergatia kontra zeudenei esplikatu behar izan niena, eta heriotza mehatxu eta guzti hartu ninduten. Eskerrak, 1964ko udaberrian gehienak fidantzapean edo fidantza gabe atera zituzten eta hamar bat gelditu ginen.

Zu kartzelan zinela gauza bitxia gertatu zen Ariatzako eskolan, eta oraintsu jakin duzu, ezta?

1964ko urriaren 6an, gu Madrileren generamatzen gauean, Muxika-Ariatzako eskola pintadaz josia agertu zen, Francoaren koadroak lurrera botata, ikurrin bat kanpoan, eta EGI siglak idatzita. Hori zela eta gure anaia Joseba Andoni –17 urte zituen– eta bere gazte kuadrilla osoa atxilotu eta Gernikako kuartel zaharrera eraman zituzten. Eta, tartean, baita gure

aita ere. Ikaragarrizko jipoia eman zieten anaiari eta gure auzoko bere mutil lagun Iñaki Petralandari. Belztu arte. Gure aita ere jo zuten. Aita asko estimatzen zuen Gernikako Bizkaiko Kutxaren zuzendari zenak, eta atxiloketaren berri jakin zuenean, semea bidali zuen kuartelera ea zer egiten ari ziren galdezka. Une horretan utzi zioten jipoitzeari, eta etxera bidali zituzten. Jipoitzeari utzitakoan aitari nor zen galdetu zioten, eta aitak erdaraz erantzun zien: «¿Me preguntáis quién soy? Si me habéis pegado!». Anaiak esaten du zortzi egun pasa zituela minarekin lepoz gora ohean, eta gertaera gogoratzean, orain ere, negarra ateratzen zaio.

Ariatzako eskolako maistra ere airean ibili zuten denbora luzean, pintada haiek egiteko giltza berak eman ziela eta. Maistraren alabek esaten dute, beraiek eskolan bertan bizi ziren, eta ate hura, atzealdetik sartzen zena, beti zabalik egoten zela, giltzarik gabe bederen.

Ardanza lehendakariak aitortu berri duena...

Bai, guk bagenekien sasoi hartan EA]koa zen gure koinatu bat tartean zela. Baina, hauxe bitxikeria: oraintsu, ETBn, Pedro Mari Goikoetxearen *6 argazkitan* programan, lehendakari izan den Ardanza jaunak non kontaktzen duen, bere gazte borroka aktibitateen adibide bezala, Ariatzako egun horretako pintada berak egin zuela, herria suspertzeko. Horretarako egin bazuen, ez zuen ondo ezagutzen non zebilen, garai hartan inon inor suspertuta bazen, Ariatzako gazteria zelako. Horren errudun egin zutelako atxilotu eta jipoitu zuen poliziak anaia. Ardanza ikusten duenean esango dizkio hiru eta bost.

Urtebete, bi hilabete eta hamazortzi egun espetxean igaro eta libre atera ginen.

«Ardanzak non kontaktzen duen Ariatzako pintada berak egin zuela. Horren errudun egin zutelako atxilotu eta jipoitu zuen poliziak anaia»

DESTERRUA, KARTZELA

Lehen kartzelaldi hori eta gero jada ezer ez zela berdindiozu, erre egin zintuztela eta nahiko zenukeen horretan aritzea zaildu zizula.

Bai, espetxetik pasatu, eta lehenengo hausnarketa horixe izan zen: erreta gaude, fitxatuta, zainduta. Ondorioz, guk ukitzen dugun guztia erre dezakegu. Beraz, guk benetan maite dugun guztitik alde egin behar dugu. Hau da, *Zeruko Argia*-rako lanean hasten bagara, erre egingo dugu. Han-hemen lanean dabilela dakigun pertsonekin elkartzen bagara, pertsona horiek ere erre egiten ditugu. Ezer egin gabe ere ezin gara egon, gure ogibidea ere ziurtatu beharra dugu, etxean ez baitago denontzako, ez eta kasik inorentzako. Hori dena eta gehiago koktelera batean sartu eta atera zena...

Baserrira, jaiotetxera, bueltatu zinen.

Hasiera batean etxean gelditzea erabaki nuen, etxean lan egin, etxeko produkzioa aldatu eta gehitu. Ortuariak gehitu genituen, 200 untxi ama eta beste berrehun oilo jarri genituen. Bizkaiko merkatu gehienetara joaten ginen: Gernika, Zornotza, Durango, Mungia, Portugalete... Enpresa eredu garbia zen, produkzioa ahalik eta gehien gehitzea. Gerora konturatuko gara bide okerra zela, multiplikatzea ez dela etekin gehiago ateratzeko bidea, batez ere biderkatze horretatik sor daitezkeen ondorioak aurretik kontrolatu ezin badira.

1965ean bigarren atxiloketa serioa dator, ETAk egindako lapurreta bati lotuta.

1965, 1966 eta 1967ko Maiatzaren Lehenaren bezperan atxilotzen ninduten: Indautxuko kalabojoan sartu eta maiatzaren 2an atera. Baina 1965ean beste atxiloketa bat ere gertatu zen. Iraila zen. Ni enteratu ere ez nintzen egin, baina ETAk lehen atrakoa burutu zuen, Bergaran. Eta, dirudienez, atrakoan parte hartu zuena nire etxean euskara praktikatzen egon zen bilbotar bat zen, Durangon, telefonikaren obren

zulo batean jausi eta, erietxera eraman zutenean, pistola bat aurkitu ziotena, eta medikuek poliziari parte eman zioten. Bitartekari egitea leporatu zidaten, egun horretan Elorriora joan bainintzen etxerako motokultore bat erostera. Gernikako kuartelean eta Bilboko La Salve kuartelean egun bana egin eta libratu nintzen.

Eta, bi urtera, hirugarren atxiloketa, eta oraingoan desterrua, gainera.

1967an, maiatzaren bezperako atxiloketatik aparte, maiatzaren 15ean ere atxilotu gintuzten eta Basauriko espetxean sartu. Espetxe hori ireki berria zen, gu sartu bezperan egin zuten Larrinaga zaharretik trasladoa; beraz, guk estreinatu genuen. ‘Salbuespen egoeran’ geunden, eta Espainiako Biran Solluben tatxuelak jaurti zituzten. Aurretik fitxatuta geunden guztiak atxilotu gintuzten, beraz 1963an ginen ia guztiak berriz elkartu ginen.

Bigarren egunean [Pablo] Gurrupide, Bilboko gotzaina, etorri zen kartzela berria bedeinkatzera eta preso guztiei, errenkan jarrita, eskua ematera. Gure taldera etorri zenean eskua atzera bota eta agurra ukatu egin genion. Harritu egin zen eta aurpegi xelebrea jarri zuen, ez baitzuen horrelako plantorik espero. Gero espetxeko zuzendaria izan zen izugarritzko errieta egin ziguna.

Eta handik desterrua.

Ekainaren lehenean, ezer esan gabe, ezer hartzen utzi gabe, eskuburdinak jarri eta trenera eraman gintuzten. Taldeka uste dut. Bermeoko EAJko batek eta biok egin genuen Madrilerara arteko bidaia. Aurrekoan bezala, Burgos, Valladolid eta Avilako kartzeletan geldialdia eta gaua, baina oraingoan Avilakoan hiru gau. Azkenik Carabanchelen lau gau, eta hemendik ni Puente del Arzobispora (Toledo) desterratuta, eta bermeotarra Badajozeko Don Benito herrira. Ekainaren 9an heldu nintzen Puente del Arzobispo herrira, eta hemengo kuartel barruan kendu zizkidaten gurgiluak. Bitxia

gertatu zen: guardia zibilak agindu zidan inori ez esateko desterratuta nentorrela eta bilatzeko ostatua. Nik ezetz, ni ez naizela nire borondatez joan, lotuta ekarri nindutela eta beraiek eman behar zidatela ostatua eta mantenua. Eztaba-ida horrekin arratsalde azkenera arte. Azkenean amorratuta atera nintzen, baina ez nekien zer egin zentimo bat bera ere ez bainuen. Lehenen ikusi nuen tabernan sartu nintzen laguntza eskatzeko intentzioz. Eta hara, atea zabaldu nuenaz batera, barra atzean zegoen emakumeak non esaten didan: «zu zara desterratuta zatozena». Bai esan nion, baina bat-batera arnasa gabe utzi ninduen. Berak bilatu zidan ostatua, jaten eman zidan, eta dirua ere bai etxetik bidaltzen zidaten bitartean. Handik bizartegira joan nintzen bederatzi eguneko bizarra kentzen, eta kontatu nion nola etorri edo ekarri ninduten herrira. Eta hemendik telefonora etxera deitzeko eta telefonistari ere nola nengoen kontatzera.

Guk ez genekien nora generamatzaten, baina Burgosko kartzelan, sarrera paperak betetzean, bi herrien izenak ikusi genituen, Puente del Arzobispo eta Don Benito. Eta trasladoko guardia zibilak etxera postal bat bidaltzen utzi zigun. Etxekoek aireratu zuten nora joan gintezkeen eta Madrileko estudiante batzuk herriko kuartelera joan ziren, eta horiek han ez dagoela desterratutako inor erantzun. Une hartan egia zen, gu bidean baikin. Estudianteek ez zieten sinistu eta herri guztia arakatu zuten nire bila. Hortik asmatu zuen tabernako andereak. San Joan egunean, 'salbuespen egoera' kendu zuten eta etxera bueltatu ginen.

Ordura arte ez bezala, 1968ko Maiatzaren Lehenaren bezperan ez zintuzten atxilotu.

Ez. Arraroa, pentsatu genuen. «Ahaztu ote gaituzte? Agian, ezkontzeko urte ona». Nire andregai Larrinagako espetxean ezagutu nuen, lehenengo atxiloaldian. Bera ez zen preso. Algortakoa zen eta bere kuadrillako lagunak espetxean zeuden nirekin. Haiek denek andregaiak zituzten eta ezin zen lagunok ikustera sartu senide ere ez zelako. Ni nintzen

andregairik ez nuen bakarra, eta nire andregai bezala sartzen zen haiek ikustera. Madrileran eraman gintuztenean trenean etorri zen Orduñara arte, eta elkar ezagutu genuen. 1964ko Gabonzahar gaua Algortan pasatu nuen espetxean egondakoekin, eta hemen gehiago hitz egin genuen. Hortik etorri zen ezagutzea eta harremanetan hastea. Desterratu nindutenean ere, azken astea pasatzera etorri zen. Eta horrela, pentsatu eta egin, 1968ko uztailean ezkondu ginen. Dirurik ere ez genuen eta gurasoek ere ez. Ezagun bati eskatu, kotxea erosi, ezkon bazkaria eta bidaia ordaindu, eta lanera berriro.

BASERRI EREDU BERRI BATEN AMETSA

Eta hor abentura berri bat hasten da, nekazaritza kooperatiba bat antolatzekoa Araban.

Anaia Abel etorri zitzaidan Durangoko bere kuadrillako batzuek kooperatiba batean lan egiten zutela, baina ez zeudela ados funtzionatzeko moduarekin, eta ea egin ahal nien lan proiektu bat esanez. Nik industria munduaz oso gutxi nekien, eta nahi bazuten nekazaritzako lan proiektu bat egingo niela esan nien. Elkar laguntza eta auzolan zale beti izan naizenez, elkarlan eta elkarbizitzan oinarritutako proposamen bat egin nien: denak lanean, denen artean kudeatuta, galerak denenak eta irabaziak ere denenak.

Hasieran, denak ezkongabe zirenez, bizitza komun bat etxe berean, eta irabaziak sortu heinean, eta, ezkonduz joan ahala, bizitza bananduak baina

«Auzolan zale beti izan naizenez, elkarlan eta elkarbizitzan oinarritutako proposamen bat egin nien: denak lanean, denen artean kudeatuta, galerak denenak eta irabaziak ere denenak»

lana eta jatorduak elkarrekin egitea proposatu nien. Ados zeuden. Baina lurra behar zen eta abiatzeko dirua ere bai. Norbaitek enpresa horri Kibutz edo Koljoz deitu zion, baina guretzako sinpleagoa eta gureagoa zen: auzolana.

Eta nondik etorri zen dirua?

Espiritu Santuak gidatuta bezala, Txorierriko emakume bat azaldu zen etxean, gurean euskaraz ikasi zuen Kirsti Liikainen finlandiarra ezagutzen zuena.

Ez dakit nola, gu proiektuaz hizketan ari ginela zerbait entzun zuen, eta, hurrengo batean, bazuela laguntzeko aukera bat kontatu zidan.

Emakume ezkongabea zen, hirurogei urte hurre zituen. Bere aitaren herentzia zatiarekin fundazio bat sortua zuen, Candido de Iturriaga eta Maria Dañobeitia Fundazioa, baserrietako umeei eskolako lehen ikasketak bukatu eta gero formazio osagarri bat emateko helburuz. Eskola bat zuen Larraurain, baina ia ez zen erabiltzen. Bere eskaintza zen hasieran lurrak erosteko behar zen dirua fundazioak ardureratuko zuela. Geroago, bere dirutik, fundaziotik aparte, Gran Bilbao proiekturako desjabetutako lurrak kobratzen zituenean, bost milioi pezeta jarriko zuela. Sasoi hartarako kantitate handia zen. Gure asmoa, bakoitzaren eguneroko lanak utzi gabe, asteburuetan denak lan egin eta produkzioa martxan jarri ahala bertaratuz joatea zen, baina diru laguntza horrekin lehenengotik denok joan gintezkeela pentsatu genuen. Besteentzako zen proiektua, ez niretzako, baina gero zirkunstantziak ikusita ni ere animatu egin nintzen. Emakumeak berak, bere kotxean, lagundu zidan lurrak bilatzen, eta fundazio horretako juntako ziren ingeniaria eta albaitea ere guri aholkuak emateko jarri zituen. Eta kostata, baina, lurrak ere bilatu genituen Araban, Gorbeia inguruan.

Hala, 1970ean, Abornikanora etorri zineten bizitzera.

Lau mutil gazte, ni, nire emaztea eta aurreko urtean jaio zen gure alaba. Lurrak erdi abandonatuta zeuden, batzuk baso

eta besteak sastrakaz beteta. Gure eskulanez eta makineria bidez dena txukundu genuen, garagarra eta artoa eta belarra erein ere bai. Etxea ere konpondu eta beharrizanetara egokitu genuen. 200 ama untxitik gora jarri genituen... Gastu horiek kitatzeko behar genuen Txorierriko emakumearen laguntza.

Eta beste behin atxiloketa batek eten zuen proiektua, lehenago ere gertatu zen bezala.

Bai, berriro historia errepikatzen da. Honetan, San Inazio goizaldean, gudaroste bat guardia zibilek herria hartu eta gure etxera sartu ziren. Denok geunden, anaia falta zen bakarrik, hurrengo egunean ezkontzen zelako. Eta gurekin zeuden unibertsitateko estudiante batzuk ere, lanaren truke jan eta lo egiten zutenak, tartean Roberto Lertxundi, gerora ginekologo mediku famatua izango zena. Denok, medikuntza estudiante neska, nire emaztea eta alaba –hau kasualitatez gaixo zegoelako– ez besteok, Gasteizko Castilla etorbideko kuartelera eramán gintuzten. Zer gertatzen zen galdetu nien, eta ezer bazuten ni nintzela erantzule, eta ez besteak, eta gutxiago estudianteak. Egun horretan, San Inazio bezperan, ETaren Naval-eko lapurreta gertatu zen. Guk ez genekien gertatu zenik ere. Guardia zibilek esan zidatenez, eguerdiko ordu biak aldera norbaitek Amurrioko kuartelera deitu omen zuen atrakatzailleak Abornikanon zeudela esaten. Hori gezurra zela ikusi zutela adierazi nien, guk ez genuela lapurretaren berririk ere. Bai, baina guk gutxienez beraiek despistatzeko mugimendua sortu omen genuen. 22 egun egin nituen Gasteizko espetxean, eta fidantzarekin atera nintzen. Hurrengo urtean epaiketa izan nuen hamar urteko eskabidearekin, baina epaiketan bertan fiskalak akusazioa erretiratu zuen.

Herritarrek ondo hartu zintuzten...

Bizi ginen herrian eta inguruetaoetan oraindik berriak ginen, baina gertaera horren aurrean oso aldeko erreakzionatu zuten. Ni bederen besarkatuz hartu ninduten eta epaiketarako lekukotzarako ere aurkeztu ziren. Gerora, jakin dut,

Izarrako kolegio barnetegiko zuzendari Juan Gonzalo frankistak salatu gintuen.

... baina fundazioaren babesak galdu zenuten.

Txorierriko andereak esan zidan gure auzolan langintza ez zela nekazaritza proiektua, ETako jendea gordetzeko proiektua baizik. Euskal Herrian horrelako bidegabekeriak maiz gertatzen direla esan nion, eta gurearen detaile guztiak eman nizkion. Abornikanora gonbidatu nuen eta denekin hitz egingeko. Baina alferrik, eta agindu zigun dirua ere agindu izana ukatu zigun. Hori ezin nion onartu, gezurtizat neu jartzen ninduelako, eta fundazioko presidentearen etxean zitatu nuen. Presidenteak baieztatu zion nola egin zuen diru agintza eta bera eta presidenteordea ere dirua jartzekotan egon zirela. Baina alferrik. Dena ukatu zuen eta aho zabalik utzi gintuen, gastu handiak eginda eta erantzuteko sosik gabe.

Saiatu zineten egoerari buelta eman, baina...

Gure herrietara joan ginen ekarpen eske, eta milioi erdi pe-zeta inguru bildu genuen. Txerriak jartzea ez zegoen gure ideietan ez genuelako esperientziarik, baina pentsu-etxe batek eskaini zigun txerriak gizentzea dirurik aurreratu gabe; beraiek ekartzen zituzten txerriak eta pentsua, eta guk zaindu egiten genituen, eta gizendutako txerri bakoitzeko horrenbesteko bat emango ziguten. Ia mila txerri

«Jendea, ideia berriak
sortu beharrean,
hoztuz joan zen, ez
genuen asmatu egoera
gainditzen»

gizentzeko modua egin genuen, baina hurrengo urtean txerriak hartzen zizkigun Hernaniko Sistiaga hiltegia kiebran deklaratu zen eta gu beste zulo handi batean sartu ginen. Etorkizuna erabat ilundu zitzaigun. Ez zen ezer ateratzen eguneko gastu minimoetarako ere eta zorrak kendu behar. Lurrak bagenituen, baina dirurik ez ezer jartzeko. Nonbaitetik eguzkia aterako zen bitartean, herrian gaizki zebilen

kooperatiba granjarentzat doan lan egiten genuen, gure bellarrek ere beraiei ematen genizkien.

Beste aldetik, egiten genuena egiten genuela, zibilak beti gainean. Egunero etxetik pasatzen. Jendea, ideia berriak sortu beharrean, hoztuz joan zen, ez genuen asmatu egoera gainditzen, eta 1975etik aurrera, aitzakia bat edo beste, jendea joaten hasi zen. Bi anaiok bakarrik gelditu ginen, eta zorrak gurekin.

Zorrak nola kitatu zenituzten?

Hartzaileekin eta bankuekin hitz eginda, batzuek zorrak gutxitu edo barkatuta, urte luzeetan miseria pasatuta. Eta oraindik ere den-dena kitatu gabe dago, baina bideratuta.

Hala ere, anaia eta biok Abornikanon, Errota baserrian, jarraitzen duzue. Nola aldatu da Abornikano euskarari dagokionean urte hauetan guztietan?

Asko. Gu iritsi ginenean, 1970ean, hemengo udal barruti osoan, nafar bi eta hiru bizkaitar zeuden euskaraz zekitenak. Haiei beti euskaraz egiten nien. Bizkaitarra lotsatu egiten zen, eta nik esaten nion, «hi, guk normal egin behar diagu elkarri euskaraz». Hiru familia ginen, beraz, euskaraz genekienak udal barruti osoko bederatzi herrietan.

Hemen, jendearen aldetik beti oso jarrera ona izan dugu. Bereziki atxilotu gintuzten eta gero. Jendea hasi zen esaten euskara ikasiko lukeela, eta «taldea osatzen baduzue ni prest nago», erantzun nien. Izarran hasi nintzen klaseak ematen; Abel anaia, berriz, dantzan irakasten. Horrekin beste giro bat agertu zen, agertu, ez sortu, hemen isilpean zegoen giro bat zen, ze hemen gerra denboran hilketak izan ziren. Oraindik badira toki batzuk gorpu batzuk egon litezkeenak. Bazen jende bat erregimenekoa ez zena. Geroago, hemen lehenengotik eskola publikoan D eredia jarri zen, bertakook bultzatuta. Gaur, 40 urtetik beherako denak euskaldunak dira eta gazteen artean nahikoa entzuten da, beste toki batzuetan baino askoz gehiago. 1978an, kultur mugimendu bat sortu zen herrian,

Lan eta Jolas. Eta oraindik ere oso bizirik dago. Hitzaldiak eta beste antolatzen dira kultur etxean eta euskaraz direnean aretoa bete egiten da. Euskaldun izan ez baina abertzale edo euskaltzale direnak ere joaten dira. Giroa guztiz aldatu da. Beno, giroa ez dakit aldatu bada, lehenago bakoitzak barnean zuena orain kanpora ateratzen dela gertatzen da.

Hizkuntzaren berreskurapenari dagokionez, Izarran gertatutako hori Araban ere gertatu dela esan liteke?

Toki askotan bai. Baina hemen igual beste toki batzuetan baino gehiago egin da. Beste toki batzuetan hamarretik hiruk egin badu euskararen hautua, hemen hamarretik zortzik egin du. Gehiago egin da.

Zergatik?

Ez dakit. Giro bat sortu zen. Nork sortu zuen? Guk? Ez. De non artean sortutakoa da. Ez ginen joan horren bila. Gure bizitzan beti egin dugu ez ezertan aurretik ibili, eta jendeak egiten duena merezi badu bultzatu eta jendearekin, beraietako bat bazina bezala, lan egitea. Sekula ez aurretik ibili. Beti maila berean.

EHNE SINDIKATUAREN SORRERA

Euskal Herriko nekazariekin harremanetan bazinen Abor-nikanora etortzerako, eta, gerora, nekazaritza sindikalgin-tzan lan handia egindakoa zara.

Bai, harremanik ez nuen galdu Bizkaiko, Gipuzkoako, Nafarroa eta Iparraldeko nekazariekin. Asturias, Galizia eta Santanderko ganaduzaleekin ere biltzen ginen. Egin genituen esne greba batzuk ere, guk ez genuen esnerik, baina manifestazio eta eztabaidetan bat egiten genuen.

Euskal Herrian, sei herrialdeetakoekin ari ginen sindikatu edo ordezkarietza bakar bat eraikitze lanean. Eta, hain zuzen,

1977ko otsailean, Urdiainen geunden, [Jose Maria] Satrustegiren etxean edo elizako sakristian, ez dut gogoan zeinetan, araudiari azken oniritzia eman eta sinatzeko lehian. Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Iparraldekoak bertan ginen. Horretan geundela, heldu zitzaigun berria, Errioxan, Araban eta beste probintzia batzuetan baserritarrak traktoreekin kalera atera zirela. Gure eguneko lana bertan behera utzi eta traktoreak zeuden tokietara joan ginen gertatzen zenaren berri zuzena jasotzeko. Eta hortxe gelditu zen, gaur arte, Euskal Herri osoko sindikatu bakar eta bateratua sortzeko ahalegina.

«1977ko otsailean, Urdiainen, sei herrialdeetakoekin ari ginen sindikatu edo ordezkarietza bakar bat eraikitze lanean»

Arabako nekazaritza sindikalgintzan buru ibili zinen.

Franco hil zen, baina oraindik egitura guztiak lehenean zeuden, eta lehengo pribilegioekin, nekazaritza ganberetako buruak, esate batera. Sindikatu bertikalako buru horien pribilegioak murriztuko zituen legedi berriaren aurrean, Espainia guztiko nekazaritza ganberak 24 orduko protesta deitu zuten. Horrek ez zuen zer ikusirik gure sindikalismoarekin, ez eta Espainian mugitzen ari ziren beste nekazaritza mugimenduekin. Nekazariak kalean zeuden, betiko *mandamasen* pribilegioak aldarrikatzen. Hori ezin genuen jasan, eta lehen erabakia izan zen 24 ordu ez, behar zen guztia egongo ginela kalean traktoreekin gure benetako eskakizunei erantzun bat eman arte. Baldintzak hauexek ziren: sindikatu bertikalaren desagerpena, sindikatu demokratikoen ezagutza eta sindikatu bertikalaren funtsak sindikatu demokratikoen artean banatzeko edo baserritarrei itzultzeko. Eta mugida guztia kontrolatzea lortu genuen. Araban, eskualde guztietako ordezkariekin asanblada ireki bat muntatu genuen, krisia argitu arte, eta Espainian, penintsulako herri guztien ordezkariekin

koordinakunde bat sortu zen, gerora COAG deituko zena. 24 ordurako deitu zenak astebete eta gehiago iraun zuen.

Ondoren etorri zen probintzia bakoitzean sindikatuak sortzea.

Gure ahalegina Euskal Herri mailakoa egitea zen, baina ez zen bide onean erori.

Arabako sindikatua sortzeko asanblada egin aurretik, eskualde guztietako ordezkariekin Errioxan bildu ginen. Ni lehendakari aurkezteko zurrumurrua zegoenez, Jabier Añua abokatuarekin joan nintzen, ni aukeratzearekin sor zitezkeen arazoak mahai gainean argiago eta gordinago jar ziezaien. Aurrekariak ikusita, argi utzi nahi nien baserritarren kontra egiteko erabil zezaketela nire izena, eta hastera gindoazen sindikatu berriaren kalterako izango zela. Han bildu zirenek aho batez aitortu zuten horregatik nahi nindutela lehendakartzarako, eta nire aldamenen izango zirela, horrelakorik gerta ez zedin. Asanblada egunean, hiru mila inguru bildu ginen, %90etik gora lagunek bozkatu zuen nire alde. Horrela suertatu nintzen sindikalismo berriaren lehen lehendakari.

Ezin izan genuen sindikatu berriaren izena ere guk nahi genuen bezala bataiatu, EHNE-UGAV (Euskal Herriko Nekazarien Elkarte – Unión de Ganaderos y Agricultores Vascos), eta UAGA jarri zitzaion (Unión de Agricultores y Ganaderos de Álava). Lau urte egin nituen lehendakari, eta jendeak ez zuen onartu eta asko haserretu zen, baina hurrengo lehendakartzarako hauteskundeetara ez nintzen aurkeztu, sindikatua berriztu egin behar zela argudiatuz, eta etxean osasun arazo handiak nituelako. Egia zen, emaztea umetokiko minbiziarekin baitzen. Hala ere, beste hiru-lau urte idazkari eta aholkulari jarraitu nuen. Ekintza asko egin genituen tarte horretan eta hainbat lorpen.

Espainiako sindikalgintzan ere ibili izan zara.

Arabako sindikatuaren ordezkari bezala, COAGen sorreran ere parte hartu nuen eta Espainiako herrietako sindikatuetak

arazo gordinetan bitartekari ere egin nuen. Madrilen, Moncloa aurrean protestan ginela, atxilotu ere egin gintuzten. 1982tik aurrera, 20 urte luzez, Euskal Herriko eta Espainiako sindikatu guztien ordezkari izan nintzen ENESA erakundearen (Entidad Estatal de Seguros Agrarios). Lortu ez arren, beti auzolanaren eredia predikatu nuen. Bruselan ere izan nintzen nekazarien ekoizpenen aseguruak defendatzen. Baina argi ikusi genuen mahai hartan nekazaritza ekoizleen asegurantzari buruz hitz egiten zutenak ez zirela ez nekazariak ez beraien ordezkariak, oso bestelako interes batzuek mintzatzen zirela, eta gu ez ginela gehiago horrelako mahaietan eseriko.

Kanarietako, Balearretako eta penintsulako erkidego guztietan, batzuetan bi eta hiru aldiz, nekazaritza sindikatuetakoa langile eta teknikariei nekazaritza aseguruak buruzko aste-beteko ikastaro trinkoak eratu eta eman nizkien.

1980 inguruan aseguru aholkularitza bat eratu genuen Araban, eta, gerora, baita beste probintzietan ere. Aseguru etxeek denuntziatu egin ninduten, ordezkatu ezin genuena ordezkatu nahi genuelako. Bilbon lehenengo eta Madrilen ondoren, bi epaiketak irabazi egin genituen. 1984-1985ean utzi nuen sindikatu lana, barnean sortzen ari ziren ustelkeria batzuk zirela medio.

Oraintsu arte Espainiako Izquierda Unida alderdiko buru izan denarekin, Cayo Lararekin, ere harreman handia izan duzu.

Cayo lagun mina izan dut. Herrera de la Mancha presoren bat bisitatzerako joaten nintzenean, beti bere etxean egiten nuen lo. Gernikaren bombardaketaren 50. urteurreneko Aberri Egunerako etorri zen, eta hemen egon zen Cayo, emazte eta semearekin, eta alaba oraindik amaren sabelean. Eta Bizkaia osoa pasatu genuen. Izquierda Unidako buru izendatu zutenean, gutun bat idatzi nion, pixka bat adarra jotzen, Madrileko bideetan galduko zela, eta Madriletik beti gauza txarrak egin direla, denak bere zerbitzuko jartzen dituela eta beste esanez. Onintza [Enbeita] diputatu egin zenean, esan nion

eskumuinak emateko. «Eman dizkiot», «eta zer esan dizu?», «esan dit nire osabarekin denean ados zegoela, oso ona eta jatorra zela, ados gauza batean izan ezik». Eta Onintzak erantzun zion: «Bada, horretan nire osabarekin ados ez bazaude nirekin ere ez zara egongo». Hor gelditu da.

ARABA, EAJ-RI OPARI

Arabako mapa politikoa aldatzen ere izan duzu zerikusia. EAJri mesede ederra egina zara.

EAJri ez, nire kontzientziari eta nik nahi dudana Euskal Herriari baizik.

Orain artean ez dut sekula kontatu. COAGeko eta ENESAko ordezkari lanak astean bizpahiru aldiz Madrilera eramaten ninduen. Askotan trenez. Bidaia horietan maiz egiten nuen topo [Txus] Viana UCDko arabar politikariarekin. 1977ko lehenengo hauteskundeetan UCDk Arabako 51 udaletatik gehiengo handi baten irabazi zuen. 1979ko Espainiako hauteskunde orokorretan ere 35 udaletan, Gasteizkoa barne. Eta urte bereko udal eta diputazio hauteskundeetan, neurri horretan irabaziz gero, Araba Euskal Erkidegotik ateratzea proposatzeko ideia zeukatela esan zidan Vianak. Ez nuen pentsatu ere egin nahi horrelako zerbait gertatzea, eta plan bat eratu nuen.

UAGAko lehendakari nintzen. Araban, 51 udaletatik 47 nekazaritza udalak ziren. Hori horrela, eskualdeetako ordezkari sindikalei proposatu nien udal hauteskundeetarako kandidate turak baserriarekin osatzeko, baina gogotik lan egingo zuen jendez osatutako kandidate turak izateko. Eta halaxe egin zuten 35 bat udaletan. Kandidatura horiek denak independenteak ziren; beraz, Diputazioan ordezkari lan izateko ez zuten balio, alderdi politikoen bozekin bakarrik osatzen baitzen diputatu taldea. Horregatik, berriz ere ordezkari guztiak bildu eta Diputazioan esku-hartzeko modu bakarra partidu baten sigla pean joatea zela azaldu nien, eta gehiengo zain alderdirekin

joan nahi zuten erabaki, eta alderdi horri guk baldintzak jar-
tzea proposatu nien. Hori egin aurretik, jada EAJrekin ados-
tuak nituen baldintza horiek, nahiz eta ez ziren jeltzaleen oso
gustukoak. Batzar batean bildu nituen ordezkariak, alderdia
aukeratzeko. Denak ez ziren etorri. Batzuek telefonoz eman
zidaten beraien erabakia. Eskutan nituen erantzun guztiak,
bertan zeudenenak eta ez zeudenenak. UCDkoak gehiago
ziren, baina nik gehiengoa hiru punturen aldearekin EAJren
menpean joatearen alde azaltzen zela esan nien. Eta esan nien
nire lana hor bukatzen zela. Orain beraien artean hiru-lau
pertsonako batzorde bat sortu behar zutela, eta EAJrengana
jo baldintzak negoziatzera. Eta EAJk ezetz bazioen, hurrena
UCDrengana joateko. Baina EAJrena lotua zegoen. Baldin-
tzak hiru ziren: independente izango ginela, alderdia ez zela
sartuko guk ordezkatzeko genituen udaletan inolako alderdi
politikarik egiten, eta Diputazioko nekazaritza diputatuak
guk aukeratuko genituela.

Eta EAJk baietz esan zien, jakina.

Bai, idatziz. UCDk, berandu baina, jakin zuen hainbat uda-
letan independenteek osatutako kandidaturak EAJren sigla
pean zihoazela, eta beraien bila joan ziren dirua eta hain-
bat proiektu agintzen, eta, herri batzuetan, lortu zuen ida-
tzi bat sinatzea UCDrekin joan nahi zutela esanez. Idatzi horiek hauteskunde
batzordean aurkeztu zituz-
ten. Aurkeztu, zerrendak
entregatzeko epea itxi bai-
no hiruzpalau egun lehe-
nago. Nik, ordea, EAJren
aldeko idatzia zuten ze-
rrendak entregatu gabe ni-
tuen oraindik, eta azken eguneko arratsaldeko azken orduan
aurkeztu nituen denak. Zergatik? Azken hitzak balio zuelako,
azken idatziek, alegia. Joko horren ondorioa hurrengoa

«Eskutan nituen
kandidaturen papeleta
guztiak. UCDkoak
gehiago ziren, baina nik
gehiengoa EAJren alde
azaltzen zela esan nien»

izan zen: guk aurkeztutako zerrendak nagusi irten ziren 35 udaletan. EAJ, bere kabuz, beste bospasei udaletan nagusitu zen, UCD eta PSOE gainontzekoetan.

Geroztik, gaur arte, ez dut instituzionalki elkarretaratze bat bera ere izan EAJrekin. Ez bazkari baterako, ez eta ardo bat hartzeko ere. Hitzik ere ez didate esan, nahiz eta herrialde osoa eskura jarri zitzaien. Beraiekin izandako negoziazioan esan zizkidatenak entzunda, hobe horrela.

Gauza batzuekin damutu ere damutu naiz. Adibidez, auke-ratu genituen diputatuek –UAGAKo eskualdeetako ordezkariak– nekazaritza sektoreari eman zioten zerbitzua eskasagoa eta maltzurragoa ezin zen izan. Ageri-agerian ikusarazten zuten beraien aziendak hobetzea zutela helburu. Baina joko horren helburua, UCD galtzaile ateratzea, erabat bete zen.

Inork ez dizu horregatik konturik eskatu?

Ez ziren konturatu.

Eta eskerrik eman ere ez EAJko inork?

Ez genuen esker bila lan egin, gure abertzale kontzientziaren aginduz baizik, baina badakizu nola ordaindu zidaten? Nire aitaren anaia Imanol, errudun. Bere aitaren, Urretxindorren, jaiotzaren ehungarren ospakizuna zen. Eta Muxikan zerbait egitea pentsatu genuen. Augustin Zubikarai, Basarri, Santi Onaindia, Jose Antonio Arana Martija eta beste ekarri genituen hitzaldiak ematera. Kazetaritza lehiaketa bat ere antolatu genuen Urretxindorra gaitzat jarrita. Egitarau guztia ordaintzeko kantaldi bat antolatu genuen Gernikako Jai Alai frontoian. Aitonaren bertso eta doinu batzuekin koruko moldaketa bat egin zuen Algortako Biotz-Alai koruko zuzendariak eta han estreinatu. Sarrera merke jarri genuen frontoia betetzeko. Aitaren anaiak, Imanolek, sarrera sorta handi bat hartu zuen batzokietan saltzeko. EAJkoa zen. Baina handik ez zen inor etorri. Guk ekarritakoak bertan ziren denak. Eta [Xabier] Arzalluzengandik jakin nuen gure osaba hark sarrerak gordetzeko, ez saltzeko, esan zuela.

Urretxindorraren semeak! Eta hark bazekien nik Araban egindako lana. Holaxe izan zen.

Zergatik ez zituen sarrerek saldu nahi?

Maiz errepikatzen zuen alderdia zela Urretxindorrari omenaldia egin behar ziona eta ez beste inor. «Ba egin diezaiola», esan genion prestakuntza bileran. Berari ere deitu genion bileretara, eta etorri zen. Hori partiduak egin behar badu, bada egin dezala partidu bezala, baina hau herriko gauza bat da eta herriak egin behar dio, tartean herriko plazari ere Urretxindorra izena jarri nahi zen.

Osaba zen alderdia, alderdia eta alderdia. Beretzat ez zegoen besterik. Eta hortik kanpo egindako guztia gaizki eginda dago. Min hartu nuen. Hala ordaindu zidaten. Eta galerak gure poltsikotik kitatu behar.

ETENIK GABEKO JAZARPENA

1980an, azken atxiloketa izan zenuen.

Azkena eta gogorrena. Izarran, frontoia eta kiroldegi bat eraikitzen ari ziren udala eta Diputazioa. Eta eraikuntzan Zornotzako enpresa bat ari zen. Enpresaria eta langile gehienak ezagunak genituen. Enpresaria bera, Sabin Etxebarria, gure Muxikako auzoko neska batekin, Mari Tererekin, ezkondu ta zegoen. Neska horren ama izaten zen gure etxeko praka jostuna. Langileak ere ingurukoak ziren.

Zornotzatik urrun egiten zela eta bazkaltzen emango genien galdetu ziguten, eta guk onartu. Beraz, gure etxean bazkaltzen zuten, eta gauean, berandu zebiltzala eta goizean goizetik lanen batzuk egin behar, eta noizbehinka lo egiten ere etxean gelditzen ziren.

Urte hartan Abornikanoko Kontzejuko buru Abel anaia zen, herriko eskola zaharra berriztu eta txoko bezala atontzeko hitz egina genuen eurekin. Diputazioari laguntza eskatu

eta beraiek egin zuten, eta inaugurazioan Diputatu Nagusia, Gebara jauna, ere bazkaltzen izan zen.

Bizimodua horrela zihoan, eta zer gertatu zen?

ETAk Santanderko kantera batean dinamita ostu zuen, eta esan zutenez, dinamita hori Zornotzan, pasaeran, egon omen zen esan dugun kontratistak konstrukzioan zituen etxebizitzetako lonjaren batean, eta gurean bazkaltzen eta lo egiten gelditzen zen langileen bila hasi ziren, zerbait jakin behar zutelakoan. Guardia zibilak beraiengatik galdezka zebiltzala jakin

zutenean, desagertu egin ziren hemendik. Bi egunera, guardia zibila hemen zen, eta besteak ez zeudenez, bi anaiok eraman gintuzten Bilboko La Salveko kuartelera. Bidaia oso gogorra izan zen: plastiko zaku bat buruan, mehatxua mehatxuaren gainean, autoko leihoak zabalik eta itxuratzten zenuen basoan zeundela, eta ez karreteran, uste izan nuen bertan akabatuko nindutela... La Salven eskaileratan gora, sakaka, poltsa buruan, ezer ikusi gabe,

«La Salven eskaileratan gora, sakaka, poltsa buruan, ezer ikusi gabe, eta kulatazo edo objektu gogorrez buruan jotzen... Bi egun, apalategi bati kateatuta. Galdeketak, mehatxuak, kolpeak»

eta kulatazo edo objektu gogorrez buruan jotzen... Bi egun, La Salven, apalategi bati kateatuta. Galdeketak eta mehatxuak eta kolpeak. Eta denbora guztian jendearen garrasiak entzuten zure animoa lurperatzeko... Hirugarren egunaren goizaldean, kotxez Madrileran guardia zibilen kuartel nagusira. Hemen ere musika bera, eta toki batetik bestera eramaten zintuzten guzietan, burua estalita, ezer ikusi gabe, eta inguruan zeuden guardia edo pertsona guztiak garrasika, «asesino» deitzen, lau tiro eman eta aurretik kentzeko eskatzen... Bi egunera epai-learen aurrera, eta horrek kargu gabe libre utzi ninduen, eta anaia kartzelara. Sei hilabete egin zituen eta gero kondena egin zuen denborakoa izan zen.

Sindikatuaren aldetik sostengua jaso zenuen.

Ni garai hartan Arabako nekazarien sindikatuko lehendakaria nintzen, eta, Madriletik bueltan, esan zidaten atxiloketen aurka protestan manifestazio bat deitu zutela sindikatukoek. Agian, Errioxan, bi urte lehenago kargua hartu nuenean hitz eman zutena betetzeko: gertatzen zena gertatzen zela, nire ondoan egongo zirela. Pankartak ere ez zuen esaten Abel Enbeita, soilik esaten zuen «Lehendakariaren anaia atxilotu dute inolako froga gabe». Hau izan da, gaur arte, azken atxiloketa.

1963ko lehen atxiloketarekin hasi zen jazarpena. Eta, 1970etik 1983ra egunero-egunero etxean izan duzu guardia zibila.

Etorri, eta gehienetan firmarazi egiten ziguten hemendik pasatu zirela. Eta gu hemen afaltzen, eta barrura sartu eta hemen [sukaldean] etortzen ziren kotxe guztien matrikulak eskatzen, eta gu «hortxe daude, kanpoan, eta zuek apuntatu, ze gu ez goaz ezer ematen». Behin, sarjentua eta beste bat barruan zeudela, atea jo eta Abelek ireki zuen, eta guardia zibilak, pistolarekin apuntatuz, «sarjentua non dago?». «Hor, barruan, zertarako apuntatu behar nauzu horrekin?». 1970etik aurrera, ETAk norbait bahitzen bazuen, automatikoki etortzen ziren hona. Pentsatzen zuten mundu guztia hemen zegoela. Errotarriak ere altzarazi zizkiguten barruan zerbait ote zegoen begiratzeko. Errekan karramarroak hartzen bagenituen, korrika zetozen karramarroak kentzera eta denuntzia jartzera. Gure etxera norbaiten bila etorri eta ez zegoela ikustean, auzoko etxeren bat ere miatzen zuten.

Behin, etxea miatzen ari zirela, emakumeak eta umeak kanpoan ziren, etxe sarreran, eta guardia batek Abelen semeari galdetzen dio: ¿Cómo te llamas?», eta honek, Oier. Eta guardiak berriz eta berriz galdera berdina, eta erantzuna ere berdina. Azkenean, kulatarekin buruan jo zuen. Gure andreak zergatik galdetu zion, baina ez zion erantzun. Pentsatzen dugu Oier barik, «oye», ulertzen zuela.

Hainbeste atxiloketa, miaketa, tortura, kartzelaldi eta epaiketa, baina kondenarik sekula ez. Nola bizitzen da hori guztia?

Beldurra. Beldurra, estutasuna beti. Ez zaude ezer egiteko. Eta egiten baduzu, badakizu nahastuko dutela, kutsatuko dutela ukitzen duzun guztia, erre egingo duzula. Gauetan, nola beti gauetan etortzen ziren, beti ezin lo hartu. Zarata bat entzun orduko, esna. Azkenengo urteetan, esan daiteke arindu egiten dela beldur hori.

Ze sentimendu sortzen dizu?

Niretzako larriena da egin nahi duzuna ezin duzula egin. Ezin duzula zure bizitzaren jabe izan. Ez zuk, ez zure familiak, ez zure ingurukoek. Denek. Niri, oraindik, izua sartzen zait guardia zibil bat ikusten dudanean. Izua. Desterruan, txikitotan eurekin ibiltzen nintzen, ez neukan beste ezagunik. Eurek ere ez. Izua sartzen zaizu barruraino. Eta beldur horretan, nola badakizun 77an, amnistiarekin, fitxategi polizialak ez direla desegin, ba beldurra. Mugan gertatu izan zait «zuk hau eta hau egin zenuen» esatea poliziak, eta nik, «eta zuk nola dakizu hori?», «fitxetan dago», «fitxak 77an apurtu ziren», «hori da zuk uste duzuna», «ez, ez dut horrela uste, esan, esan egin zen baina ez zen egin». Herri mailan zabil-tza, ahal den tokitan, baina ez zabil-tza lasai, beti neurtzen zer egin edo ez egin. Batzuek ere hala ikusten zaituzte, «zerbait egingo zuen» pentsatuz. Bizitza apurtzen dizute. Eta hori da gure aitari ez ziotena apurtu. Hark ez zuen sekula beldurrik izan. Beti aurrez aurre joaten zen.

Eta zergatik ote?

Ez dakit espetxeak eman ote zion indarra edo. Gurea gogorra izan zen. Gaur komisariak gure denboran baino gogorragoak dira. Baina gure aitaren denboran? Zer zen hura. Hiru mila lagun egongo ziren preso Puerto de Santa Marían, eta han egunero jausten zen jendea hilda. Izugarri gogorra zen. Preso sartu eta handik bizirik ez zinela irtongo pentsatzen zen.

Eta bizirik irteteak ikaragarritzko indarra eman behar dizu. Nik ez diot aitari sekula beldurra nabari. Eta nik uniformatu bat ikusi eta...

Hori da kontrol polizialaren helburua, besteak beste, beldurra zabaltzea.

Bai, hori da helburua. Guk beldurra bizi dugu. Hori ez dauka oraingo gaztediak. Ez dutelako gurea bizi izan edo ez dakit zergatik, baina ez dute gure beldur hau. Inbidia ematen ditate. Izugarritzkoa.

Hala ere, inoiz ez zaituzte kondenatu.

Ez. Bi aldiz epaitu naute eta bakoitzean hamar urteko kondenatu eskatu, eta inoiz ez naute errudun aurkitu eta kondenatu.

Hainbat atxiloketa, tortura eta jazarpenez gain, beste samin batzuk ere jasan dituzu zure bizitzan arrasto sakona utzi dutenak.

Kolpe tonto baten ondorioz aita joan zitzaigun sasoirik onean, liburu bat idatzi eta beste bat egiteko prest zenean. Ama gaixotasun luze baten ondorioz joan zen. Benetako lagun min bat izan badut munduan, hori Sabin Euba izan da, iheslaria, munduan non han izaten ginena, eta goizetik gauera minbizia zabaldu, eta zerraldo. Minbizi gogorra pasatuta, eta sendatzeko tratamenduen ondorioz bi urteko penaldi larriaren ostean, ihes egin zidan emazteak. Leuzemia zuela-eta, transplantea egin, eta ondo zegoela, inork ez dakien birus bat aitzakia, 38 urteko iloba zoragarri bat galdu dugu. Eta gogorrean gogorra, semeen bila ikastolara nirekin kotxean zihoala, kamioi bat gainera etorri, eta nire koinata Abelina hila geratu zen.

«Beldurra, beldurra, estutasuna beti. Ez zaude ezer egiteko. Eta egiten baduzu, badakizu nahastuko dutela ukitzen duzun guztia»

Horiek bizitzaren egurra dira eta beraien aurrean etsipena besterik ez duzu. Hori da adierazi ezin den samin sakona.

AUZOLANAREN FEDEDUN

Auzolana da zuk landu izan duzun filosofia eta praktika leku batean baino gehiagotan. Zergatik auzolana? Non-dik datorkizu?

Ume-umetatik oso barneratuta dudan kontua da. Umetan egun askotan gertatzen zen pasarte bat, niretzat zoragarria, bizitza guztian, eta orain ere, miresten dudana, zera zen: auzokide gehienok, gerra denborako salaketa eta lapurretak alde batera utzi, eta soroetako lan gehienak auzolanean egiten ginituen. Gaur zurean eta bihar gurean. Hala patata, arto, gari ereiteak, hala artajorrak, gari jotzeak eta abar. Noren soroan ari ginen, etxe hartako etxeoandrea, hamaikak aldera edo arratsaldeko bostak aldera, otzara batekin azalduko zen, hamaiketako edo meriendarekin. Lanean alto bat egin eta otzara inguruan biltzen ginen, kontu kontari eta elkartasun sano batean. Bizipen hori itsatsita geldituko da betirako nire barrenean. Herri honek elkartzeko, elkar defentsarako eta elkar laguntzarako izan duen betidaniko joeraren adibide argia da.

Arantzazun ere ikasi zenuen gauza bakarra horixe izan dela esaten duzu...

Frantziskotarren anaiditik atera nuen lezio bakarra horixe izan zen: laguntzen joan, eta ez bazaituzte onartzen, beste leku batera joan, eta zure laguntza onartzen duten lekuan gelditu.

Bereziki Sutearo egitasmoan gauzatu duzu auzolanaren filosofia. Gauzatu eta, gainera, berritu.

1975etik aurrera Suaro elkarten ordezkariak hurbildu zitzaizkidan laguntza eske, Bermeo, Laukiniz, Mallabia eta besetik. Ni prest azaldu nintzen laguntzeko, baina nahi zutena

zen beraiek dena ahaztu eta dena nik egitea asegu-ru etxe bat banintz bezala. «Hori ez da Suaro bat», esan nien, «hori ez da auzolana, zuok elkarte horretako arduradun lana utzi nahi duzue, hori ez da elkarte bat eraberritzea. Horretarako ez nago prest».

1987an Bizkaiko EHNEtik deitu zidaten, Lea-Artibai eskualdean hainbat Suaro zeudela eta zerbait egiteko prest zeudela, baina ez zekitela zer, ez eta nola.

Hemen bai ikusi nuen borondatea tradizioak errespetatu, gorde eta eguneratzeko. «Hemen zagok heure kapritxozko lana», esan nion nire buruari, eta birritan pentsatu gabe nire lanerako borondate baikorra azaldu nien.

Suaroak, Etxe-errienak, Hermandadeak... gauza bera dira, eskualde bakoitzean deitzeko izen ezberdina erabili arren: bazkide edo partaide bati okerren bat gertatzen bazaio, kasu honetan etxean gertatu daitekeen kalteren bat, bazkide guztien artean konpontzen da. Aspaldi-aspaldian eskulana eta materiala jarritz, eta, gaur egunean, kaltetu dena konpontzeko edo birgaitzeko dirua emanez.

Ari garen kasu hauetan, etxeetan gerta zitezkeen su kalteetan laguntzen zen. Esaterako, 1987tik aurrera, hiru urtez, hileroko-hileroko, Markina-Xemeinen biltzen ginen zer ginen eta zer izan nahi genuen aztertzen. Elkarteen betiko estatu-tu eta dokumentuak aztertu, eta nola haietatik onena hartu, eta beste gauza batzuk hobetu. Eta orain artean suaren kalteak bakarrik konpontzen baziren, aurrerantzean edozein kalteri erantzuteko egokitzen hasi ginen. Zortzi elkartetako juntetakoak biltzen ginen pausoz pauso elkarte eraginkor eta egonkor bat osatzeko lanean, eta araudi berria osatu, eztabaidatu eta asanbladetan onartzen, etxe guztiak baloratzen, kontratuak egiten...

«Auzolana herri honek elkartzeko, elkar defentsarako eta elkar laguntzarako izan duen betidaniko joeraren adibide argia da»

Eta hori izan zen lehen Suaro berritua, alegia, Sutearoa.

Bai, elkarte berritu edota berriei Sutearo izena jarri genien, lehenagoko izenek berean jarrai zezaten, eta baita bereiztearren ere. Elkar laguntzaz honetan parte hartu nahi zutenen etxe guztiak nik baloratzen nituen, eta EHNEko bulegoan aurkezten nituen bazkideen datu guztiak, han administrazio lanak egiteko. 1991 eta 1992an, Lea-Artibaiko zortzi elkarte berritu eta eguneratu genituen, eta denen artean 400 bazkide egin. Beraien artean federazio bat sortu genuen, kudeaketa eta administrazio lana egiteko. 23 urtetan nik zuzendu ditut elkarte guztietako asanbladak. Denbora horretan, kudeaketa ekipo propio bat sortuz joan gara, eta momentuz hiru langilek eramaten dute lan guztia. Gaur egun, federazio horretan 39 elkarte daude, 34 Bizkaian, 4 Gipuzkoan eta bat Araban. Lau milatik gora dira bazkideak eta bost mila inguru etxeak.

Horretan aritu zara azken 23 urtetan.

Bai, eta tarte horretan, hamar milatik gora kalteri erantzun zaie eta bost milioi euroren kostua izan dute. Eta ekonomiaz hitz egiten badugu, esan behar da kapital berdinagatik aseguru etxe batean ordainduko genuena baino %40 inguru gutxiago jarrita, bost milioi euro kalteak konpontzen erabilita, eta bi milioi inguru kudeaketa eta gastuetan xahututa, oraindik ere, hiru milioi euro sobratu direla.

Aita Balendin egitekoa zela diozu, baina...

Bai, hura bizi guzti-guztian horrela aritu zen.

... zuk ere hortik baduzu, bada. Ekin, antolatu, egin...

Ba, ez dakit, geneetan izango dugu! Geldi egoteko ez naiz kapaz. Baina nire gustuko gauzetan ez naiz ibili bizitzak hara eta hona eraman nauelako.

Zeintzuk lirateke ba zuretzako gustuko gauzak?

Niretzat gustukoa izango litzateke Arantzazun, Jakinen inguruan sortu genuen giro horretan, eta euskal kulturaren bueltan

jarraitzea. Baina bizitzak, eguneroko jatekoa ekarri beharrak, ez dit denborarik utzi horretan ibiltzeko. Beti gustatu izan zait historia, baina ez dut historiarik egin. Jaso, dena jaso dut, paperik sekula bota ez, baina garbiketa eta txukunketarik egin ere ez. Gero asko arratoiek jan dituzte, guardia zibilek eraman dituzte, galdu egin dira... Aurtengo neguan, epea jarrita dut, egin behar dut dena ordenatu. Zer aterako den hortik ez dakit.

Zer daukazu bilduta?

Neuk ere ez dakit dagoeneko. Arantzazukoak eta Erriberrikoak egongo dira. Baina hainbeste erregistro izanda, Muxikan bereziki... Badakit gauza batzuk poliziak eraman zituela. Han etengabeak ziren miaketak. Eta gero, hemen, guardia zibilak, egunero-egunero, etxean... Zer dagoen, auskalo. Hara, aurreko batean, paper guztien artean argazki txiki bat agertu zen, karneteko tamainakoa. Norena izango zen pentsatzen eta pentsatzen, eta azkenean asmatu nuen: Euskaltzaindiarekin alfabetatze eskolei buruzkoa adostu genuenean, irakasle bakoitzari karnet-txartel bana egin zitzaion. Bada, irakasle haietako batena zen. 1965 edo 1966koa!

Zertan zabilta orain, ez zara geldi egongo, hori ziurra da.

Denbora pasa, pentsatzen dudana paperean jarri nahian nabil. Aspaldiko ametsekin nabil. Euskal Herri osoko nekazarien bateratze baten bila, oraindik ere. Hori dut arrangura. Nahiko nuke baserrigintzan dugun esperientzia hurrengo belaunaldiei pasatu eta bide berriak urratzen eta eraikitzen ahalegintxo egin.

Eskualde guztietako jendearekin biltzen segi, noizbehinka bada ere, elikadura burujabetzaren filosofia eta praktika diseinatu eta zabaltzen. Mundu mailako lur gabeekin eta Via Campesina-rekin ere elkarlanean jarraitu. Beste arrangura auzolanarekin dut. Euskal Herriko ekonomi sistema zergatik ez da auzolana?

Mila aztarren daude han-hemen galduak. Elkar laguntza elkarleen nondik norako historia argitzeko, ahal den

dokumentazio gehiena bildu nahi nuke, eta bestetik ea norbait animatu dezakedan doktore tesi bat egitera.

Bestalde, gure familian, Enbeita familian, bada ezagutzera ematea merezi duen pertsonarik. Ahal dudan guztia biltzen saiatu nahi dut, ea norbait engaiatzen dudan lan serio bat egiteko. Eta bizia dugun artean, beti izango da zerbait egiteko. 🍷

Arabako euskalgintza: kapital publikotik hiztun komunitaterantz

Manex Agirre

*Euskal Filologian eta Literaturaren Teorian lizentziaduna,
euskara teknikaria eta bertsolaria*

Atarikoak

Inoiz erreferentzia izan ez den zerbaiti buruz jardutea da artikulu honen asmoa. Berandukoa, bazterrekoa eta ahula izateko fama du Arabako euskalgintzak. Beste lurraldeetan egon den (edo gaur egun dagoen) mugimendurekin alderatuta, seguru aski, hala da.

Hala ere, lupa gerturatuz gero, atzeman daitezke ezohiko praktika batzuk, arreta ematen dutenak, eta aurrera begira jarrita, probetxugarri izan daitezkeenak. Horiek identifikatzeko ahalegina egingo dugu.

Ezer baino lehen, argitze aldera: 'euskalgintza' adierak behar baino definizio gehiago ditu, zoritxarrez, eta eztabaida antzu samarrei bide emateko aitzakia ere bada. Artikulu honetan, euskalgintza bere esanahi zabalenean (teorikoenean?) erabiliko dugu, eta hala ulertu bedi: euskara indartzeko bidean lanean ari den egitura-multzoa, izan herri-mugimendu, erakunde publiko edo pribatu.

Manuel Moreno Topaguneko kideak, Rober Gutierrez Bai Euskarari Ziuertagiriaren elkarteko zuzendariak, Gaizka Amondarain Hala Bedi elkarteko kideak eta Jokin Larrañaga

Euskararen Foru Zerbitzuko zerbitzuburuak lagundu didate artikulua osaketan. Iñaki Martínez de Lunari ere ‘lapur-tu’ diot zerbait. Aipamen txiki horrek balio dezala lagunoi eskerrak emateko.

Zer du bereizgarri Arabako euskalgintzak?

Aldaketaren lurraldea da gurea...

Ez gara zenbaki-dantzan sartuko. Nahikoa adierazle zehatz eta egia badu Arabako egoera soziolinguistikoaren xehe-tasunen berri jakin nahi duenak.

Ondorio edo inpresio nagusia da, eta horretan badago kontsentsua, aldaketa handia eta ikusgarria izan dela Araba-koa, euskararen aurrerabidean. Lurralde-irizpideak kontuan hartuta, hau da, lurralde oso batean modu integralean eman diren aurrerapausoei begiratuta, aldaketarik adierazgarriena eta homogeenoa izan duen lurraldea izan liteke, agian. Abiapunturik beltzena ere bazuen, agi denez.

Zerikusi handia izan dute horretan Arabako euskalgintzan urtetan zehar ardatz izan diren lan-esparru nagusiek: euskalduntze-alfabetatzea, euskaltegien eskutik; eta hezkuntzak zabalduko bidea, ikastetxe publikoen eta batez ere ikastolen eskutik. Berrindartze linguistikoan lanean ari denak materia-la izan behar du eskura, proposamenak eta ekimenak mar-txan jartzeko. Gaitasunak markatzen du abiapuntua, langaia. Eta, une honetan, ez genuke langairik izango, urtetan aurrez aipatutako bi esparruetan egin den lan eskergagatik ez balitz.

Noski, nola ez, betiko mantra errepikatuko diogu beste behin ere, gure buruari: aurrerapausoa badago, handia gainera, baina hizkuntzaren ezagutzara mugatua. Erabileran ez goaz aurrera. Zintzilik daramagu soinean, oraindik, Soziolinguistika Kluste-rrak 2011n egin zuen azken kale-neurketaren emaitza: Araba-ko herritarren %4k bakarrik erabiltzen du euskara gaztelania baino gehiago, edo gaztelania beste; hau da, oso jende gutxi da euskara modu trinkoan erabiltzen duena. Ezer berririk ez: gaur egun dugun arazo/erronka nagusia da, ondo dakigu.

Egoera deseroso horren aurrean, badatoz argi-izpiak ere. Une interesgarrian gaude, baldintza egokiak sortzen ari dira lan berriei ekin eta orain arte iristeko zailak ziren esparruetara iristeko. Manuel Moreno Topaguneko kidearen hitzak bide horretatik doaz:

Hezkuntza euskaldunaren emaitza, atzokoa ez bada ere, gaur egun agerikoagoa da. Hortik pasatutako belaunaldiari, aurretik euskaltegietan euskaldundutako askori bezala, guraso izateko sa-soia iritsi zaio, eta horrek duela (demagun) 10 urtekoa ez bezalako aukera ematen du familia bidezko euskararen transmisiorako.

Iritzi zabaldua da hori, eta partekatua. Beste era bateko baldintza soziolinguistikoak izan dituzten eremuetan jada igaro da une hori. Araban, orain da unea: transmisiorako unitate berri horiei ezin diegu ihes egiten utzi. Aukera polita, beste leku batzuetan ondo egindakoak geureganatzeko, eta akatsik ez errepikatzeke.

Adibide bat besterik ez da. Hori bai: egingarria. Aurrez ondo landutako giza kapital gero eta handiagoari irtenbide egokia emateko aukera, eza-gutza eta erabileraren aldea murrizten hasteko kanala.

Zorionez, gurean ez dugu euskararen berariazko 'apartheid'-a helburu duen 'zonifikaziorik'. Baina, ardatz geografikoa kontuan hartuta, badaude 'zonak'

... baina, zonifikaziorik ez dugun arren, badaude 'zonak'

Urrunetik begiratuta, badu homogeneousitasun bat euskararen aurrerabideak. Lupa gerturatuta ateratzen diren xehetasunek ere badute garrantzia, ordea. Gogoratzeak balio du: zorionez, gurean ez dugu euskararen berariazko *apartheid*-a helburu duen 'zonifikaziorik'. Baina, ardatz geografikoa kontuan hartuta, badaude 'zonak'. Euskarak ez du osasun bera Gorbeialdean eta Errioxan. Ezta Aiaraldean eta Añanan ere. Iparraldetik hegoalderako bidean, salbuespenak salbuespen,

hoztuz doa panorama linguistikoa. Eta ez da ezagutza eta erabilera bakarrik behera egiten duena. Eszenatoki osoa aldatzen da: gauzak egiteko modua, proposamenen eta ekintzen ezaugarriak... Edo, agian, garrantzi handia duena: jendearen pertzepzioa, eta hizkuntza-giroa.

Bestalde, ezin dugu alde batera utzi Arabak, demografiak aginduta, erakusten digun desberdintasunik handiena ere: Gasteiz dugu erdi-erdian. Lurraldeko biztanleriaren gehiengo handia bizi da bertan. Gizarte-zientzia da soziolinguistika, gizarte-planak dira euskara planak. Ondo bereizi beharra dago Arabako landa eremuaren (Laudio, Amurrio, Agurain edo Oionekin kontuz ibilita, noski) eta eremu urbanoaren artean. Ez du zentzurik euskararen aurrerabiderako ekintza berberak jartzea martxan batean eta bestean.

Homogeneotasuna guztiz hausten da, azkenik, gizarte-bizitzari esparruz esparruko erreparoa ematen badiogu. Hezkuntzak eta euskalduntzeak jarraitzen dute aurrealdean; horrekin ez dela nahikoa badakigun arren, aitortu behar zaie 'materiala sortzen' egindako lana. Kulturgintzan ere eman dira aurrerapausoak, kontsumoaren bidetik, batez ere, azken urteotan sormenarenetik ere esperientzia probetxugarriak ezagutu ditugun arren. Aisialdian ere gero eta argiago daude hizkuntza-irizpideak. Beste gauza bat dira, noski, administrazioa, esparru sozioekonomikoa edo hedabideena.

Euskalgintza ahul?

Egoera soziolinguistikoa da gauza bat, eta egoera horri buelta emateko dagoen egitura beste bat. Paradoxikoa izan daiteke: behar handiena dagoen lekuetan daude euskalgintza-egiturak ahulen. Baina ez da hain harritzekoa. Lan egiteko, gutxieneko masa bat behar du euskalgintzak: behar bezalako hiztun talde finko bat, oinarri-oinarrizko baldintza batzuk. Araban, orain gutxi arte, ez da horrelakorik izan; ondorio posibleen artean sartzen da normalkuntza lanetarako egiturak behar baino beranduago finkatzea.

Akats larria litzateke, ordea, esparru zehatz batzuetan normalkuntzaren ikuspegiak izan duen geldokeria lanerako terreno zaila aitzakia gisa hartuta zuritzea. Erakunde publikoek euskalgintzan erakutsi duten urtetako lidergo falta benetan nabarmena izan da. Gasteizko Udalaren euskara zerbitzuak baditu urte batzuk, eta herrigune nagusietan ere izan dira euskara teknikariak. Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuak azken urteotan hartu du indar apur bat. Baina normalkuntzaren ikuspegiak instituzioetan izan duen bazterreko izaera ia-ia betidanikoa da. Zer esanik ez orain oso gutxira arte euskara zerbitzu espezifikorik izan ez duten Arabako tokiko entitate guztietan.

Euskara zerbitzuak presentzia izan duen herri eta eskualdeetan egon da gutxieneko lan partekatu bat, herri-mugimenduekin batera. Baina gutxienekoa izan da. Hortik kanpo, euskara zerbitzurik egon ez den lur-eremuetan, euskara eta kultur elkarteek hartu dute beren gain protagonismo oso-oso. Ez lego-ke ezer, gaur egun, elkarte eta boluntario-talde horiengatik ez balitz. Beti ere, aurrez aipatu ditugun euskalduntze eta irakas-kuntza esparruek beren ibilbidea ondo-ondoan egin dutelarik.

Nahi baino egitura ahulagoak izan dira Arabako euskara elkarteak. Euskararen aldeko lanaren lider izateko konpromisoa hartu, eta ezin iritsi ibili dira askotan, gorabeheratsu; batez ere, gizarte-bizitza antolatze gaitasuna duten gaintzeko erakundeek (izan publiko, izan pribatu) laguntza gutxi eman dietelako, edo lidergoa partekatzeko gogo handirik erakutsi ez dutelako.

Egun, herri-mugimenduak eta erakunde publikoek euskalgintzan duten lidergo-korrelazioa, apur bat bada ere, aldatu egin dela esan dezakegu. Aurreraxeago aztertuko dugu hori.

Kontra (eta eroso?)

Jar gaitezen diskurtsoari, mezuari, begira. Alde batek erraztasunik eta laguntzarik ematen ez zuela eta, espero zitekeen joera zabaldu da, urtetan zehar, euskararen aldeko

herri-mugimenduetan: kontra azaltzearena, kritikarako joera. Aurrekontu eskasia, hizkuntza-eskubideen urraketa sistematikoa, baliabide falta nabarmena... behin eta berriz errepikatu diren kontuak izan dira. Horretan, azpimarratu beharra dago, zerikusi handia izan du instituzioetan gai hauetarako interlokutore egokirik ez egoteak, eta euskarari bazterreko izaera ematea ekarri duen urtetako utzikeriak.

Txanponak badu beste aurpegia ere. Kontra dagoena eroso egon daiteke postura horretan. «Hauekin ezin da ezer egin» dioenak ez du bide berriak, ekimen berriak... proposatzeko lanik hartzen. Izan du horretatik ere Arabako euskalgintzak, zoritxarrez.

Ez da ezer berria. Euskararen biziberritze-lanen baitan azken urteotan bizi dugun bidegurutzean behin eta berriz azaldu den gaia da, lurraldearen arabera kolore ezberdina hartzen badu ere.

Justizia kontu bat

Hala ere, aurkakotasunaren eta aldarrikapenen bidea ez da antzua izan. Agian, asmatu ez dena 'eskatu-eskaini' binomioa behar bezala gauzatzea da. Hutsuneak betetzeko besteei esan beharrean, norberak, proposamen berriekin, ilusio eta irudimenarekin, betetzeko saiakera gehiago falta izan dira.

«Gehiago» diot, batzuk egon direlako. Gasteizen, zehazki, lan benetan interesgarria egin da hainbat gizarte-mugimendutan (ez derrigorrez euskalgintzari berariaz lotuak, dena esan beharra dago). Gaizka Amondarain Hala Bedi irratiko kideak oso presente du hori, honakoa dioenean: «Zer gertatu zen Hertzainak bezalako talde batekin? Zer zen haientzat euskalduna izatea?».

Gasteiz itogarri (eta, zentzu batean, aspergarri) batean, boterearen aurka azaltzeko modu bat gehiago zen euskara erabiltzea. Ez hainbeste identitatearen ikuspegitik, edo aber-tzaletasun ortodoxotik; aldarrikapen sozial kutsu bat bazuen euskararen aldeko borrokak. Beste eremu batzuetan gutxiegi

landu den ezaugarri horrek gurean bere ibilbidea izan du, gizartean izan duen eragina masiboa izan ez bada ere. Hala Bedi irratia bera, Gasteizko gaztetxea edo kontraboterean aritu diren bestelako mugimenduak dira horren lekuko.

Lan horrek jarraitzen du gaur egun ere, neurri batean apaldu den arren. Abiapuntu ona da euskalgintzak etorkizunean har ditzakeen bide berriei kolore berezi bat emateko.

Beraz, nolakoa da Arabako euskalgintza une honetan?

Euskalgintza sozialaren eta erakunde publikoen euskalgintzaren arteko lidergo korrelazioa aldatu bada, hainbat arrazoiengatik izan da. Orain bost urte pasatxo martxan jarri zen kuadrilletako euskara teknikarien sare berria da arrazoi horietako bat.

Egonkortasun arazoak baditu ere (batez ere, Arabako Foru Aldundiak orain arte urtero atera duen diru-laguntza deialdi baten mende dagoelako), egonkortutako sare bat dela dirudi.

Euskara zerbitzurik ez zegoen

Arabako eskualdeetako hutsunea betetzea zen helburu nagusia, lurralde osorako euskalgintza publiko koordinatu bat martxan jartzea asmoa. Hirigune nagusietan, urtetan zehar, asko kostata egindako lana landa-eremu zabalera eramatekoa. Kosta zaio sarea-

ri egonkortzen, baina badirudi, batez ere azken bi urteetan, zerbitzuen funtzioak eta teknikarien egitekoa ondo definitu direla. Hitz egin dezakegu, behingoz, Arabako euskalgintza publiko koordinatu batez, bere argi-ilunekin bada ere.

Herri mugimenduentzat, erakundeekin interlokuzio zuzenagoa izateko aukera eman du teknikari sareak, besteak beste. Erreferentziak sortu dira, helduleku irmoagoak, proposamen berriak gauzatzeko testuinguru erosoago bat, babes

Euskalgintza sozialaren eta erakunde publikoen euskalgintzaren arteko lidergo korrelazioa aldatu bada, hainbat arrazoiengatik izan da

bat. Asmo berriek harrera hobea dute, errazago sartzen dira erakunde publikoen gogo-aldartean.

Ifrentzua, beti bezala, hor dago. Eremu batzuetan, zoritxarrez, gizarte-mugimenduen erlazazioa eta desaktibazioa eragin du euskara zerbitzua sortzeak. Oro har, nekatutako mugimenduetan gertatu da hori, eta, agian, desaktibazioa baino, egokiagoa da pibotazioa aipatzea: «euskara batzordea sortu da udalean, beraz, elkartean egiten dugun lana egin dezake diru publikoz ordaintzen dugun teknikari batek... Batzordean parte hartzen badugu, zertarako segi elkartean jo eta ke?».

Ezin dira kasu horiek orokortu, baina une honetako lidergoaren lekualdatzea aztertzerakoan, kontuan hartu beharrekoak dira. Agian, alde onuragarri gisa, ordura arte pisu guztia izan duen eragile-multzo horrek, hau da, herri-mugimenduen multzoak, bere egitekoen eta funtzioen gaineko birplanteamendua egitea ekarri duela esan daiteke. Leku batzuetan, lidergoa erakunde publikoetara pasatu da, modu naturalean; beste batzuetan, egiturak berriz definitu dira, eta leku berri batean kokatu.

Lider izateak, edo izan nahian ibili eta lortu ezinak, neke handia eragiten du. Bidea nahi bezain laster egin ez izanak, zenbait egitasmo estrategikok izan duten ibilbide murrizak eta urtez urte egindako lanaren errekonozimendu eskasak ekarri dute, hainbat sektoretan, halako 'ezkortasun endemiko' bat. Inoiz funtzionatu ez duenak etorkizunean funtzionatu ezin dezakeela uste izateraino.

Eta, harritzekoa badirudi ere, azken bost urteotan goraldi-unean gaudela erakusten duen proiektu berri sorta bat jarri da martxan Araban.

Adanismorik gabe, hutsuneak betez

Gauzak lehenengo aldiz egiten ari da jendea, Araban, eta euskaraz. Eta ez da adanismoa: 'lehenengo aldiz' ari da, benetan. Iñaki Martínez de Lunak, *Argia*-ren 2015eko lehenengo zenbakian, hala dio: «Araba, bestalde, ahaleginetan dabil

oraindik euskara ‘armairutik atera dadin’, baina armairuko atea ireki egin da».

Adibideak hainbat eta hainbat dira. Gasteiz da tropelburu, oraingo honetan ere, hiriko erabileran eragin-asmo duten proiektu handiekin (mintzalagun programa erraldoia; berriki martxan jarritako Oihaneder Euskararen Etxea), baina badira eskualdez eskualde martxan jarritako esperientzia arrakastatsu eta garrantzitsuak ere (Aiaraldea komunikazio leihoa, Lautadako bertso eskolatik sortutako euskal ekosistema...). Herrialde osoa aintzat hartzen duten *Alea* aldizkaria, Hala Bedi irriaren bigarren frekuentzia (euskara hutsezkoa) edo Arabako Bertsozale Elkarteak martxan jarritako Kuadrilla arteko bertso-ekimenak ere multzo honetan sar daitezke.

Nola da posible hainbeste ekimen berri sortzea, egituraz ahul, indarrez eskas eta herrigintza-erakunde publikoen arteko koordinazioaren (oraingoz) hastapenetan dagoen herrialde batean?

Batetik, hasieran aipatutako arrazoi bat: orain egin daiteke ‘benetan’ lan, euskalgintzan, Araban. Orain dago, benetan, ekimen berrien hartzaile izan daitekeen masa kritiko bat. Bestetik, nekez bada ere, euskalgintzan lanean dabilen belaunaldi aldaketa baten zantzuak har daitezke: jende gazte(ago)a, formazio espezifikoa jaso duena eta gogoz eta ilusioz lan egiten duena. Eta, azkenik, ekimen berri horien guztien protagonistek beren lanarekiko eta euskararekiko harremanean tentsioa jaitsi dutela dirudi. Harremana gero eta naturalagoa dela (aurrera begira jartzen garenean helduko diogu gehiago ertz horri).

Manuel Morenok (Topagunea), intuizio gisa, hala dio: gai-nontzeko herrialdeetan lehenago bizi izandakoaren antzeko zerbait bizi dugula orain Araban. Hedabideen arloan, kulturgintzarenean eta aisialdiarenean, eta, oro har, euskalgintzaren egituraketan une honetan martxan dauden aldaketek aurrekariak dituztela beste herrialdeetan. Ezagutzen ditugu aurrekari horiek ondorenean izan dituzten gorabeherak eta krisi-uneak. Abantaila, guretzat: besteen akatsak ez errepi-katzeko aukera daukagu.

Euforia? Bai, baina ez

Iñaki Martínez de Lunak, aurrez aipatutako artikuluko berean, susmo baten berri dakar: «Euskaltzale gipuzkoarren gogo-aldartearen lurretik dago eta arabarrena, aldiz, ‘zerua ukitzeko punttuan’». Ondoren, erlatibizatu egiten du alde hori, batez ere, lurralde arteko alde soziolinguistikoak eta egiturazkoak hain handiak ez direla argudiatuz.

Proiektu berri horiek guztiak hasiberriak dira. Beste batzuek egin dute beren ibilbidetxoak, eta izan dituzte beren gora-

beherak ere (Arabako Bertsozale Elkartearen eta Gasteizko Udaleraren arteko hitzarmenak orain gutxi izandako krisia, adibiderako). Une interesgarrian gaude, baina ezin gaineratik kendu uneoro kolokan egotearen beldurra. Eta, guretzat estrategikoak eta hil ala bizikoak izan arren, ezinbesteko jende askorentzat (asko eta asko erabakiguneetan daudenak), hiz-

Proiektu berri horiek guztiak hasiberriak dira. Une interesgarrian gaude, baina ezin gaineratik kendu uneoro kolokan egotearen beldurra

kuntzen kudeaketa erdigunean jartzen ez duten horientzat, proiektu horiek hain garrantzitsu ez izatearen kezka.

‘Nukleo gogor bat’ falta

Beste kezka bat dakar Rober Gutierrezek, Bai Euskarari Ziurtagiria elkarteko zuzendariak. Arabak euskarari atea ireki dio, baina ez dakigu etxea ondo ordenatuta daramagun:

Nire ustez, Araban ere euskalgintzak bere estrategiaz hausnartu behar du. Esango nuke une honetan ez dagoela gune bat hori ahalbidetzen duena. [...] ‘Nukleo gogorra’ behar da, prozesua lideratzeko, hizkuntza-komunitatea artikulatzeko eta gizartean (eta maila politikoan) eragiteko.

Erakunde publikoen mailan, Arabako Foru Aldundiak izan beharko luke ‘nukleo gogor’ horren sustatzaile. Une

honetan, ordea, zail du benetako lidergo erreal bat hartzen, baliabide eta konpromiso politiko faltaren ondorioz. Euskararen aldeko gizarte mugimenduek ere badute nahikoa lan erronka berriei eusten (Oihaneder, *Alea...*) eta beren burua birdefinitzen. Aurrera begira jartzeko garaia da.

Aurrera begira jarrita: zerk etorri behar lukeen

Bi buru, bi erronka

Euskararen normalizazio-prozesua bideratzen duen egitura multzoa da euskalgintza. Bi eragile garrantzitsuren bueltan joan da orain arte testu hau. Ikus dezagun zein diren eragile horien egiteko moduak gaur egun dituen hutsuneak, horrek markatuko baitigu hemendik aurrerako bidea.

Erakunde publikoek dute, gaur egun, euskararen normalizazio prozesua planifikatzeko ardura; izan Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren (ESEP) bidez, izan erakunde barneko normalkuntza-planen bidez. Planifikazioa ezinbestekoa da, baina 'plankeriarako' arriskua ekar dezake. Plan, egitasmu, estrategia eta helburuz josita daude artxibo publikoetako espedienteak. Batzuek isla dute errealitatean. Beste batzuek ez.

Jendearen borondatezko lanean oinarritzen da, gehiengotan, euskalgintza soziala (soldatapeko langileak gero eta gehiago diren arren). Ezegonkortasuna, diru-laguntzekiko menpekotasun handia, ilusioaren eta gogoaren gorabeherak ekar ditzake horrek. Militantzia-moduak ere aldatuz doaz, ez bagara idealista jartzen, behintzat. Nekea ezin da planifikatu, gutxien espero denean etortzen da. Praktika behar du euskalgintzak.

Beraz, zein da beharrik handiena?

Erakunde publikoek ezin dute, euskararen aldeko ekimenak diruz hornitu ondoren, beren irudia kartelean dagoela egiaztatu, eta ahaztu. Irizpideak ezarri behar dituzte, beren burua behin eta berriz ebaluatu, benetako lanketa bat egin.

Eta, era berean, planifikazio hutsaletatik ‘herrira jaitsi’. Gizarte-erakundeek egonkortasuna behar dute, aitortza, benetako protagonismoa. Inguruan, soka, daramatzaten herritarrak aktibatzekeo beharra dute: herritar horiek ahaldundu, erantzule bihurtu, zerbait garrantzitsua egiteko ardura eman, erakundeetarako delegazionismoak ekiditeko.

Testu honetan bidelagun ditudanak bat datoz elkarlanaren beharraz ari direnean. Jokin Larrañagak, Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuko zerbitzuburuak, modu bateratuan ez jokatzek ekar ditzakeen arriskuez ohartarazten du. Manuel Morenok, Topaguneko kideak, ekimen instituzionalek eta herri ekimenez elkar aitortu beharko luketela dio, eta elkarlanerako bideak ireki. Rober Gutierrezek, Arabako euskalgintzaren ‘nukleo gogorra’ aipatzen duenean, eragile guztien parte hartzea azpimarratzen du. Ezinbestekoa litza-teke eragile publikoak ere bertan egotea.

Funtzioak ondo zehaztuta, lanak ondo banatuta, baina lidergo partekatu indartsu bat erakutsiz. Noski, tranparako bidea zabal dezaketzen hitzak dira ‘elkarlana’ eta ‘partekatu’.

Botere publikoak herritarrek bere erabakiguneetan parte

hartzeko erakusten duen erresistentzia handia da oraindik. Ez da nahikoa euskararen aholku batzordeak osatuta: benetako lan-banaketa erreala egon behar da, eta elkarrenganako benetako aitortza. Parte hartze erreala, eta parte hartzeko gogo erreala, kontra egotearen erosokeriak alde batera utzita. Azken finean, bi

Probaleku ederra izan
liteke, elkarlanaren
bide horretan,
Gasteizen inauguratu
berri den Oihaneder
Euskararen Etxea

norabidetako hurbilketa, bakoitzak bestearen erabakiguneetan benetako leku bat izatea.

Probaleku egokia izan liteke, bide horretan, Gasteizen inauguratu berri den Oihaneder Euskararen Etxea. Espazio fisiko berean elkartuko dira Gasteizko Udaleko euskara zerbitzuko teknikariak eta Oihanederren kudeaketaren ardura izango

duen Lazarraga Kultur Elkarteko langileak. Aukera ederra elkar igurtzeko eta euskalgintzaren benetako erreferentzia sendo bilakatzeko.

Mezuaren auzia

Lidergo partekatu erreal batek mezu bateratu bakar bat ekarri beharko luke. Eta, aurrelanetan (bateratzen, elkarlanerako egiturak zehazten) arazorik ez bada sortu, horrek sortuko ditu, dudarik gabe.

Euskara ez da politikarekin nahastu behar, baina euskararena auzi politikoa da. Gizarte-mugimenduen kasuan ondo barneratutako ideia da, ez hainbeste erakunde publikoenean. Atzetik doaz horretan. Lau urtean behin kolorez aldatzeko zain egon gabe, diskurtso finko bat, instituzionala, serioa behar du euskalgintzak. Benetako konpromisoa erakustea falta zaie Arabako erakundeei. Errealitatera egokitua, egoe-ra soziolinguistikoaren araberakoa, baina konpromiso argia. Egin gabe dagoen lan bat da hori.

Konpromiso finko horrek, mezu argi horrek, euskararen gero eta presentzia nabariagoa atzerabueltarik ez duen zerbait dela adierazi beharko luke. Lehenbailehen trenera igotzea dela onena. Berdin da euskararen onarpen eta zabalkunde osoa oraindik urrun egotea. Horrek ez du zerikusirik mezuarekin.

Euskalgintza lurperatzera datozenak

Iritzi zabaldu samarra da. Euskalgintza 'espezifikoz' gain, azken urteotan euskaraz bizitzeko hautuan oso modu eraginkorrean lanean ari diren hainbat eta hainbat eragile daude Araban. Arabako Bertsozale Elkarteak kultur elkarte bat da, Araban bertsolaritzaren sustapenean, transmisioan, komunikazioan eta ikerkuntzan lanean ari dena. Ibilbide oparoa darama, eta urtetako lan eskeraren ondorio da gaur egun duen osasun ona.

Kultur elkarte bat da, bai, baina ez du bazterrera uzten euskararen normalizazioan duen funtsezko papera. Interesgarria

da lortu duena: euskararen aldeko lan espezifikorik egin gabe, une honetan Araban dagoen gazte 'euskaltzale' kopuru handiena mobilizatzeko gai da. Euskararen aldeko hautua norbere buruari behin eta berriz gogorarazteko beharra kentzeko gaitasuna du. Hala erakusten dute astero-astero bertso eskolara doazen gaztetxoek.

Neurri batean, bertsolaritzarekiko (espresio bide gisa) harremana erlaxatzeko, naturalizatzeko ahalegina egitearen ondorioz lortu du hori Elkarateak. Sormenaren demokratisazio-ariketa kontzientea egin da urtetan zehar elkartetik. Eta, arabar belaunaldi gazteek (ez denek, noski) euskararekin duten harremanera ere hedatu liteke praktika hori. Garai batean, arrazoi identitarioak, politikoak, folklorikoak... medio, tentsioz bizi zen euskararekiko harremana. Euskaltzaleak lubakietan zeuden, militantzia eta atxikimendua gotorrak ziren.

Gaur egun, gero eta zailagoa da (bakarrik) euskararen militante izatea. Erakargarritasun gutxi du. Kontraesana dirudi, baina errazagoa, naturalagoa eta erakargarriagoa dirudi Zalduekoko bertsolaria, Hala Bedi irratiko esataria edo Gaztetxeko antolatzailea izateak euskaltzale izateak baino. Eta denak dira euskaraz bizitzeko plataforma egokiak.

Zalantzak dakartza ideia horrek. Euskararekiko militantzia berriz aktibatu behar dela dioenik badago. Euskaraz modu naturalean bizitzeko mugak gaindiezinak direla, eskubideak ez direla errespetatzen... Ados, behar dugu 'nukleo gogor' bat, berme instituzional eta sozialen bila lan egingo duena. Baina, euskaraz bizitzeko hautua ohartu gabe egiten duen jende euskaltzale gero eta gehiago dago. Eta ez daukagu behin eta berriz euskaltzaleak direla gogorarazten jardun beharrik.

Orain, kapital publikoa. Laster, hiztun komunitatea

Badugu euskaraz bizitzeko gai dela badakigun masa kritiko gero eta zabalago eta anitzagoa, euskalgintzak antolatzen duenaren xede-talde egoki izan daitekeena. Badugu euskaraz bizitzeko hautua modu kontzientean egin duen jende-multzo

zabala ere (batzuk, majo sufrituta, euskaltegitik atera berriak; gero eta gehiago, etxean aurreko belaunaldietatik euskara jasotzeko zortea izan dutenak). Badugu eskura eta erabilgarri dituen sormen-bideak euskaraz natural erabiltzeko gai den artista kuadrilla ederra ere.

Badugu kapital publikoa. Norekin lan egin, norentzat, eta nor bidelagun hartuta. Eta badugu lanerako prest dagoen eta formazio egokia duen talde bat ere, 'nukleo gogor' izateko bidean doana (Rober Gutierrezek egoki gogorarazten duen moduan, horietako asko euskal hiztun berriak, horrek dakarren onura nabarmenarekin). Kapital publiko zabal eta barreiatua hiztun komunitate trinko bihurtzeko lan egingo duena. 🍷

Laborantza, sindikalgintza, herrigintza: Iparraldeko esperientzia

Mixel Berrokoirigoin

ELB sindikatuko kidea eta Euskal Herriko Laborantza Ganberaren lehendakaria

Ipar Euskal Herrian, azken hamarkada hauetako aldaketa guzien bizkarrezurra ELB (Euskal Herriko Laborarien Batasuna) izan da. 1982an sortu zen, lau-bost urtez laborari gazte talde batek eraman gogoeta sakonen ondotik. Talde horretako kide asko Euskaldun Gazteria laborari gazteen kristau mugimendutik ateratzen ginen. Euskaldun Gazteria lotua zen frantziar estatuan baserri munduko gazteak biltzen zituen eliz mugimendu bati.

Hori esaten dut, ongi ulertzeko garai hartan Iparraldeko laborantza mugitu zuten ideia berriek lotura bazutela Frantzia laborari mundua mugitu zuten ideia berriekin. 70eko hamarkadan lehen urrats militanteak egin ditugunok Iparraldeko laborantzan, gure gogoetak hazi ditugu Frantzia mailan laborari mundua harrotu zuten ideia berrien inguruan.

1968ko Maiatza eta laborantza mundua

Gogoan atxiki behar dugu aipatzen dudan garai hori etorri zela 1968ko Maiatz famatu haren ondotik, munduaren zati nagusi bat inarrosi zuten gertakarien ondotik. Militante

belaubaldi bat politizatu zen. Hala nola, gorago aipatu eliz mugimenduan, ordu arte esaten bazen «mundua hobetzeko, gizakia hobetu behar da!», gero esaten zen: «mundua hobetzeko, gizakia hobetu behar da, eta sistema ekonomikoa aldatu!». Laborari munduan ere haize berria zabaldu zen. Garai hartan, aniztasun sindikala ez zen onartua: estatuko sindikatu bakarra zegoen, monopolio osoa zeukana. Bere diskurtsoa sinplea zen, eta laborari askorentzat arrakastatsua: «Laborari guztiak itsasontzi berean gara; gure baserrietan enpresaburu gara, ongi jokatzeko badugu, aterabide ekonomikoa segurtatua dugu; batasuna da gure indarra, aniztasuna zatiketa da, zatiketa ahulezia da...». Sindikatu horren barruan eztabaidak izan ziren herrialde askotan, Euskal Herrian ere ahots ezberdinak hasi ziren plazaratzen: «Laborari guztiak ez gara interes berdinekoak; badira handiak, enpresaburu gisa jokatzeko gaitasun ekonomikoa daukatenak, beti handitu nahiz dabilzanak, ekoizpena, lurra eta kapitala kontzentratzen dutenak. Eta bada laborari gehiengoa, ttipi eta ertainak, langile munduari hurbilago direnak beren errealitatean, agroindustria eta bankuen menpe... Bi laborari kategoria horiek elkarren aurka doazen interesak dituzte, eta, beraz, kategoria bakoitzak bere antolakuntza sindikal propioa behar du...». Horri loturik, bazen ere debate etiko bat laborantza ereduari buruz: zer modernitate behar du laborariak? Zein eredu da jasagarria? Zer ekoiztu behar da? Zertarako? Nola? Norentzat? Produktibismoaren kritikak hazi zituen laborantza ereduari buruzko lehen orientabideak. Laborantza eta gizartearen arteko lotura, mundu 'aurreratu' eta Hirugarren Munduaren arteko erlazioak, baita ere laborantza ereduak eta horien harremanak naturarekin, bioaniztasunarekin... Horiek ziren debate sindikala animatzen zuten gai berriak, eta horiek hazi dute gure analisia.

ELBren sortzeak hautsiriko tabuak

Ez ditugu beste nonbait hartu teoriak, eta Euskal Herrian fotokopiatu. Erreferentziak atxikiz, saiatu gara hemengo

errealitateari txertatzen; hemengo errealitateetik abiatuz, hemengo errealitateari zihozkion proposamenak lantzen. ELB-ren sortzea justifikatu duen analisi sozioekonomikoa aipatu ildo horretatik atera da. Eta ildo horretatik segitzen du, beti berrituz, noski... Baina ELB, bere izenak dion bezala, Euskal Herrian sortu zen, eta hori hautu politiko bat zen, garai hartako panoraman ez zena erraza onesteko... Gaur egun Iparraldeak ez du oraindik koadro instituzionalik, baina Iparraldearen eremuan elkarre edo egitura bat sortzea oso normalizatua da. Imajinatu behar da, duela kasik 35 urte, gauza hori oso arraroa zela eta susmoz betea... Gainera, garai hartan testuinguru politiko gogorra zegoen... ELB sortzeak bi tabu hautsi zituen, bat bestea bezain zaila, bat bestea bezain arriskugarria ez bazen ondo esplikatzen... Bata: laborantzako batasunaren mitoa haustea, esplikatuz batasunaren zentzu bakarra zela interes berdina zutenen arteko batasuna. Bi: Iparraldean, existitzen ez zen eremu honetan, sindikatu bat sortzea, jakinez sindikatu batek suposatzen duela botere politiko bat parean, gure lurraldeak ez zuena. Hemen ere esplikatuz behar izan dugu zergatik nahi genuen Euskal Herri mailan antolatu... Pedagogia eta errespetuarekin gauzak esplikatuz, lortu dugu ELB aski baldintza onetan abiatzea.

Horra, beraz, zer testuingurutan sortu genuen ELB, 1982an. Helburua zen laborari ttipi ala ertainak, baita gure laborantza eredia defenditzea, eta ere, existitzen ez zen Iparraldearen eraikuntzan parte hartzea. ELBk nekazaritza sindikatua izan nahi zuen, baina ere momentu berean aktore soziala, proiektu politiko global baten zerbitzuko, Euskal Herrian eta harago ere begiratzen zuena! Gauzak globalitatean tratatzea zuen helburua: laborantza eredia Euskal Herrian, eta herri

ELB sortzeak bi
tabu hautsi zituen:
laborantzako
batasunaren mitoa
haustea; eta, Iparraldean,
existitzen ez zen eremu
honetan, sindikatu
bat sortzea

eredua laborantzian. Euskal Herri mailan laborantza antolatu behar zela ez zen dudarik, baina ez edozein laborantza edo sindikalismo bultzatuz: soilik euskal sindikalismoa egitea ez zitzaigun nahiko! Gisa berera, lurraldearekiko lotura organikorik izanen ez zuen sindikalismo alternatiboa eta progresista egitea ez zitzaigun ere aski... Sindikalismo hori lotu nahi genuen Euskal Herriaren errealitate eta eraikuntzari. Ez nazionalismoz edo Euskal Herria beste balioak baino gorago-ko zerbait zelakoan, baina bizi garen lur puska honek 'Euskal Herria' baitu izena, historia bat, berezitasun bat, bizi nahi bat daukana. Beste nonbaitekoak izan bagina, lurralde edo herri hura izanen zen gure inplikazio gunea. Askotan, euskaldunak ez diren batzuek esaten didatelarik guk euskaldunek badugula suertea gure nortasuna, gure kultura ukaiteko, eta horrek ematen digula berek ez dituzten, edo galdu dituzten aukerak, esaten diet herrialde guziek badituztela aukerak, guziek badutela nortasun bat, historia bat, kultura bat ikertu eta balorizatu behar dena. Esaten diet modernitatearen ize-
nean askotan balio horiek zaharkituak kontsideratu direla eta zakarrontzira bota... Esaten diet ere proiektu progresista baten izenean pentsatu dela 'lokalismo' hori guztia unibertsalismoaren aurka zihoala, eta beraz baztertu behar zela...

Laborari gara, 'Euskal Herria' izena duen planeta honetako puntu ttipi batean

Gorago esan dut ELBrekin marraztera gindoazen bide berri horrek uztartu nahi zituela herrigintza, laborantza, eta eredua. Baina hori kokatu behar zen ere testuinguru politiko eta sozial batean, historia batean, errealitate kultural eta ideologiko batean... Horretarako, 1984an ELBk atera zuen oinarritzko testu garrantzitsu bat, geroztik eta orain arte izan dena ELBren DNA. Testu horrek dena borobiltzen zuen:

Laborariok, pertsona guztiek bezala, bizi dugu errealitate sozial, ekonomiko, kultural eta politiko bat [...] Laborari gara, Euskal Herria izena duen planeta honetako puntu ttipi batean...

Definizio horrek hiru errealitate biltzen zituen:

- Laborari gara. Hemen aztertzen zen errealitate soziala, sistema ekonomikoak inposatzen duen zapalkuntza, laborari ttiki eta ertainei lehentasuna ematea lurra, kapitala edo diru laguntzak banatzean.
- Laborari gara Euskal Herrian. Badugu historia bat, hizkuntza bat, populu bat osatzen dugulako sentimendua. Euskal Herria zatitua eta itoa da zentralistak diren bi estatuengatik. Borrokatuko gara Iparraldeak izan dezan bere koadro instituzionala, batez ere laborantza munduan.
- Munduko partaide gara. Hemen aztertzen zen herri aberats eta pobreen arteko desoreka eta esplotazioa. Laborantza problematika horren erdian da: inportazio edo esportazio politikak ez dira neutroak; ezta ekoizteko sistemak ere... Horiek guztiak galdekatzen ditu sindikatuaren norabideak...

Testuak analizatzen zuen gero gizartearen pentsamoldea taxutzen duen ideologia dominatzailea, kontserbatismoa, espirituen menpekotasuna, notabilismoa...

Panorama orokor horretan, ELBk bere estrategia argitara ematen zuen: laborariekin, laborarien errealitatetik abiatuz, eguneroko lanean, laborarien eskubideak zaintzea, ahulnari lehentasuna emanez, Iparraldeko laborantza kudeatzeko tresnak eskatuz, laborantza iraunkorra eta gizartearekiko harremanak garatuz. Sindikatuak azpimarratzen zuen ere bere proiektu soziala eta politikoa talde politikoetatik independentzia osoan eraman nahi zuela, berak definitu martxan eta abiaduran, estrategia bortitzak baztertuz.

2003an hogeitun urteak ospatu zituelarik, ELBk bertze oinarritzko testu bat plazaratu zuen, alor sindikala aztertu ondoan, testuinguru politiko berriari buruz bere ikuspegia emanez:

Gaurko egoera politikoa kontuan hartuz, ELBk sustengatzen du Euskal Herriko departamendu baten eraikuntza. Denbora berean, beste egitura eta batasun batzuekin galdegiten du Euskal Herriko berezko unibertsitate bat, euskararen ofizialtasuna eta Euskal Herriko Laborantza Ganbera [...] Hegoaldeko gatazka

politikoari begira, ELBk izenpetu zituen Lizarra-Garaziko hiztarmenak. Orain ere, bere ahalen arabera, alderdi politikoetatik independentzia osoan jokatu, sindikatuak sustengatzen ditu bakea bilatzen eta bortizkeria guztiak baztertzen dituzten iniziatibak [...] ELBk galdegiten du espainol eta frantses gobernuari euskal preso politikoen hurbiltzea izan dadin lehen seinale bat, erakutsiko duena gatazka hori nahi dutela konpondu.

Herrigintza ez da bakarrik Euskal Herriari buruzko gai politikoak tratatzea

Testu horiek, eta hemen agertzen ez ditugun beste batzuek, erakusten dute ongi ELB herrigintzan inplikatzeko dela eta onesten duela. Frogatzen du ere, nonbait, bortxaketarik gabe gauzak esplikatzen direlarik bere gehiengoan gai horiek partekatzen ez dituen jendea, hori prest dela entzuteko, edo, guttienez ez duela trabarik ezartzen sindikatuaren beste oinarriko mezu sindikala entzuteko. Baina herrigintza ez da bakarrik Euskal Herriari buruzko gai politikoak tratatzea. Herrigintza da ere Euskal Herriari gorputza ematea. Laborantzari doakionez, gorputza da laborantza eredu, ekoizteko sistemak moldatzen duen paisaia, jendeen arteko

harreman sozialak, eta abar. Adibidez, ez da herri bera lurrari eta lurraldeari lotua den laborantza egiten duen herria, edo industrializatua eta artifizializatua den laborantza egiten duen herria. Ez da herri bera bere lurra zaintzen duen herria edo osoki espekulazioa nagusitzera uzten duen herria. Ez da herri bera elikadura

burujabetza antolatzen duen Herria edo elikaduraren merkaturia agroindustriari abandonatzen duen herria... Batean ala bestean, guztia diferentea da.

ELB saiatu da pragmatismoa eta erradikaltasuna uztartzen, horrek suposa lezakeen konplexutasunarekin. Jakin du ere

Herrigintza ez da bakarrik Euskal Herriari buruzko gai politikoak tratatzea. Herrigintza da ere Euskal Herriari gorputza ematea.

konplexutasun hori esplikatzen, ebidente bailitzan presentatzen. Hona hemen konplexutasun horren alde batzuk:

- ELBk egin du hautua Iparraldean antolatzeko, Euskal Herria delakoan bere eremua, baina ez du bere inplikazioa hemen mugatu... Ez da kontradikziorik Euskal Herri bezala antolatzea, hori delakoan eraiki nahi den espazioa, eta beste guneetan lan egitea, gune horiek direlakoan laborantza kudeatzen duten guneak. Horregatik, Pyrénées Atlantiques departamenduan inplikatu da sindikatuak; berdin, frantziar estatuan Confédération Paysanne sindikatuari batua da, beste herrialdeekin esperientzia eta borroka partekatzeko. Lokala eta globala batu behar dira: batek bestea gabe balio guztia galtzen du.
- ELBren oinarria laborantza da, bere legitimitatea hor du! Baina bi bide oker hauekin kontuz ibili behar da: gizarte guztia ados bada garatu nahi den laborantza eredu batekin, baina laborariak ez badute hori partekatzen, dena huts egiten da! Beste aldetik, gizarteak errefusatzeko badu laborariekin garatu nahi den laborantza eredu, dena huts egiten da ere! Adostasun organikoa behar da laborantza eta gizartearen artean, laborariak izan behar dutelarik aktore zentralak...
- Euskal herritarrak gara, baina mundutarrak ere. Ez gitezke bat izan, bestea izan gabe! Batean jokatzeko dugun manerak du definitzen bestean nolakoak garen. Bizi pribatua bezala, hala da laborantzan ere. Esaten dugu askotan mundu zabaleko laborarietan ez direla bi kategoria: gu eta besteak; denak 'gu' edo 'besteak' garelak. Lokalean aplikatzen den laborantzak badu zerikusirik zuzena munduko beste puntako laborariekin.
- Azken puntu bat gorago aipatu konplexutasun hori ilustratzen duena. Eraiki nahi dugun laborantza bi terreno nagusiek baldintzatzen dute. Batetik, eremu sindikala: hemen lan politikoa egiten da, koadroak aldatzeko, eskubideak zaintzeko edo lortzeko... Eta, bestetik, garapeneren eremua: hemen aterabide konkretuak bilatzen dira,

gaurko koadroaren barruan, esan nahi baita aldatu nahi den sistemaren barruan. Erronka hauxe da: garapenaren eremu horretan, nola asmatu momentuko aterabideak, aldi berean nahi dugun beste sistemaren aurre ikuspegi izanen direnak... Euskal Herriko Laborantza Ganberak, garapenaren eremuan berezitua baina proiektu politiko argia daukanak, erronka horri erantzun behar du.

Departamenduko erabaki guneetan ELB eta Euskal Herriko laborantza ukatua

Gorago aipatu puntu horiek guziek egiten dute ELBren identitatea eta bide orria. Elementu horiek guziek bat egiten dute: hori da sindikalgintzan inplikatu den ELB, Euskal Herrian laborariekin, eta botere guneetan, batez ere Pauen, Departamenduko hiri nagusian, non laborantzako erabakiak hartzen diren. Paueko bi erabaki guneak dira: administrazioak nekazarien ordezkariekin osatu komisioak (nekazarien dossier indibidualak eta Europako nekazaritza politikaren aplikazioa hor erabakitzen dira), eta laborantza-ganbera egitura publikoa: horrek laborantzaren garapena antolatzen du eta laborantza mundua ordezkatzeko botere publikoen aurrean. Departamenduko botere gune horietara, ELBk Euskal Herriko laborantzari buruzko ikuspegiak, analisiak, proposamenak ekarri ditu, gai guzietan: mendia, hazkuntza, lurra, nekazaritza politika, arlo soziala, ekoizteko ereduak, Iparraldearen ezagutza, gazteen instalazioa... Gai guztietan esplikatu du bere proposamenen garrantzia nekazariarentzat, gizartearentzat, lurraldearentzat. Gai guzietan errefusatu izan zaio eskatzen zuena, mespretxuarekin, demagogia hutsez, korporatibismo hutsez... Euskal Herriatik heldu ziren ideia guziak ideia txarrak ziren, arriskugarriak, nazionalismoaren susmoz beteak!... Laborantzako beste eredu baten izenean heldu ziren ikuspegiak ere ez ziren onargarriak: laborantzaren eredu ofiziala zalantzan ezar lezakeen analisi edo proposamenik ez zitekeen onartu! Frantzian, laborantzaren eredu dominatzailea

inposatzen dutenek sinetsarazi nahi dute eredu bakar bat dela posible, beren eredua: laborantza intentsiboa eta industria-la. Nahi dute sinetsarazi laborantza hori dela lehiakorrena. Horrenbestez, ez dute beste ereduei espaziorik utzi nahi. Ito behar dira, edo, bederen, espazio hertsia batean mugatu!...

Euskal Herriko Laborantza Ganbera sortzeko legitimitatea

Urteak eta urteak iragan ditugu Paueko boterearekin gatazkan. Batez ere, Paueko Laborantza Ganberarekiko gatazka jasanezina bilakatu zen, parean laborariak kudeatzen duten egitura baitzegoen. Hortik atera zen segurtamena gune hori ez zela gure gunea, gure gunea Euskal Herria zela. ELB-ren hasierako posizio teoriko hura konkretua eta frogatua bihurtu zen. Errazago zen nekazariei esplikatzea zergatik Paue ez zen gure lekua, zergatik Euskal Herrian behar genituen gure erabaki guneak, zergatik beharrezkoa zen eskatzea eta borrokatzea Euskal Herriko koadro instituzional baten alde, eta, lehenik, Euskal Herriko Laborantza Ganbera baten alde. Errazago zen ere esplikatzea hautetsi eta gizarte osoari gure tresnak behar genituela Iparraldean gure laborantza berezia eta kalitatezkoa defenditzeko, laboraria, kontsumitzailea eta natura errespetatuko dituen laborantza iraunkorrari bultzada emateko. Esan liteke pragmatismoak eraman gaituela erradikaltasunera (azpimarratzen dut berriro: bortizkeriarik gabeko erradikaltasunera!): inplikatu gara gureak ez ziren erabaki guneetan, besteek kontrolatzen zituzten erabaki guneetan, eta horko esperientziak eman

Pragmatismoak eraman gaitu erradikaltasunera: inplikatu gara gureak ez ziren erabaki guneetan, eta horko esperientziak eman digu legitimitatea gune horietatik atera eta beste pauso bat emateko Euskal Herrian

digu legitimitatea gune horietatik ateratzeko eta beste pauso bat emateko Euskal Herrian. Hasieratik gureak ez ziren gune horiek boikotatu bagenitu, jende gutik ulertuko zuen gure estrategia... Esan liteke, beraz, gure eskakizunak ukatu zituztenek dutela legitimitatea eman gure borrokei Euskal Herriko Laborantza Ganbera eskatzeko! Urte luzeetan eman kanpainaren ondotik, ikusi zen mobilizazioa goi mailara heldua zela, eta ez zuela luzaz hola irauten ahal. ELBk, ez ohizko biltzar nagusi berezi batean, 2004ko urtarrilean, erabaki zuen urte baten buruan Euskal Herriko Laborantza Ganbera sortzea, estatuak ez bazuen hori sortzen.

Erabaki pisua zen. Ez zen apustu joko bat panorama animatzeko! Bagenuen segurtamena ziklo baten bukaera zela, eta ez bazen hor pauso bat ematen, sinesgarritasun guztia galtzen ahal genuela. Erabaki hori hartu ahal izan dugu, sentitzen baikenuen horretarako ahala eta indarra. Aspaldiko urteetako lanak erroak barna zituen; defenditzen genuen laborantza iraunkorrak bildua zuen arrakasta gizarte osoan, eta horrek ahalbidetu du egiazko mugimendu soziala osatzea. Laborariek eta beste herritarrek osatu mugimendu sozial hori martxan jarri zen. Bakoitzak bazuen arrazoi bat mugimenduan sartzeko: batzuentzat laborantza iraunkorrari tresna berri bat ematea zen; beste batzuentzat, hurbileko tresna bat sortzea; beste batzuentzat, Iparraldeari lehen koadro instituzional bat ematea; eta, beste batzuentzat oraino, estatuarekiko sokatiran sartzeari edo, sinpleki, borroka kolektibo batean parte hartzea. Borroka bat irabazteko ez da eskatu behar partaide guztiei arrazoi berdinentzat borrokatzea: helburu ezberdinak dituztenak bide zati batean elkartzen ahal dira... Horrek ahalbidetzen du elkarren ezagutza, konplizitatea ere, eta, zergatik ez, beste bide zati batzuk elkarrekin egiteko posibilitatea... Jakin izan dugu ere gure gaia zabaltzen Euskal Herriatik kanpo, frantziar estatuan ezagunak diren aktore edo pertsonalitate progresistei: sindikatu, giza-eskubide elkarte, kazetari, arduradun politiko, militante ezagun eta abarrei... Helburua zen esplikatzea Euskal Herriko Laborantza Ganberaren afera

ez zela lokalismo edo korporatibismo batean kokatu behar. Printzipio unibertsalen gauzatze lokal eta konkretu bat zela; gu animatzen gaituzten printzipioak eta haiek beren inplikazioetan gauzatu nahi dituztenak unibertsalismo berean oinarritzen direla. Oso garrantzitsua izan da ariketa hori, zubiak eraiki baititugu besteen artean. Euskaldunek badugu anitz irabazteko hor...

Euskal Herriko Laborantza Ganbera sortu zen, beraz, 2005eko urtarrilaren 15ean. Lehen bortsu urteetan erasoak jasan behar izan ditugu. Horietan gehienik oihartzun izan duena gure elkarte ilegalizatzeko prozedura zen, baina ukan ditugu ere beste auzi asko... Horrez gain, administrazioak debekatua zuen bere langile guztiei gurekin harremanak izatea. Administrazioak ez ziren batzuek ere autozentsura aplikatzen zuten gurekin erlazioz ez agertzeko. Ahal genuen moduan gure lana segitu dugu, erakutsiz egiten genuena beharrezkoa zela. Gure estrategia zen: «Pasatzen den egun bakoitzak gure alde izan behar du! Pasatzen den egun bakoitzak zailtasun gehiago eman behar dio estatuari gure desagerrarazteko!». Izan dugu sostengu azkarra Euskal Herriatik ala kanpotik, gure desmartzaren legitimitatea eta defentsa juridiko perfektua: guztia behar zen, eta izan dugu guztia: estatuarekiko desafio eta auzi guztiak irabazi genituen!

Euskal Herriko Laborantza Ganbera, erreferente... baina ez oraindik egitura publiko

Euskal Herriko Laborantza Ganberak oihartzun izugarria izan zuen. Lehen egunetik buru-belarri lanari lotu zen frogatzeko egitura hori beharrezkoa zela laborarientzat eta lurraldearentzat. Kalitatezko lana egin du, gai zailak eta sentsibleak bere gain hartuz: bioaniztasuna, uraren kalitatea, ekoizteko ereduak... ELB sindikatuak sortu zuen Laborantza Ganbera, baina berari hurbiltzen diren laborariak ez dira bakarrik ELBn afiliatuak, haratago doa... Euskal Herriko Laborantza Ganbera erreferente bilakatu da Iparraldean laborarientzat,

baina ere partaide publiko eta pribatu gehienentzat. Hala ere, hasierako partida ez da osoki irabazia: ez da Euskal Herriko Laborantza Ganbera egitura publiko ofizialik, gurea elkarre bat da oraindik... Baina gure borroka ekarpen inportante bat izan da Iparraldearen kontzientzian, koadro instituzional baten eskaera ontzen lagundu du... Iparraldearen instituzioa etorriko da, ez da dudarik! Laborantzak hor izanen du bere koadroa, eta gure elkarteak ere biharko arkitektura horretan aurkitu beharko du bere lekua! Euskal Herriaren eraikuntzan, bakoitzak bere pausoa egitea, bere terrenotik abiatuz, hori da...

Hegoaldearekin harremanak. Euskal Herri osoko sindikatu egitasmoaz

Bukatzeko, aipatu behar dut Hegoaldeko nekazaritza sindikatuekin diren harremanak. Harreman horiek hasieratik izan dira. Gogoan dut elkar trukatzeko hasi ginela 70eko hamarkada

Batzuek pentsatzen
dute Euskal Herri
osoko nekazaritza
sindikatu bakarra
behar litekeela.
Zaila ikusten dut
Hegoaldean lortzen
ez dena Euskal Herri
osoan lortzea...

da bukaeran: EHNE sortua zen eta ELB ez oraindik. Orduan ezagutu nuen Kepa Enbeita. Bera ez daiteke oroit, baina nik gogoan dut! Anekdotak bezala, gogoan dut militantziaz ari izan ginela, bere egun luzeak aipatzen zituelarik, goizean goiz hasi eta arratsetan berandu bukatu... «Eta lo egin, noiz?», galdetu genion, eta bere erantzuna: «Lo egitea denbora galtzea da!». Hala ere noizbait lo egin duke, ikusten dudalarik oraindik urtean sei-zazpi

aldiz Etxalde mugimenduaren bilkuratan, kasik laurogei urterekin, Kepa, beti burua argi eta espiritua zorrotz...

Harreman sindikaletara etortzeko, egia esan, fluktuazioak ezagutu dituzte. Izan ditugu harremanak Hegoaldeko lau EHNE sindikatuen konfederazioarekin, lurralde bakoitzeko

sindikatuekin, batzuetan formalizatuak eta bestetan ez, eta batzuekin orain guti edo batere ez... Gauza jakina da EHNE sindikatua ez dela formarik hoberenean, eztabaida edo gatazka giroa badagoela... Zerikusirik baduke horrek Hegoaldeko nekazaritza orokorraren eboluzioarekin... Ez dut hain segur hori ongi ezagutzen, baina ezagutzen dudanak ez dit optimismo asko ematen. Sekulako bipolarizazioa ikusten dut: intentsifikazioa eta industrializazioa, alde batetik; eta laborantza lokala, ekologikoa, salmenta zuzenean, beste aldetik... Klasifikazio sinpleegia izan daiteke agian, eta ez daitezke baserriak oro bi kategoria horietan sar, baina argazki nagusia hor da... Iparraldean ere bi polo horiek baditugu, baina laborari gehienak bi polo horien tartean dira, eta horiei buruz lan egiten dugu batez ere.

Gaur egun mugaz bi aldeetan ditugun harreman zuzenak Etxalde mugimenduan ditugu. Hori ez da sindikatu bat. Laborantza munduko mugimendu sozial bat da, elikadura burujabetzan eta nekazaritza iraunkorrean oinarritzen dena, eta Euskal Herri osoan bere presentzia gauzatu nahi lukeena. Batzuek pentsatzen dute Euskal Herri osoko nekazaritza sindikatu bakarra behar litekeela. Zaila ikusten dut Hegoaldean lortzen ez dena Euskal Herri osoan lortzea...

Nik ez dakit EHNEko jendearen, EHNE utzi dutenen, Etxalderen eta ELBren artean gehiengo zabal bat adosten ahal litekeen oinarrizko puntu batzuen inguruan: adibidez, nekazaritza politiken eta nekazaritza ereduaren inguruan. Nekez ikusten dut gaur hori posible; beraz, sindikatu bakarra egoera horretan nekez ikusten dut ere. Gainera, ikusiz ez dagoela Euskal Herri osoko botere publikorik, beraz ez dagoela interlokutore bakar bat, pentsatzen dut gaurko egoerak iraunen duela oraindik... Horrek ez du kentzen aktualitatearen arabera, puntualki, gai batzuetan, elkar ikustea eta ere lan bat egitea... Hori jakin dugu lehenago egiten... 🍷

EGUNEN GURPILEAN

105 Kultura

Komikigintza: ezinbesteko elkarlanean
hazten dena
Ez dira atzo goizekoak
Black Is Beltza
Nagore Amondarain

111 Ekonomia

Obamaren itzala
Energia kutsagarriaren mendekua
Deflazioaren aurkako doaneko euroak
Mundu mailako estrategien arteko
borroka
Azti juridiko eta finantzarioen peko
euskal ekonomia
Henrike Galarza

118 Soziolinguistika

Hirugarren ontzia
Gorputzaren erretagoardiak arakatu
Erabilera arauak aldatzen ari dira
Txerra Rodriguez

124 Telepolis

Tesla mugikorrean
Partaidetza eta teknologia
Zientzia-fikziozko asmakizunak
Gorka Julio



Komikigintza: ezinbesteko elkarlanean hazten dena

Asko dira komikiak toki duin bat merezi duela esaten duten hotsak, aspaldikoak dira komikiaren aldarria egiten duten irakurle eta sortzaileak. Sakon ari da entzuten aldarri hori azkenaldian, sartu barik, urte hasiera honetan, umore grafi-koaren inguruan egondako gertakarietan eta hortik eratorri den kalapita guztian. Komikiaren generoaren defentsa egiten dutenek ez dut uste txikitako superheroien nostalgiatik hitz egiten dutenik. Komikia ez delako haurtzaroko denbora-pasa bat bakarrik, hori baino zerbait gehiago baita komikia egun. Hori baino gehiago izan delako komikia gure artean eta, zer esanik ez, beste kulturetan, genero hau indartsu duten Frantzia edo Japoniako kulturetan, adibidez.

Irudiek hitza hartzen duten unea da komikiarena, eta, hortik, esan dezakegu derrigorrezko elkarlana behar duela izan komikiak, marrazkilari eta idazlearen artekoa, behinik behin. Azkenaldiko joerak gutxienez bi buru jartzen ditu egitasmo baten inguruan lanean. Baina, dimentsio handiak dituen elkarlan bat aurkeztuko dut, bai kideen kopuruaren aldetik, bai egitasmoaren dimentsioaren aldetik. *Buyan*-ek, oraindik sortze prozesuan den komikiak, bost buru biltzen ditu. Elkarlan luze baten emaitza izango delakoan nago *Buyan*. 2012tik ari dira egitasmo honetan lanean, bost albumetan argitaratzeko asmoa dute eta gaur-gaurkoz bukatzeaz dute aurreneko komiki albuma.

Bost kidek osatzen duten egitasmo honen elkarlana bitxia da. 2012. urtean, Martin eta Xabier Etxeberria idazle zarauztarregana hurbildu zen Aritz Trueba, animazioan eskarmentua duen donostiarra, ea ilustratu beharreko lanik

zuten esku artean galdetuz. Orduko sasoian, izurrite batekin loturiko istorio bat zuten buruan Etxeberria anaiek, ipuin eslaviarren giroan kokaturikoa. Ipuin bat sortu eta berori ilustratzea baino, komiki bat sortzea erabaki zuten hiruren artean. Generoan esperientzia zuen Jon Mikel Udakiolari eskatu zioten laguntza, eta taldekide bilakatu zen bat-batean. Udakiola komikigintzan eta ilustrazioan ibilbide luzeko sortzailea dugu, eta berori integratu zuten taldean, aholkulari moduan, gidoitik eszenetarako bidea gidatzeko asmoarekin. Bost album sortzearen erronka gutxi ez, eta multimedia txertatu nahi izan diote egitasmoari; horretarako, Josu Igoa beratarra sartu zuten taldean. Azken horrek badu esperientzia antzeko zereginetan, *Josevisky* komikigileari ere multimedia proiektuetan lagundu baitio. Paperetik harago doa, beraz, *Buyan* komikia. Bost kideak Ikastolen Elkarteko bulegoetan lankide zirela abiatu zen egitasmoa, eta lanorduetatik kanpo mamitu, lanean bakoitzak bere zereginak baititu. Kasu batzuetan, generoarekin loturarik bako zereginetan, dela ekonomia, dela egoitzaren mantenu lanak...

Gertaera historikoak oinarri dituen komikia izango da *Buyan*. Batu Khan pertsonaia historikoa agertuko zaigu, mongoliarrak Europara hedatzen hasten direneko garaia azalaraziz eta gurutzaden giroarekin nahastuz. Mansi beraien pertsonaia nagusiak egingo duen bidaia kontatuko da bost albumetan, bukaerakoan Puyan irlara iritsiko delarik, arkadia baten antzeko lurralde bat izango dena.

Narrazioaren abiadura biñetetan sartzean eztabaida luzeak izan dituzte, biñeten kopuruak, beraien aniztasuna, perspektiba edo adierazpenen ingurukoak. Taldeko eztabaidak izaten dira guztiak, ekarpen guztiek dute zeresana beraz komikien sortze prozesuan, nahiz eta bakoitzak gero bere arloari ekin. Udakiolaren etxeko sotoa izan dute lantoki; bertako paretetan biñetak itsatsi eta paperaren gainean aldaketak eginez hasi ziren. Taldean IKTetan aditua den Josu Igoa kidea izanik, lanerako aplikazio bat sortu eta berorren gainean egiten dituzte ekarpen eta aldaketak, egun.

Euskal Herrian komikiari begira sorturiko argialetxeak bakanak dira; Astiberri izan daiteke aipagarriena, edo *Xabiroi* egiten ari den apustua azkenaldian. Lanaren aurreneko albuma bukatzeaz duten honetan, argialetxeen atak jotzekotan dago boskotea. Ea laster dugun *Buyan*-en berri.

Ez dira atzo goizekoak

Esan bezala, derrigorrezko elkarlana behar du izan komikiak, hitzen eta irudien artekoa. Baina, sarritan, esku beretik etor daitezke, eta esan daiteke euskal komikiaren sorreretan esku bakarretik etorri zirela irudiak eta hitzak. Gurean ez da genero berria, ez da gure txikitako mundu mailako superheroien itzulpenetik eta imitaziotik etorri den generoa. Arrastoak urrutiagokoak ditu. Bitoriano Iraola donostiarra izan zen euskal komikiaren hastapenekin hasi zena XIX. mendean. Berorrek sortu zuen *El Thun Thun* (1894) astekaria. Inprenta baten jabe zen Donostian, eta, lan horretaz gain, marrazki, karikatura eta komikien egile ere bazen. Satira eta umorea oinarri zuten aldizkarien garaia hasi zen orduan.

Eta prentsan jaio zen generoa izanik komikia, euskarri horretan joango zen indarra hartuz eta haziz: *Euzko Deia*-n (1918), *Argia* aldizkarian 1921etik aurrera edo *Euzko* aldizkarian (1932-1934). XX. mendearen aurreneko urteetan kazetari grafiko funtzioa hartu zuten hainbat marrazkilarik, satira eta umorearen bidetik nazionalismoaren zabalkundea baitzuten helburu.

70eko hamarkadan abiatuko da komiki modernoa, haur eta gazteenei begira sortu baitziren *Kili-Kili* eta *Ipurbeltz* aldizkariak. 80ko hamarkadan alfabetatzen ari zirentzako *Habeko Mik* komikiak sortu ziren. Eta handik gutxira abiatu ziren umorea eta komikiak oinarri zituzten aldizkariak: *Euskadi Sioux* (1979) eta *Napartheid* (1988). Kritikaren asmoz marrazten zen, eraldaketa sozialaren garaiak baitziren, trantsizio politiko eta kulturala urratzen ari zenekoa.

Antton Olariaga dugu *Euskadi Sioux*-en euskaraz argitaratzen zuen komikigile bakarra. Hirurogeita hamarreko bukaeraren sortu zuen Zakilixut pertsonaia, eta ordutik dabil eguneroko bizia hartzen, dibertsioa eta iritzia nahasian datoz bere tirtetan. Baina abangoardiaren haize berriak Bilbo iraultzen duen unetik, ezin dugu aipatu barik utzi Juan Carlos Eguillor. Bai Zakilixut, bai Mari Agirre (Juan Carlos Eguillorren pertsonaia) komiki tira bakarrean elkartu zituen Olariagak *Euskadi Sioux* aldizkarian, adibidez. Zakilixut Mari Agirre pertsonaiarekin ari da ametsetan komiki tira horretan. Eguillor, denbora luzez Bilbon kokatu zen artista grafiko donostiarra, gure iruditerian ageri diren lan askoren egile izan zen; egile izateaz gain, beste sortzaile askoren akuilu lanetan ibili zen izenetako bat da. Berorren Bilboko etxea izan zen garairako abangoardiaren epizentroa, *Euskadi Sioux* aldizkariaren inguruan bildu ziren modernitatearen irudiak eta hitzak, Vicente Ameztoy, Bernardo Atxaga, Antton Olariaga eta Juan Carlos Eguillor sorkuntza lanetan, besteak beste.

Napartheid Nafarroan sortu zen kolektibo bat izan genuen, eta izen bereko fanzinea argitaratu zuten 1986ko Euskararen Foru Legearen aurka egiteko. Asisko Urmenetak eman zion abizena Napartheid izan zen hari, «Soweto? Euskal Herrian baino hobeto!» leloarekin. Asisko Urmeneta eta Patxi Huarte *Zaldieroa* bezalako marrazkilariek osatzen zuten kolektiboa.

Aipatzekoa da *Etxebeltzkeriak* (Gatuzain, 1999) liburua: John Etxebeltz marrazkilaria 1975etik 1999ra *Enbata* aldizkarian argitaraturiko komiki tira guztiak biltzen dituen liburua. Franco hil ostetik, astero argitaraturiko eta gaurkotasunarekin loturiko marrazkiak dira guztiak, umorearekin batera kritika soziala helburu dutenak.

Baina, argitalpen horiez gain, euskarri ugaritan ari zen agertzen komikia. 70eko eta 80ko hamarkadan ez zen komikiaz hitz egiten, baina komikia baliatzen zen, fanzine askotan, irudien bidez berba egiteko. Eta zelan ez, komikia erabiltzen zen musikaz ere berba egiteko. Rockak eta komikiak, aipaturiko hamarkada horietan, izan zuten harremana zelakoa

izan zen adierazteko erakusketa bat antolatu da Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean. *Rockomikiak. Biñetak & Doi-nuak* izeneko erakusketa abenduaren 17tik urtarrilaren 31ra arte egon da erakusgai.

Black Is Beltza

‘Euskal kultura garaikidea mundu mailako komikietan’. Goi-buru hori du *Rockomikiak* erakusketan *Black Is Beltza* komikiari eskaintzen zaion panelak. Urte luzez, komikia bigarren mailako artetzat jo da, eta Fermin Muguruzak, beste behin ere, jakin du une egokian agertzen. Komikiari zentralitatea eman dio, eta, horrez gain, euskal kultura garaikidea Bilbo-ko zentrora eraman du, Alondegira, hain zuzen. Elementu desberdinak elkarren parean jarri ostean, komikiaren loral-di berri batez zalantza egiten du jendeak, dagoeneko. Jorge Alderete, Harkaitz Cano eta Fermin Muguruzak osatu dute komiki liburua, baina erakusketa liburutik harago doa: solaslaldi musikatuak, nerabeentzako jarduera-didaktikoak, hitzaldiak, sukaldaritza saioak, hainbat artisten *master class*-ak eta erakusketaren bisita bera. Hainbat diziplina eta belaunaldi elkartu ditu erakusketak.

Liburuaren aurkezpenean, oso ondo adierazi zuen Harkaitz Canok zer zen beretzat komikia: «komikia da zinema perfektua». Bere esanetan, pelikula bateko eszena batean 1.000 estra behar badituzu eta ez bada bideragarri, komikian 1.000 estra jar ditzakezu. Nahi den oro, %100ean, sar daiteke biñetetan, gidoigile eta marrazkilariaren adostasunarekin, zelan ez. Komikia eta zinema elkartuz, honako beste hau ere esana du Canok: «gure artean komiki gehiago balego, askoz ere tradizio zinematografiko handiagoa izango genuke, agian».

Fermin Muguruzak berak «gure bonba hedakorra» bezala izendatu zuen proiektua komikiaren aurkezpenean, liburua baino zerbait gehiago baita duela bost urte pentsaturiko hura. Komikia bera gaztelera, frantses, katalan eta gaztelera

mexikarrera itzuli da. 1965ean Iruñeko erraldoiek New Yorkera egindako bidaian oinarritzen da istorioa, erraldoi beltzei desfilatzeko debekutik abiatutako trama.

Loturak lotura, edo Muguruzaren bonda hedakorrak eraginda agian, iritsi da azken berria: Katakarak-ek komikien irakurle taldea antolatu du, Iruñean. Euskara ikasten ari den jendeari zuzenduriko egitasmoa izango da, komikia izango baita euskara praktikatzeko makulu, berorren erabilera eta adierazpen anitzekin. Proposatu dituzten bost irakurgaietatik, aurrenekoa eta azkena euskaldun berriak diren bi egilerenak izango dira, aurretik aipatuak ere biak: Patxi Huarte *Zaldieroa* eta Fermin Muguruza. *De Rerum Natura 5* (Elkar, 2013) eta aipatu berri dudana *Black Is Beltza* (Talka, 2014) bonba hedakorra izango dira irakurgaiok. Baina lotura guztiek dute zentzua, Katakraken kokatzen dugu egun Hedoi Etxarte idazlea, *Ihes ederra* (Alberdania, 1999) komiki ederra sortu zuena. Beraz, ondo harilkaturiko gertaeren segida batekin uler daiteke irakurle talde horren sorrera. Alain Urrutiaren irudiekin osaturiko komiki horrek izan zitekeen Euskal Herri batera garamatza, Frantziaren menpeko Euskal Herri oso bat, ukronia bat. Erreferentzia eta keinu metaliterario askorekin osaturiko komikia, entzuteko, irakurtzeko zein dokumentatzeko gidekin osaturikoa da *Ihes ederra*. Sasoi hartan, lurrikara txiki bat izan ziren Urrutia eta Etxarte, Joanes Apaolaza protagonistari bizia eman baitzioten Twitterren eta izen horrekin, gaurko egunean oraindik, ikusgai dagoen blogean.

Komikiari buruz hitz egitean, mugimendu ikusezinaz ari garela? Ez nuke esango, badago zer irakurri eta zeri buruz berba egin; formatuaren moldagarritasunetik, berori irakurtzeko bideak arakatzetik eta liburuak eskuz esku erabiltzetik ari da argia hartzen komikia. 📖



Obamaren itzala

Munduan zehar gauza asko aldatu da azken hilabeteotan... dena berdin egonarazteko ote? Amerikako Estatu Batuetan, legegintzaldiaren erdiko hauteskundeetako alderdi errepublikarraren garaipenak Obama lehendakariaren alderdi demokratari bi kameretan erabateko gehiengoak kendu dio, *lame duck* (ahate herrena, bere agintaldia amaitzen ari den eta hauteskundeak galdu dituen politikaria) izendapenaren esanahia bertze behin berretsiz. Paradoxalki, bere azkenaurreko urte politikorako asmo deigarriak aurkeztu berri ditu, zerga erreforma edo Kubarekiko ekimen ausartak, bertzeak bertze. Zailtasunen aurrean eroso aritzeko ohitura izan arren, ikustekoa da emaitza politiko zehatzak lortzeko behar diren indar eta trebetasun politikoak bilduko lituzketen, bai Obamak bai bere administrazioak, eskuin populistaren artean.

Bizkitartean, *Yes, we can* erabilitako leloa AEBetatik kanpo barnean baino askoz sakonago txertatu delakoan gaude. Estatu espainoleko Podemos alderdi politiko berrian edo Grezian boterera iritsi berri den Syriza koalizioan Atlantikoaz bertzaldetik ekarritako gogo, aritzeko manera eta asmoak erraz atzeman daitezke. Hala ere, pixka bat hegoalderago, Saharako independentisten kanpamenduen bonbaketatik –2010. urtearen amaieran Marokoko armadak egindako sarraski krudel bezain ahaztua– Siriako altxamenduraino, udaberri arabiarrek piztutako askatasun sugarra jende xumearen odolez itzalduz joan da, gerra egoera edonon ezarriz. Erakunde terroristen mehatxuez gain, erregimen zaharreko erreakzioak –emir eta sultan jakin batzuen lotsagabeko la-guntzaz– etengabe ari dira hasierako lorpenak ezabatzen.

Egipton, erraterako, hauteskunde demokratikoetan hautatutako lehendakaria, Morsi jauna, bere postutik kendu eta preso eraman duten bitartean, Mubarak diktadorea kalera atera da, bere konfiantzako oinordeko Al Sisi jenerala lehendakari berria izanik.

Energia kutsagarriaren mendeakua

Tradizionalki, lurralde horietan izaten ziren larrialdi edo ustekabe soziopolitikoek petrolioaren merkatuaren urduritasuna ekartzen zuten, upelen salneurriak igoaraziz. Oraingoan, aldiz, ez da horrelakorik gertatu hiru arrazoi nagusirengatik. Alde batetik, hazkunde ekonomikoaren mantsozte ia orokorra izan da munduan, salbuespenak salbuespen, energiaren eskaria pentsatu baino txikiagoa bilakatuz; bigarrenik, Ipar Dakota, Texas edo Alabama bezalako lekuetan azken urteotan hasitako *shale gas*-en erauzketen eskutik (*fracking* teknika xelebrea erabiliz), energiaren ikuspegitik AEBak ia buruaskiak dira, urte andanaren ondoren petrolio gordinaren esportazioen debekuaren inguruko eztabaida mahai gainean jartzeraino, eta ohikoak diren haien petrolioaren inportazioak nabarmenki jaitsiz; eta, hirugarrenik, Saudi Arabiak haren petrolioaren eskaintza ez murrizteko hartutako erabakia, diotenez, haren merkatuaren zatia ez galtzeko. Horretan eta gainerako politiketan, ez du ematen erresuma horren Salman errege berriak aldaketarik ekarriko lukeenik.

Petrolioaren merkatzearen soka luzean korapiloak ugaltzen ari izan dira, eta ez zorte hutsezko harian. Aditu batzuen iritziz, Venezuela eta Errusia, munduko petrolio esportatzaile nagusietakoak, ongi pentsatutako estrategia batek ditutu helburu. Maduro eta Putin jaunek zuzentzen dituzten gobernuen aurkako neurria omen da merkatze handi hura, gobernu horien diru sarrereren hiru laurdenak baino gehiago petroliotik ateratzen dira eta. Estatu administrazioari kalte eginez, pertsonak ari direla zigortzen pentsa daiteke,

jendearen ezinegona eta deskontentua areagotuz hautu politiko ezberdinak bultzatzeko bidean. Venezuelako egoeraren inguruko ia edozein aukera posibleztat jo genezakeen arren, espero dezagun Bolibartar Iraultzaren jaioterrian bizikidetza eta ongizatea garaile aterako direla. Errusiako frontean, aldiz, Ukrainaren ekialdean dagoeneko gerra egoeran daude. Horren kariaz, Europako Batasunak Errusiari ezarritako zigorrek, bertze batzuetan faltan sumatu dugun azkartasunez erabakita, ez dute ezer konpondu; baina, abagune ekonomiko zein sozial larri honetan, ziurrenik Putin lehendakariaren ospeari ustekabeko mesedea egin diote.

Deflazioaren aurkako doaneko euroak

EURONIA aldean, eurogunean, alegia, Draghi jaunak zuzentzen duen erakundeak, Europako Banku Zentralak (EBZ), bilioi bat euro finantza-erosketak egiteko erabiltzera doala iragarri berri du, orain arte anatema zena 'egia berria' bihurtuz. Finantza aktibo publiko (%80tik %90era) zein pribatu horien erosketen %80 banku zentral nazional bakoitzak egin beharko ditu, era horretan finantza arriskua Europako Banku Zentralen Sistemaren kide guztien artean banatuz, Merkel andreari egindako keinu ezin politikoagoan. AEBetako Erreserba Federala bere QE (*Quantitative Easing*, hitzez hitz, leuntze kuantitatiboa) eteten hasi ondoren, beti ere bilioi bat dolar baino gehiago jaulkirik, Draghi banku gizonak hori bezalako ekintza heterodoxoari ekiteak hausnarketarako bazka ekarri digu. Kanpotik ikusita, aise pentsa daiteke EBZk Erreserba Federalari txanda hartu diola, bere garaian Erreserba Federalak Japoniako Banku Zentral eta Japoniako gobernuari hartu zien moduan. Izan ere, Europako Batasunaren herrien egoera ekonomikoez haratago, jarduera kapitalistaren zikloek ez dute muga nazionalik onartzen, eta halabeharrezko bezain saihestezinak dira. Bigarren Mundu Gerraren osteko mundu bipolarizatua joan den mendeko hirurogeiko hamarkadaren

amaieran hausten hasi bazen ere, 21. mendearen hasieran gertatutakoak Politikan, Ekonomian, jendarteetan, oro har, eredu sozial baten aldaketaren aztarnak bertzerik ez dira. On Karl Marx pentsalariak aurreikusi zuen ildoan, deflazioa da kapitalismoaren gaixotasun kronikoa. Brasil, Errusia, Txina, India eta, neurri apalagoan, Hego Afrika, BRICS izendapenez ezagutu diren herrien taldea, edo European moneta bakararren ezarpena ez ziren inperialismo zaharraren plangintzan: Fukuyamak iragarritako historiaren amaiera ez da izan *rendez vous*-en...

Mundu mailako estrategien arteko borroka

Alderantziz, BRICS herrien eskutik lehia kapitalista areagotuz joan da azken hamarkadetan, Nazioarteko Lan Banaketa berri bat eratzen ari da. Nork, non, nola eta norentzat lan egin erabakitzen ari dira, egunoro, enpresa transnazioaletako zuzendaritza taldeak, mundu mailako plangintzaren bitartez. Ezin ulertu, beraz, Hego Europako herrien kinka ekonomiko larria eraldaketa erraldoi hura kontuan hartu gabe. Munduko baliabideen lau bosten munduko biztanleen bosten batek kontsumitzen du, dugu, hobe erranda. Horren aurrean, Txina edo Indian hazkunde ekonomikoa apaldu bada ere, urteko tasak %6 baino handiagoak dira, nazio horien biztanleriaren erosteko ahalmena hemengoa baino askoz gehiago igoz. Gainera, Txinaren kasuan, hango enpresek atzerrian egindako inbertsioak munduan zehar barreiatu dira, datozen urteetan munduko lehen potentzia ekonomikoa bilakatzeko moduan.

Ikuspegi zabal horretatik, gure inguru hurbileko zailtasun ekonomikoak umiltasunez aztertu behar ditugulakoan gaudede. Izan ere, desberdintasun ekonomikoak benetan desagerarazi nahi badira, indarrean dagoen eredu ekonomikoa errotik aldatzea ezinbertzekoa da. Lanaldiaren laburtzea, kontsumoaren kopuru eta eduki jasangarriak hedatzea, aberastasunaren banaketa justuagoa ezartzea, bertzeak bertze,

krisialdi kapitalista gainditzeko neurri banaezinak direlako, gastu publikoen murrizketa injustuak –austeritatearen ize-
nean egiten ari direnak– ez dira ez egokiak ez eraginkorrak,
aditu kapitalismozaleek etengabe aurkakoa errepikatzen ba-
dute ere. Soldata zuzen eta zeharkakoak (diru publikoarekin
ordaintzen diren laguntzei dagozkienak) jaisteko politikaren
arrakastak dituen ondorio ezin lazgarriagoak jasan ondoren,
orain lan baldintzei buruzko lege-erreformaren eragina da
nagusi. Zabor kontratuak, miseriazko soldatak, lanpostudun
pobreak dira ‘ahalik eta merkeen produzitzea’ helburuaren
izenean ezarrirako ‘egiturazko erreformen’ epe luzeko emai-
tza. Inork ez daki egoera nola hobetu daitekeen, zein jarduera
produktibo sortu behar den, zein herritako bezeroak bilatu
edo nongo hornitzaileekin harremanetan sartu. Ziurtasunik
eza eta etorkizun hurbilarekiko mesfidantzaren peko egoe-
ratik ateratzeko administrazio publikoaren ekimenak inoiz
baino beharrezkoagoak direnean, EBZk iragarritako politika
hedakorrak, nolabaiteko hauspoa izanda ere, ezin ditu hon-
doko aldaketa mundialen ondorioak ezkutatu, are gutxiago
konpondu. Bertzaldetik, euroaren dolarrarekiko truke tasaren
ikuspegitik, EBZk politika berria iragarri ondoren, poliki-po-
liki hasi den moneta europarraren balio galerak jarraituko
duela espero da. Euroguneko herrien ondasun eta zerbitzuen
esportazioak zertxobait erraztuko dira, baina eurotan sale-
rosten diren finantza aktiboak lehen baino merkeagoak ere
izanen dira. Ondorioz, burtsetan enpresa pribatuen arteko
erosketa, xurgatze eta fusioak egiteko aukerak ugai daitezke,
mundu mailako botere ekonomikoaren borroka areagotuz.

Azti juridiko eta finantzarioen peko euskal ekonomia

Ohikoa denez, hauteskunde urtea izanda, estatu espainoleko
ekonomia aurrera egiten ari da, ozta-ozta bada ere. Tekno-
logia eta bikaintasunaz asko mintzatu ondoren, turismoa

aipatzen ari dira arduradun politikoak berpizte ekonomiko espainolaren zutabe. Honela, lehen aipatutako munduko lan banaketa berrian Espainiaren benetako kokapena zehaztea ez da lan makala. Kapitalismoaren ur harrotuetan bizirik irauteko, merkatu-txokoak omen dira bilatu beharrekoak, bezero fidel eta aberatsak helburu. Beharbada, aisialdiarekin lotuta dauden jardueretan dago etorkizuna...

Gure herrira itzuliz, Hego Euskal Herriko ekonomiaren azken urteotako gainbehera ez da gelditu. Esparru pribatuko enpresen itxierak eta, sektore publikoan, lanpostuen desagertpenak egunorokoak ditugu. Lan merkatuaren mota ezberdinetako estatistikak gorabehera, lanpostudunen kopurua duela zazpi urtekoa baino txikiagoa da oraindik, eta sortzen ari diren lanpostu berriak, zerbitzu jardueretan bereziki, ezin dira berreskuratze ekonomikoaren bizkarrezurra izan, hain dira ez kualifikatu, gaizki ordaindu eta iraupen laburrekoak. Nafarroa Garaian, ingurumari penagarri honetan, Unión del Pueblo Navarro alderdiak zuzentzen duen foru gobernuak aurrekontu publikoa hirugarren urtez luzatu du, ezintasun politiko eta desegokitasun ekonomikoari azkeneraino eutsiz. Egia da azken hiruhilekoan langabezia tasa jaitsi dela, baina ezin ahaztu 40.000 nafar baino gehiago lan baten bila dabiltzala. Hori gutxi balitz, Volkswagen enpresari itzuli beharreko BEZari buruz Montoro jaunak hasiera batean errandakoak, hots, mila milioi euro baino gehiagoko zorra zuela nafar ogasunak, eta ondoren lortutako akordioaren edukiak, hauteskunde usaina izateaz gain, foruen eta itun ekonomikoaren benetako ahulezia agerian utzi dutelakoan gaude.

Alboko erkidego autonomoan, PSOE-PSEren laguntzaz, Urkullu jaunak zuzentzen duen gobernuak ekonomia berpiztu eta lanpostuak sortzeko neurri batzuk iragarri baditu ere, haien emaitzak nabarmentzeko goizegi da. Gipuzkoan, oster, nahiko nabarmendu dira Zubietan egin behar zen errauskailuaren kontura aurreko Diputazioak sinatutako finantza kontratuaren ondorio garestiak. *Swap* delako finantza produktuaren ezaugarri txarrenak pilatu dituzte kontratatu

zutenen inozokeria errudunak eta nazioarteko interes tasen jaitsierak. Askotan gertatzen den ildoan, borondate oneko asmoak daude porrot sozial pottoloenen atzean... Interesen *swap*-ak, interes tasaren trukeak, epe luzeko mailegu handien korrituak nolabait finkatzeko (bereziki etorkizuneko igoretatik babes gisa) jaiio baziren ere, duela asko espekulazio finantzarioa bideratzeko erabili ohi dira, kontratatzen diren unetik aurrera interes tasak izanen dituen aldaketen inguruko eupada jarraituak, alegia. Finantza desarautzea indarrean dagoen bitartean, antzeko eragiketetan hutsik ez egitea oso zaila izanen da, Gipuzkoako jende gehienek kalterako.

Frantziako Errepublikan, urte hasierako atentatuen bihar-munean, langabeziaren igoera dela-eta, alarma ekonomikoak piztuta daude, defizit publikoari dagozkion europar araudiak haustera baitoa. Hollande presidentek Valls gobernuburuari arazo hori zuzentzeko emandako aginduez haratago, ikus-tekoa da nola jasoko duen iritzi publiko europarrak Grezia, Espainia edo Irlandako herrien kasuetan hartutako Merkel estiloko politika gogorrak Frantziari ez eskatu edo leundu izana. Edozein kasutan, gastu sozialen murrizketak eta enpresen aldeko neurriak ziurtzat eman dituzte adituek. Garai txarrak datoz programa sozialdemokratarentzat. 🍷



Hirugarren ontzia

Jose Maria Sanchez Carrion *Txepetx* oso idazle aipatua dugu gure literatura soziolinguistikoan. Batez ere, bere *Un futuro para nuestro pasado* liburua. Urte askotxo pasa dira liburua argitaratu zenetik, eta egileak berak inoiz aitortu du liburua-ren pasarte asko gaurkotu eta moldatu beharko lirakeela. Hizkuntzen ikaskuntzari buruzko pasarteek, ordea, balio dute haren iritziz.

Hiru ontzien eredu famatuaren bidez azaltzen du Txepetek hizkuntzen ikaskuntza. Ezagutza, erabilera eta motibazioaren ontziak eta euren arteko fluxu eta jarioak. Naturala eta kulturala. Ontzi batetik bestera eta alderik aldeko mugimenduan, elkarri lotuta eta elkarri eragiten. Ume zein nagusitan kontrako ibilbidea izan arren. Garrantzitsuena, beti ere, ontzien arteko jarioa dela ahaztu barik.

Teoria gurean hitzez hitz onartua izan da orain dela gutxi arte. Jone Miren Hernandez izan da hiru ontzien eredia zalantzan jarri duen lehena. Bere ustez, hiru ontzi horiek zurruneziak dira.

Berak nahiago du gaitasunak, praktikak eta emozioak erabiltzea, batez ere ontzi horiek malguagoak izan daitezkeela iradokiz. Gure errealitate konplexuari hobeto erantzuten diote ontzi berrituek, eguneroko poliedroa ulertu eta aldatu ahal izateko mamitsuagoa baita. Hobeto ulertzen dira horrela gurean gertatzen diren hainbat: euskaraz ederto aritu arren bere lana euskaraz egiteko zailtasuna dutenak, formalean ondo trebatuta egon arren informalean ezinean aritzen direnak...

25 urtetik gora joan dira eredu horren kanonizaziotik. Orduetik, ontzien arteko jarioa dogma gisa onartua izan da

(kulturelean motibazio/emozioetatik ezagutza/gaitasunetara eta erabilera/praktiketara eta naturalean alderantziz). 2014. urtea iritsi arte. *Moti+batu* izeneko jardunaldien barruan, Pello Jauregik izen hau zuen berbaldia eman zuen: 'Portaeratik jarrerara'. Bai, ondo aditu duzue: portaeratik jarrerara, hau da, erabileratik motibaziora, praktiketatik emozioetara.

Horregatik bakarrik, merezi du Jauregiren esanak gogora ekartzea, berritasunagatik bakarrik. Berriak ez ezik, esanguratsuak ere badira harenak. Laburbildu dezadan, beraz, berak han esandakoa.

Jauregik dio ezinezkoa dela hizkuntzarekiko kontzientzia herritar guztiengana zabaltzea, ezinezkoa dela herritar guztiak euskararen militante bihurtzea. Hala ere, beharrezkoa da nukleo bat izatea jokabide berriak urratuko dituen, hau da, praktika urratzaileak, berritzaileak izango dituen.

Jende 'arrunta' inguru sozialera egokitzen omen da. Gehienok egiten dugu egunero, mila aldiz, mila modutara, mila egoeratan eta mila lekutan. Hizkuntzari dagokionez, euskaldunok gehienetan erdaretara egokitzen gara. Baina jende 'arruntaren' egokitzeko joera naturala gure alde erabiltzen ikasi behar dugu euskaldunok; horretarako, mekanismoak asmatu behar ditugu, Jauregiren iritziz beti ere.

Mekanismo sozialak izan behar dira horiek guztiak. Hizkuntza-arauak sortu behar ditugu eta horiei babes soziala eman. Bere ustez, pertsona edo talde bat euskaraz aritzen hasten bada, inguruko jendea horretara egokituko da. Alegia, ez dira euskaraz hasiko motibazio altua dutelako, ez dira euskaraz hasiko militantziagatik. Normala hori da, eta besteok horretara egokituko gara, naturala hori delako.

Hau da, jokabidetik jarrerara, edo jokabidera joko dugu jarreratik pasa barik, zuzen eta artez. Eta gero guk geuk geure jarrera egokituko dugu portaera berrira.

Jokabide urratzaileak izango dituen nukleoa aipatzen du Jauregik. Txepetxek ere aipatu zuen nukleo sinboliko horrekin parekatzerik? Ez dakit, Jauregirena dimentsioz txikiagoa irudikatzen dut. Baina, tira... Nukleo hori ni askok

osatuko dute, edo ni eta ni askok (Jamaikako rastafariek gu esateko ni eta ni adierazmoldea erabiltzen dute, polita bezain esanguratsua).

Gorputzaren erretagoardiak arakatu

Ildo horretan, hiztuna jarri behar dugu orain arte baino erdigunerago. Begirada berri batekin jantzi behar dugu hiztuna, gugandik hasita. Imanol Minerren berbetan, «hiztuna osatu, askatu, autodeterminatu, ahaldundu, jabetu eta boteretu behar dugu». Eta, horretarako, berak emakume, lesbiana eta gay mugimendukoei kasu egiteko gomendioa ematen digu.

Haiengandik ikasi dugu pribatua politikoa dela. Beste berba batzuetan esanda, pribatuan egiten ditugun hizkuntza hautuak politikoak direla. Kontsumo bidezkoak, ezezagunen aurrean, seme-alabekin, bikotekidearekin, lagunartean, eta abar. Politikoak dira. Hala ere, ez gaitezen engaina. Den-dena ez dago gure esku: hizkuntza interakzioa da, eta, beraz, solaskidearen gaitasunek mugatzen dute gure hautua, gure erabakia.

Hala ere, hizkuntzaren iraupenaren atzean hiztunen hautu-erabakiak baino ez daude. Zerk behartzen, bultzatzen, sustatzen dituen horiek hartzera beste kontu bat da, baina hautu-erabakiak daude. Eta gai batzuetan oraindik hiztunok askatasuna dugu, ezta? Zer hizkuntzatan egin hautatzeko askatasuna dugu egoera jakin batzuetan, ezta?

Horrek ez du inola ere ukatzen hizkuntzaren (hiztunon!) biziberritzea bereziki jendartearen tatamian jokatzen dela. Alderdi sozialak garrantzia du, zer esanik ez, baina kasu batzuetan hiztunon hautu 'ez egokiak' zuritzeko aitzakia dela ematen du. Edo ez, baina hori inork ez du aztertu. Gure soziolinguistikaren beste hutsuneetako bat, agian.

Feminista, gay eta lesbianeiei ere ikasi genien gorputza borroka-eremua dela. Pierre Bourdieuk ere adierazi zuen egunero-ko hizkuntza-praktikak borroka-eremua direla. Berri Txarrak taldekoek ere zarata artean esan zuten honakoa *Berriz min*

hau kantan: «Gudu-zelai bihurtzen denean norbera, irabaztea zer da? Zer galera?». Horiek guztiak neure irabiagailuan sartu eta mingaina borroka-eremua dela esaten dut nik.

Eta mingaineko borroka horretan hiztun gehienok trebatu behar dugu, orain arte baino gehiago. Eta trebatu diodanean, ez naiz ari ikasteaz, ez naiz ari teoriiaz, ez naiz ari nonbaiten ikasi edo desikasi daitekeenaz. Ez. Egunerokoaz ari naiz, praktikaz ari naiz, koherentziaz eta autoestimuz ari naiz. Gure buruarekin konformeago egoteaz ari naiz, gure disonantziak txikiago egiteaz ari naiz, esaten eta egiten dugunaren arteko amildegian zubitxoak eraikitzeaz ari naiz. Poliki-poliki, baina sendo, tinko. Kontuan hartuta praktika urratzaileak gutxi batzuek baino ez dituztela aurrera eramango.

Erabilera arauak aldatzen ari dira

Hizkuntza hiztunok egunero aldatu, sortu, katramilatu, traskildu, manipulatu, limurtu, zimurtu, eraldatu, murtxikatu, zukutu, marruskatu, estutu, zabaldu eta biziarazi egiten dugu. Hizkuntza metafora saldo bat baino ez da, mendetatik datozenak batzuk eta gaur egun sortutakoak beste batzuk. Hiztunok mendez mende erabili, modan jarri, deserabili, asmatu, batu eta artefakturik ederrena eta miresgarriena sortzen ari gara: hizkuntza. Lagun hizkuntzalari batek behin esan zidan moduan, hizkuntzalaritza zientzia puruz mozorrotu arren, soziala da edo ez da.

Hiztunon bultzada barik hizkuntza ez da ezer, hiztunon berritasunik gabe hizkuntza ez da aurrera joaten. Eta berritasunik sortzen dira noiznahi, nonahi. Hizkuntza, interakziorik gabe, berben segida fosildua baino ez da, hizkien batuketa ordenatu eta perfektua akaso, baina zentzurik gabekoa erabat.

Hiztunon eskuz datoz aldaketak hizkuntzetara, esan dudan legez. Eta horren erakusgarri *Bat* aldizkariaren 91. zenbakian Josu Ozaitak plazaratu duen artikulua. Ikuspuntu antropologiko batetik aztertu du hitanoaren erabilera Tolosaldeko

gazteen artean. Eta ondorio esanguratsuak eta interesgarriak zirriborratu ditu.

Hitanoaren erabilera aldatzen ari da Tolosaldean gazteen artean. Hori ondorioztatu du Ozaitak. Izan ere, hitanoa gero eta gehiago erabiltzen da berdintasunezko arau baten modura. Hitanoa darabilten gazteek ez dituzte usadiozko arauak betetzen praktikan. Horren harira, noka desagertzen ari da eta hikatzaile berriek tokaz egiten dute parean dutena neska izan arren (neska-neska edo mutil-neska elkarrizketetan). Eztabaidatzekoa da, hala ere, horrek benetako parekidetasun eredia dakarren ala ez, baina horri ez diot oratu nahi oraingoan.

Beste berrikuntza bat egiten zait niri adierazgarriagoa. Tolosaldeko herri txikietan hitanoaren belaunez belauneko sozializazioak indarra izan du eta du. Herri handiagoetan, ostera, salbuespenak salbuespen, ez (Tolosa, Ibarra eta Villabona aipatzen ditu egileak). Baina herri horietako gazte batzuek hitanoa erabiltzeko urratsa egin dute, etxean jaso ez arren (eskolan irakasten den hitanoaz ere luze egiten dute berba gazteek ikerketan, baina horren inguruko argibideak nahi dituenak jo dezala artikulu originalera).

Berritasuna dakar horrek. Etxean ikasi ez, eskolan ia-ia ikasi ez, eta kalean eta arian-arian ikasi dute (gehienek gaitasun mugatua dutela aitortu arren). Hala ere, interesgarria da gazte horiek zergatik egin duten hitanoaren aldeko hautua. Irakur ditzagun horietako gazte baten berbak:

Ni oain dela gutxi hasi naizela hika hitz eitten, oain kontuatze naiz nik hika erabiltzen detela funtzio bat bilatzen diotelako, informaltasun toke hoi... ni ez naiz hasi hika hitz eitten galdu ingoalako. (Aitzol. 19 urte. Tolosa)

Informaltasun bila jo du gazte horrek hitanora (eta egileak iradokitzen du besteek ere arrazoi horregatik jo dutela). Bizkaiko zonalde batzuetan (Txorierrin, Bilbon edo Uribe Kostan bat baino gehiago ezagutzen dut nik), etxetik erdaldun izan diren batzuek euskalkia ikasi eta egunerokoan normal

antzean erabiltzen dute, aldeak alde (nik dakidala inork ez du neurtu zenbat diren, zer esparrutan erabiltzen duten eta zergatik jo duten horretara).

Neurtu eta ikertu ez arren, nik uste dut gehienek Aitzol horrek (izena asmatua da) barruntatzen zuen informaltasun ukitu horren bila jo dutela euskalkira. Txisparen bila, gatz eta piperraren bila, indar konnotatiboaren bila, hurbiltasunaren bila. Hitanora edo euskalkira.

Baina, mesedez eta arren: itsutu barik. Euskalkiak (bizirik dagoen tokian, beti ere) bere espazioak ditu, estandarrek bereak dituen modu berean. Biak ditugu makulu, biak beharrezko, biak etorkizun. Euskara batu kaletarraren esperimentu erraldoian probetekin olgetan jardun behar dugu, elementuak nahastuz, berritasunak zabalduz, saiakerak eginenez eta hanka sartuz. Orain eta gero. 🍷



Tesla mugikorrean

Nikola Tesla asmatzaile, ingeniari elektrikoa, ingeniari mekanikoa, fisikaria eta futurista izan zen. Korrante alternoaren asmatzailea izan zen, eta doako elektrizitatea guztiontzat izateko aukerarekin amesten zuen. Berak asmatutako korrante alternoko motorrak, adibidez, bigarren industria iraultzan murgildu gintuen.

Beste hainbat mito eta istorio harrigarri ere lotzen zaio; irakurri, adibidez, 1908an Tunguskan (Siberia) gertatutako leherketa eta suntsipenari buruz. Doako elektrizitatearen ingurukoak ere gaizki-ulertu edo gehiegikeria moduan uler daitezke.

Mito ez dena, aldiz, haririk gabeko elektrizitate garraioarena da. Irratiaren patenteak berarenak dira, nahiz eta gehienok Marconirekin lotzen dugun asmakizun hura. Hori bezalaxe, elektrizitatea ere haririk gabe garraiatzeko asmakizunak eta proiektuak bazituen. Mugikorraren bateriaren agortzea 'arazo' bihurtu den honetan, Tesla aitzakia bezala hartuta, horren haritik tiraka berarenak izan litezkeen mugikorretarako zenbait tresna aurkeztuko dizkizuegu.

Denak gelditu gara noizbait bateriarik gabe gure gailuetan; horren aurrean, gure lehen gailu hauek –bateria eramangarriak, alegia– soluzio azkar bat dira. Era eta tamaina askotarikoak daude, baina ezaugarri garrantzitsuena, kasik, beren biltegitratze ahalmena da. Neurtzeko erabiltzen den unitatea mAh-a da; gure bateriak 2.600 mAh-ko ahalmena badu eta gure bateria eramangarriak hori baino gehiago, karga osoa egiteko aukera emango luke, beraz. Horietako batzuk mugikorreko bateria lau-bost aldiz betetzera iristen dira. Gero

eta merkeagoak dira, vending dendetan ere ikus daitezke, tren geltoki eta leku estrategikoetan.

Karga izatearekin batera, karga hori azkar egiteko aukera ere garrantzitsua da. Horregatik, karga azkarreko bateriak eta sistemak ere garrantzitsu bihurtzen ari dira. Gailu mugikor gehienek USB bidezko karga estandarra erabiltzen dute, baina badira ere karga azkarrago burutzeko sistemak. Horietako batzuk –Pump Express (Mediatek), Quick Charge 2.0 (Qualcomm), VOOC (Oppo)...– mugikor berri askotan presente dauden teknologia berriak dira. Karga abiadura bikoiztu edo hirukoiztu egiten badute ere, ezaugarri bereziak dituzten gailuetan erabil daitezke soilik; batzuetan kargadore berezia behar izaten dute, gainera.

Qi haririk gabeko kargarako teknologia aspaldikoa bada ere, nahiko ezezaguna da oraindik. Gailu batek Qi karga onartzen duen jakiteko, gailuan bertan edo bere kutxan Qi teknologiaren logoa bilatu beharko dugu. Aurkituz gero, haririk gabeko kargadore hauek erabil daitezke kargarako. Kable baten bidez entxufatu beharrik gabe, mugikorra kargadorearen plataformaren gainean jarri eta kargatzen hasten da gailua. Mugikor berrienetan teknologia hori hedatzearen ondorioz, beren prezioa ere asko merkatu da.

Epe luzerako soluzioek, aldiz, paradigma berrietan oinarritutako baterietatik etorri beharko dute. Azken ikerketetan, grafenoak paper garrantzitsua izan dezakeela frogatzen ari dira. Badirudi litioz eta grafenoz osatutako bateriek iraupen gehiago eta karga denbora baxuagoa izango dutela. Grafenoarekin bakarrik ere hainbat ikerketa martxan daude, baina emaitza komertzialak ez dira berehalakoak izango.

Teslaren ideiek aurrera egin izan balute, beharbada elektrizitatearen eskuragarritasunak eragindako arazo horiek guztiak gaindituta egongo lirateke; baina, momentuz, elektrizitatea eskura izateak berebizikoa izaten jarraituko du gure jendartean. Pakistanen ondo dakite: urtarrilean zentral elektriko batean gertatutako arazo baten ondorioz, herrialdearen %80 elektrizitate gabe gelditu zen. Horren ondian,

gure mugikorrak noizean behin bateria gabe gelditzea husteria bat da.

Partaidetza eta teknologia

Posta sareak sare zentralizatuen garaia ekarri zigun. Telegrafoak (eta ondoren telefonoak) XIX.-XX. mendei forma eman diete. Internetek, aldiz, sare banatuen garaia ekarri du, eta mundua ere forma horretara egokitzen ari da. Sare banatuen ezaugarria hau da: puntu batetik bestera igarotzeko milaka bide izatea. Hau da, informazioa pasatzen utzi edo bideratu behar duen gune zentral bat edo batzuk egon beharrean, mila bidetatik irits daiteke informazioa.

Paradoxikoa bada ere, aldi berean komunikazio tresna ugari eta zuzenagoak ditugun garaian, jendarte eta erakunde gehien artean urruntasun handia nabaritzen da oraindik. Aldiz, nolabaiteko irudipen orokorra da teknologiak, beste arlo batzuetan egin bezala, partaidetza sustatzeko politiketan nolabaiteko garrantzia izan behar duela, paper hori zein den argi eduki gabe oraindik.

Testuinguru honetan, parte-hartzea era eraginkor batean egituratzeko tresnak sortzen ari dira, eta batzuk erakundearen interpelaziotik harago doaz. Horietako batzuk ez dira soilik erakundeentzako baliagarriak, talde erabakiak hartzen laguntzeko ere baliagarriak izan daitezke.

Orain arteko galderak, eztabaidak edo erabakiak hartzen laguntzeko, adibidez, Appgree.com zerbitzua dago. Sakelakoetarako (iOS eta Android) aplikazio eta webgune horren bidez, ideia edo galdera asko proposatu eta bozka daitezke aldi berean. Horretarako algoritmo estatistiko bat darabil, non ideia bakoitzarentzat jende multzo handi batetik ausaz zenbait aukeratzen dituen; horrela, bakoitzak galdera gutxi batzuk bozkatzen ditu. Ausaz aukeratutako lagin horretatik ateratako emaitza oso gertu egongo da multzo osoak pentsatzen duenetik. Hala ere, hainbat errondatan emaitza zehatzago egin liteke.

Bigarrena Saretuzz.com da, gure herrietako gaiei buruz mintzatu ahal izateko sare soziala, herritarren partaidetza sustatzera bideraturiko tresna. Herritarren eta udalen arteko zubi bat da. Prozesua honako hau da: herritarrak ekarpena egiten du, ondoren Saretuzzek ekarpenak jasotzen ditu eta dagokion udalera bideratzeaz arduratzen da. Gero, udal teknikariek ekarpena aztertzen dute eta, bukatzeko, herritarrei erantzuna ematen zaie. Horretaz gain, herritarrek beraien artean elkarre-ragin dezakete une oro, elkarrenganako errespetuz jokutzen duten bitartean.

Azkena Democracyos.org da, prozesu demokratikoak Internet bidez gauzatzeko aukera ematen duen tresna. Maila ezberdinetako konpromisoa zehazteko aukera ere ematen du, informatuta mantenduz, eztabaidan parte hartuz edota bozkatuz. Erakunde edo talde arduradunek jada martxan diren ekimenen inguruko iritziak jasotzeko ere baliu daiteke.

Loomio.com plataformak, aldiz, talde baten baitan erabakiak zerotik hartzeko balio du. Ideia eztabaidatzen da, adostasuna bilatzen da bozkatzeko aukera ere emanez eta, amaitzeko, hartutako erabakien jarraipena egiteko aukera ere ematen du.

Aipatutako tresna gehienak libreak dira, beraien kodea askatzeko konpromisoa erakutsi dute edo oso gertuko zerbitzuak dira; beraz, ikuskatzen errazak dira. Ezinbesteko ezaugarriak, fidagarritasuna ziurtatu nahi bada.

Plataforma horien erronka nagusia, aldiz, jendarte osoari begira ari bagara, zeinek eta zein mailatan parte har dezakeen zehaztea izango da. Benetako aldaketak garatzeko, erabiltzaileek ere kultura parte hartzailea beharko dute. Oraindik ere jendartean plano fisikoan zaila dena, arlo digitalean eskatzea ideia ona da?

Interesgarria dirudi, halere, eztabaidak, iritziak eta bozak jasotzeko bide berriak edukitzea. Beharrezkoa demokrazia prozedura hutsetatik harago eraman nahi duenarentzat, bereziki horiek gurean lau urteko epeetan gauzatzen direnean. Identifikazio sistema bati lotuta (anonimoa beharko du kasu batzuetan), erabakietan parte hartzea asko erraztuko luke.

NANarekin (edo beste edozein dokumentu baliagarri alternatiborekin) bozkatu eta, zeinek daki, ekarpenak ere egiteko aukera laster ikusiko dugulakoan nago.

Zientzia-fikziozko asmakizunak

Zientzia-fikzioak askotan fantasiako munduak, jendarte utopikoak, distopiak... bizitzeko aukera ematen digu, baina baita etorkizuna gaurtik pentsatzen hasteko aukera ere. Hemen, zientzia-fikzioan agertutako zenbait asmakizun interesgarri.

Panglos itzultzaile automatikoa Antoni Olivék idatzitako *Qui vol el panglós?* (Zeinek behar du panglosa?) eleberri laburretik ateratako asmakizuna da: hitz egindakoa jatorrizko hizkuntzatik hartu eta berehalakoan itzultzen du ahots tonu propioan. Aldi berean, emititzen den ahots originala ezkututzen du, bi ahots ez emititzeko. Hartzailak ere nahi duen hizkuntzan jaso dezake mezua. Itzulpena nahiko kalitate onekoa da, baina munduko 42 hizkuntzatan bakarrik da posible oraindik.

Neal Stephenson-en *Diamond Age* (Diamanteen aroa) eleberrian liburu elektroniko egokitzailea agertzen da. Bertako protagonista den Nell klase baxuko neskatok bere hezitzailea izango den liburu elektroniko berezi bat jasotzen du. Liburua bere izaera eta gertakarietara egokitzen da, irakaspen berriak emanez. Harrigarria bada ere, bertan agertzen diren istorioak antzezteko, benetako pertsona ahotsak antzezten dituzten *ractore*-ak erabiltzen dira. Ahots teknologien sintesia garatuta dagoen arren, intonazio errealak benetakotasun gehiago ematen omen dio kontakizunari.

Dispossessed (Pobretuak) eleberrian, aldiz, Ursula K. Le Guin-ek *ansible* delakoa asmatu zuen. Eleberrian, anarkismoa eta iraultza soziala, kapitalismoa, kolektibismoa, indibidualismoa aztertzen ditu. Aldi berean, hizkuntzak pentsamendua egituratzeko duen gaitasunaz ere hausnartzen da.


Ansiblearen bidez, mezuak argiaren abiadura baino azkarra-
go transmiti daitezke, galaxia arteko komunikazioak posible
eginez. Oso urrun gaude asmakizun horrek proposatzen
duena lortzeko, baina horren ondorioz zientzia-fikzioaren li-
teraturan behin baino gehiagotan erabili izan da asmakizuna.

Bere garaian egindako aurreanetan gaur egungo garaie-
tara egokitzen den bat badago: Bruce Sterling-en *Islands in
the Net* (Irlak sarean). 1988an idatzi zuen, eta gaur egungo
Internet aurreikusten zuen, baita orain *wearable* edo jantzi-
garriak diren teknologia gailu asko ere, erloju, zapatila eta
betaurrekoak, adibidez. Munduaren ikuskera oso berezia da,
bertan Sobietar Batasuna desagertu ez bada ere, antz handia
duena gaur egungo egoerarekin.

Batzuk jada gure artean dira eta beste batzuk auskalo iritsi-
ko diren ere, baina zientzia-fikzioak batzuetan etorkizuneko
erronkak aurreikusteko balio digula ezin uka. 📖

Joan Perez Lazarraga Gasteizen


Linda damachoa
nola çagode?
Beti pensamentuan
galçaen çaytue.



Ecer trabajuric
oyta badoçu,
ene laztanchoa
arren, esaçu;



Guztiau çurea nax ta
erraz daguiquet
Beti pensamentuan
galçaen çaytue.



EZ ESAN EDERRAK
EZ DIRENIK
BERTSOOK!

ETA BIDE BATEZ, EZ DUZU JAKINGO,
HEMEN, GASTEIZEN, NON DAGOEN
NIRE OMENEZKO
MONUMENTUA?

...



zugaz/
art

Jakin ^{•eus}
herria kultura hizkuntza

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

